



LAN MUNDURA BEGIRA

Langabezian zeuden hamabi herritar formazioa eta enplegua uztartzen dituen sei hilabeteko tailerlean parte hartzen ari dira. Malerrekako Mankomunitateak abiatu du proiektua, Nafarroako Enplegu Zerbitzuaren laguntzarekin. / 7

Herriz Herri Txapelketa ate joka

Zortzi talde apuntatu dira herri kirol lehian, tartean, Arantza, Arraioz, Basaburua, Igantzi eta Sunbilla. Hilaren 22an Beran hasiko da. / 58



Elgorriagako Jose Mari Garrido gibelego transplantatua da / 10



Irune Galparsoro eta Haizea Muñoz Aranoko gazteekin festak hizpide / 26



Mikel Zabaleta leitzarrak Nafarroako parlamentari kargua hartu du / 44



Rober Irigoien Iruritako alkatearekin kontu kontari / 48

BISITATU

URDAZUBI-DANTXARINEA PLANIK ONENA DA!

100 saltoki baino gehiago zure eskura

Moda, aisialdia, pintxoak, lurrin-dendak, likoreak, janari-dendak,
arropak, oroigarriak, bitxiak, jatetxeak...

BENTAK ZABALIK DAUDE URTE OSOAN ZEHAR ASTEKO 7 EGUNETAN



**Eta honako hauek bisitatzeko aukera eskaintzen
duen Nafarroako herri eder tipiko bat:**
Lezeak, museoa, monasterioa, erakusketak, ibilbideak, errota...



www.urdax-dantxarinea.com



NIRE TXANDA

KORO IRAZOKI ARBURUA

Ez dira denak berdinak

«Denak berdinak dira». Esaldi arrunta da politikariei zuzenduta. Eta zentzu batean egia da: edozein politikarik (zuk eta nik bezala) aise hartuko du bere alde opari bat (edo bi, edo hiru...). Baina **egiten duten politika ez da berdina**. Batzuek lege aurrerakoiak onartuko dituzte (eutanasia, memoria historikoa, berdinen ezkontzak...), eta bertze batzuek lege horiek suntsitu. Batzuek lanbide arteko gutxieneko soldata 1.080 eurora eramanez, eta bertze batzuek, enpresariari aginduz, diru hori jautsi. Batzuek ikasteko bekak, jubilarioak, mendekotasunerako laguntzak eta abar sustatuko dituzte, eta bertze batzuek behar ez diren aireportuak eraiki. Batzuek saiatuko dira osasun publikoaren zaintzen, eta bertze batzuek ospitaleak pribatizatuko dituzte. Batzuek etxebizitza sozialak eraikiko dituzte, eta bertze batzuek lur publikoarekin espekulatuko dute etxebizitza garestiak saltzeko. Batzuek ortzadar bandera paratuko dute, eta bertze batzuek errabiaz kendu. Guregan eragina duten neurriak zeinek hartuko dituzten erabakiko da uztailaren 23an. Zeinek hartuko dute agintea?: «Batzuek» edo «Bertze batzuek»? Gure erabakia da.

«ZEINEK HARTUKO DUTE AGINTEA? GURE ERABAKIA DA»



EZPALA

AITOR AROTZENA ALBIZU

Gora gu eta guTourrak

Zer dira bada 14 milioi euro, hiru eguneko errepide itxiak eta zientzia bat txintxeta tropel osoa boneta beltzez jantzirik, Pogatxar Athletic Clubeko bazkide eta Vingegaard Tolosako babarrunaren kofrade eginak, ikurrinez betetako errepideetan gaindi, zelai berdeen eta itsas urdinaren ondoan ikusten badituzte mundu osoan? Gora (Alfredo) Landismoa!

NABARMENTZEKOAK



FRED RAMOS
ARTISTA



JULIA LANASPA
ERRETIRATUA

Lesakako sanferminetako kartel lehiaketa irabazteaz gain, berriki Berako bestetako egitarauaren azal lehiaketa ere irabazi du Fred Ramos Lasaga lesakarrak. Zorionak!

Julia Lanaspá doneztebarrak 101 urte bete zituen ekaina akabailan. Besta giroa izan zuen eguna ospatzeko; bestetako zapia paratu zioten eta aurorak ere kantatu zizkieten. Zorionak!

GIBELERA BEGIRA



2013-07-11 · TTIPI-TTAPA · 594 zk.

Ustelkeria gai hartuta Patxi Urrutiarekin

Aktualitateko gai zen Nafarroako politikako ustelkeria, eta batez ere Nafarroako Kutzarekin gertatua duela hamar urte. Egoeraren gakoak emateko, Patxi Urrutia Kontuz! elkarterko kide amaiurra elkarriketatu zuen TTIPI-TTAPAK. CANen gertatuak adar aunitz zituela azaldu zuen, baina arduradun nagusiak hiru pertsona zirela zioen: «Nafarroako Kutzako presidentea, kudeatzaile nagusia eta kontrol taldeko burua; Enrique Goñi, Miguel Sanz eta Yolanda Barcina. Gure politikari nagusiak dira eta gertatu diren arduradunak». Baikor mintzatu zen: «Diru guztia nola galdu den ez, baina zer gertatu den jakitea lortuko dugu. Gizar-teak gure salaketa ulertu du eta hori da gure lorpenik handiena. Aldaketak etorriko dira»



erran. eus



Argitaratzailea
Ttipi-Ttapa Fundazioa
Koskontako bidea, 7 - 1.
31770 LESAKA
T. (+34) 948 63 54 58
F. (+34) 948 63 54 57
WhatsApp 744 48 43 61
info@ttipi.eus

Zuzendaria
Aitor Arotzena
Erredakzioa
Gurutze Pikabea, Ruben Oskariz,
Eneritz Iraola, Ainhoa Larretxea
Publizitatea
Amaia Odriozola
Arantza Agirre
Berriemaileak
Arkaitz Mindegia, Marifa Irazoki,
Koro Irazoki, Nerea Altzuri,
Arantxa Etxeberria, Iraia Jaurena,
Irene Elizagoien, Maider Petrirena,

Ainhoa Ansa, Fermin Ebekolonea,
Aintzane Leiza, Ana Iturbide,
Itziar Mitxelena, Juan Mari Barriola,
Maitane Maritorea, Arantxa
Iturralde, Arantxa Gamio, Jaione
Ariztegi, Jaione Zabalo, Nerea
Mortalena, Jean Louis Bessonart,
Ganex Etxeberrigarai, Maialen
Iantzi, Olatz Mutuberria, Oier
Zulaika.

Fundazioaren Presidentea
Paskual Rekalde
Kudeatzailea
Joxemanuel Irigoien
Administrazioa
Amaia Goia

Lege Gordailua
NA-1324/85
ISSN
1578-4673
Tirada
6.000 ale

Erakunde laguntzaileak
Leitza, Goizueta, Arano, Areso,
Baztan, Sara eta Senperoko
udalak, Malerrekako Zerbitzuen
Mankomunitatea.

2023ko harpidetza sariak
Baztan, Urdazubi 45€
eta Malerrekako 36€
Leitza 36€
Hego Euskal Herria 50€
Ipar Euskal Herria, Europa 100€
Amerika eta Australia 152€



KOLABORAZIOAK

MIKEL TABERNA IRAZOKI KAPI

Haize hegoa

Haize hego gogorra atera du Nafarroako behehitiko partean, Ebro bazterrean, eta Bidasoaren ondoraino hedatu da. Haren orroa aditu da toki guzietan: hordago! Dantzan jarri gaitu, eta aitzin horretan karririk jendez bete ditugu Iruñean, oihuka: euskara ofiziala nahi dugu Nafarroa osoan, Cortestik Beraraino! Zer arrai! Horrek lagunduko luke batzuek erein duten beldurra uxatzen. Jende gehiagok ikasiko luke eta laburtuko lirake gure arteko distantziak. Zergatik hainbertze traba euskarari? Bertako hizkuntza bat izaki eta, nola liteke? Nafarroako puska handi samar batean euskara ez da ofiziala, arrotza balitz bezala tratatzen da. Iduri du politika hori defenditzen dutenek han bizi direnei erraten dietela «nafar lur honetako ondasun guziak dastatzen ahal dituzue: Iratiko oihana, Iruñeko sanferminak, Ultzamako gaztanbera, Orbaibarko erromanikoa, Erriberako barazkiak, Lodosako piperrak, Sakanako txistorra, Zugarramurdiko sorginak, Bidasoko izokina, Bardeako basamortua, Lizarrako larrain-dantza...; den-denak, bat kenduta: ez ezazue ukitu ere egin arbola madarikatuak ematen duen fruitu pozoitsu hori, zeren, hori egiten baduzue, paradisu honetatik kanpora joan beharko baituzue eta deusetarako balio ez duen hizkuntza baten karga jasan beharko baituzue zeuen bizi osoan».

«DATOZELA EUSKARAZ BIZI NAHI DUGUNON INFERNURA»

izatea. Kutsatu nahi dute, eta gaitz gaiztoa sufritzeko prest dira. Eta gainera haserretu eta koleratu egiten dira, arrazoi osoarekin, gainerako nafarren aukera berberak izan nahi dituztelako hizkuntza ikasteko eta erabiltzeko. Sexuaren gainean aspaldi aditu genuen erretolikarekin ere badu antza: ez ukitu, ez egin, ezta pentsatu ere! Hura ere politika zen. Utzi diezaietela euren borondatez bekatu egitera Nafarroako hegoaldean hordago jo dutenei, utzi euskararen sagarrari ausiki egitera. Datozela euskaraz bizi nahi dugunon infernura. Paradisutik kanpora ere bada bizi ederrik. Aspalditik gaude kondenatuak. Gabriel Arestik bezala, guk ere gaugerero ez dugu zerurik espero.

Alegia, haien alde ari balira bezala, haien babestu eta zaindu nahian. Baina ez dute jende guzia horrelako predikuekin engainatzen, eta kanpaina hau martxan paratu dutenek nahi dute haien herrietan ere euskara ofiziala



ELURRE IRIARTE BAÑEZ

'Pereza'

Ez da nire intentzioa gauzak egiteko izaten dugun utzikieriaz solastatzea. Profesionalen batek jakinen du esplikatzeko zergatik izaten dugun tarteka alferkeria herriko afarira joateko edo etxea txukuntzeko, edo solasaldi batera hurbiltzeko. Nire kezka gehiago da zergatik sorrarazten diguten *pereza* zenbait gai sozial edo politikok: gure hausnarketak eraginen digun *perezaz* edo gogo faltaz ari naiz.

Lehendabiziko aldian *pereza* hitza zentzu horretan entzun nuenean, mutil dantzei buruz ari ginen. Zenbait mugimendu sozialek parte hartu genuen hausnarketa prozesu batean izan zen. Prozesu hartan azaleratu genituen bazterketa, zapalketa, matxismoa, tradizioa eta halako hitzak. Testuinguru horretan entzun eta ohartu nintzen lehendabiziko aldiz hitzaren pisuaz: «*Pereza* ematen dit mutil dantzaren gaiak». Deigarria egin zitzaidan baina ohartu nintzen nondik ari ziren eta zergatik gogo falta hori.

Berriki berriz piztu zait alarma guraso diren bati baino gehiagori «modan dagoen amatasunaren gaiak *pereza* ematen dit» aditu diedalarik. Segituan lotu ditut biak eta mutil dantzak batzuei sorrarazten zien harekin oroitu naiz, bien arteko lotura ikusiz.

«EZ DA GAIA 'PEREZA' EMATEN DIGUNA, LANA BAIZIK»

dantzarekin genuen harremana, irauli eta egokitu behar zen, eta horrek barne lan handia eskatzen zuen. Orain amatasunaren gaiarekin gauza bera pasatzen ari da: zalantzan paratu dira gure hitzak, gure ekintzak, funtzionatzeko manera, egindako lana edo egin ez dena, bizitzeko modua azken finean, berdin zait ama, aita, izeba, aita edo horietako bakar bat ere ez bagara: gaia sozializatzen delarik, publiko bihurtzen delarik, komunitatearena dela ikusten dugularik eta beraz jarrera aldaketa bat eskatzen digularik, *pereza* ematen digu. Ez da gaia *pereza* ematen diguna, egin beharreko lanak baizik.

Normalizatua dugun zerbait zalantzan paratzen dugularik, edo deserosotasunetik lanean hasten gara (eta horrek *pereza* ematea ez da harriztekoa) edo zapalketa baten aitzinean konplize bihurtzen gara. «Hau *pereza* ekologia, hau *pereza* feminismoa, hau *pereza* herrigintza, hau *pereza* antolatzea, hau *pereza* transexualitatea, hau *pereza* Elizondoko bestetako mutil dantza baztertzaila...».

Hau *pereza*, ez da hala? Erran nahi, hau lana, ez da hala?

Zer dute komunean bi *pereza* hauek? Niretako argi dago: gure hitzak, gure ekintzak, gure harremanak, gure bizimodua azken finean, zalantzan paratzen ditutela. Errebisatu behar zen orduan mutil

11 GALDERA LABUR

ALOÑA AYOROA GOÑI ITURENGO GAZTEA

«Osasunan aritzea esperientzia ederra izaten ari da»

Nola definituko zenuke zeure burua?

Ttikititik kirola eta dantzak gustatzen zaizkion neska alaia eta umoretsua.

Zein dira zure zaletasunak?

Familia eta lagunekin egotea eta kirola egitea, batez ere futboleant. Pilota ere aunitz gustatzen zait eta herriko dantza taldean aritzen naiz.

Noiz hasi zinen futbolarekin?

Ttikititik gustatu izan zait baloiarekin jostatzea, herriko plazan denbora aunitz pasatzen nuen lagunekin futboleant eta 9 urterekin herriko lagun bat eta biok Doneztebeko Futbol Taldean hasi ginen.

Gaur egun Osasunarekin aritzen zara, ez?

Bai, 2022ko maiatzean entrenamendu batera deitu zidaten,

eta geroztik haiekin segitzen dut teknifikazio entrenamenduetan. Teknifikazio taldearekin hainbat torneotan parte hartu dut; Valladoliden, Asturiasen, Hernanin, Azpeitian eta Andorran. Esperientzia ederra eta ezin hobea izaten ari da, lagun berriak egin ditut eta herri berriak ezagutu ditugu.

Zenbat denboraz entrenatzen zara?

Doneztebeko taldearekin astean bi entrenamendu egiten ditut eta asteburuetan partiduak. Osasunarekin, berriz, hamabostean behin entrenatzen naiz.

Betetzea gustatuko litzazukeen ametsik?

Momentuz ez daukat helbururik, kirolaz gozatu nahi dut.



Bestak gainean dituzue. Bestazalea zara?

Bai, gogo handia daukat bestetarako eta bestazalea naizela erranen nuke, ekitaldietan parte hartzea gustatzen zait. Zein da ttikitatik duzun lehen oroitzapena bestetan?

Puzgarriak jartzen zituzten egunero, eta horietan saltoka pasatzen nuen egun guztia.

Eta gaur egun zer gustuko duzu gehien?

Bezperan egiten diren haurrentako herri kirolean eta

esku pilota edo frontenis txapelketan parte hartzea. Dantzariet emanaldia izaten dugu eta hor ere gustura parte hartzen dut. Ortziralea haurren eguna izaten da eta sortzen den giroa aunitz gustatzen zait.

Zure asmoak epe motzera?

Oporrak hasi berriak ditugun honetan, uda ahalik eta hobekien pasatzea.

Eta epe luzera?

Orain arte bezala kirolarekin gozatzen segitzea.



Beherapenak

1951tik
Casa Cambra
Ientzeria-etxea

Tafalla, 13 · IRUÑEA · 948 230 634

Albornozak
Mantelak
Kuxinak
Edredoi nordikoak
Ohe estalkiak
Maindireak
Toailak
Edredoi-azal nordikoak



IRAKURLEAK MINTZO

Posible al da hiruko abertzale bat Nafarroan?

GERMAN GORRAIZ LOPEZ

PSNk, Geroa Baik eta Contigo-Zurekin alderdiek osatutako gobernu aurrerakoi bat berrargitaratzea litzateke Nafarroako utopia, Maria Txibite buru eta EH Bilduren babesa izango lukeena, eta Esparza eta UPN basamortuaren zeharkaldi luzera kondenatuta geratuko lirateke oposizioaren bankadatik.

Tamalez, Txibiteren pentsamendua zurruna eta zuzendu ezina izango litzateke, ez bailituzke kontrako arrazoiak kontuan hartuko, eta aurreiritzia baieztatzeko datuak edo zeinuak baino ez lituzke jasoko, uste sendo bihurtzeko («denek babestuko dute PSN, UPNren gobernu saihesteko»).

Hala ere, printzipio bat logikoa eta zapaltzailea irudituko litzaiokeen axioma hori, baina Ferrazen aginduen mende egongo litzateke. Hala, Santos Cerdanen-gandik jasotako aginduek Bildurekiko menpekotasun politikoa alde batera uztera behartuko lukete, dela berariazko babes gisa, dela abstentzio aktibo gisa, PSOE uztaileko hauteskunde kanpainan aurkeztu ahal izateko, Bildurekin inolako lotura politikorik izan gabe.

Estrategia horrek Bildu parlamentuan, udaletan eta kontzejuetan baztertzea ekarriko luke, eta Iruñeko alkatea hautatzeko ekitaldian antzestu zen. Alkatetza hori UPN alderdi nabarristaren esku geratu da, Elma Saiz PSNko hautagaiak bere burua bozkatu zuelako eta oposizioko indarren artean adostasunezko hautagaitza aurrerakoi bat eraikitzea eragotzi zuen.

Hauteskundearen errepikapenerantz? Nafarroako hiri nagusietako (Iruñea, Lizarra, Barañain) alkatetzak eskuin nabarristari emateak eta Txibitek Foru Gobernu berriaren osaketa azaroren 26ko Hauteskunde Orokorren emaitzak egiaztatu arte atzeratuko zuela iragarri izanak, mesfidantzaren hazia erein zuen Geroa Bairengan.

Hala, Uxue Barkosek jakingo luke Espainiako Estatuan PP-Vox koalizio-gobernua osatuz gero, Nafarroan UPN-PSN gobernu nabarrista berrargitaratu ahal izango litzatekeela, Javier Esparza buru eta Txibite presidenteorde izango litzukeena, Geroa Bai eta Bildu Nafarroako botere eremuetatik ateratzeko helburuarekin (Gaztatxoren Teoria).

Ondorioz, Geroa Bai udazkenean Foru Parlamenturako hauteskundeak errepikatzea pentsatzen ari da, hauteskunde-kartografia berri bat diseinatzeko, eta bere hauteskunde-mezua «norbanakoari ez, baizik eta norbanako dimentsiobakarraren nortasuna lausotzen ari den taldeari» zuzenduko dio.

Horrela, *Nafarroa gara-Euskara gara* lelopean, euskararen defentsaren bermatzaile papera hartuko du bere gain, UPNk eta PSNk PAI eredia sustatzeko eta oposizioen deialdietan euskara baztertze hartutako erabaki zalantzagabeak euskararen biziraupena arriskuan jarriko lukeelako.

Posible al da hiruko abertzale bat eratzea?

Foru hauteskundeak errepikatuz gero, IAK egindako proiektio baten arabera, eskuineko hauteskunde blokeak 20 eserleku lortuko litzuzke, 11 UPNk eta 9 PPK, eta 9 PSNk, 8 Geroa Baik, 9 EH Bilduk eta 4 Contigo-Zurekin koalizioak.

Ondorioz, egoera berri baten aurrean geundeke, non utopia egingarriak EH Bilduk, Geroa Baik eta Contigo-Zurekin alderdiek osatutako hiruko gobernu osatzea ahalbidetuko lukeen eta UPN-PP eskuineko gobernu eragozteko PSNren abstentzioa aurreikusten baitira.

Hirukoa osatuz gero, helburu bikoitza lortuko litzateke: UPNri eta PSNri «gaztatxoren teoria» berrargitaratzea galaraztea, euskara geldialdi eta ondorengo fosilizaziora eramango lukeen Nafarroako Gobernu osatuz. UPN eta PP oposizioaren banku gogorrari lotuta geratuko lirateke, eta

BOTA BERTSOA



OIER SAHARREA ETXEGARAI
ELIZONDOKO BERTSOLARIA
BAZTAN-BIDASOKO BERTSOPAPER
LEHIAKETAN B MAILAN 2. SARIA

Landa eremuen defentsan. Erdiz Bizirik!

Doinua: Orioko balea

Mendia lehertu eta dirua helburu ez dakitela Erdiz non dagoen seguru hortaz Iruñean ginen 2 mila inguru guk maite dugun hori zaindu behar dugu.

Baztandarrek elkartu eginez protesta gareak aterata kaleak beteta normala da buruan guk daukagun kezka gure animalien etxea da eta.

PSNk unean-unean babesa eman ahal izango lioke gobernu berriari lan- eta gizarte-arloetako edukia duten legeak onartzerakoan.



Ezkerretik hasita, Jon Telletxea mankomunitateko lehendakaria, Gustavo Salazar tailerreko parte hartzailea, Iratxe Etxenike koordinatzailea eta Karmele Martin parte hartzailea.

Lan mundurako sarbidea erraztu nahian

Formazioa eta lana uztartuz, langabeentzako tailerra paratu du martxan Malerrekako Mankomunitateak Nafarroako Enplegu Zerbitzuaren laguntzarekin. Apirilaz geroztik 17 eta 60 urte bitarteko hamabi lagun parte hartzen ari dira eta irailaren 29an bukatuko dute

G. PIKABEA

Langabezian daudenei lan mundurako sarbidea errazteko bidea ireki dute Malerrekako Zehazki, Nafarroako Enplegu Zerbitzuak bultzatutako proiektuarekin bat egin du Malerrekako Mankomunitateak, eta horri esker, apirilaz geroztik, langabezian zeuden hamabi herritar formazioa eta enplegua uztartzen dituen tailerrean parte hartzen ari dira. Nolabait errateko, ikasten eta lanean ari dira, soldataren truke. Ekimen berritzailea da eskualdean, Nafarroako bertze

eremu batzuetan, Iruñerrian eta Erriberan bereziki, ohikoa bada ere, halako zerbait egiten duten lehenbiziko aldia baita hemen inguruan. Proiektuaren inguruko xehetasun bila jo du TTIPI-TTAPAK Malerrekako Mankomunitatera eta Jon Telletxea Juanena Beintza-Labaiengo alkate eta Malerrekako Mankomunitateko lehendakariak eta mankomunitateak tailerra koordinatzeko kontratatatu duen Iratxe Etxenike Sarratea baztandarrak esplikatu dituzte proiektuaren nondik norakoak. Tailerrean parte hartzen ari

diren Gustavo Salazar Galarrégi bortziritarra eta Karmele Martin Camara saldiastarra ere mintzatu dira.

Abiapuntua

Nafar Lansare-Nafarroako Enplegu Zerbitzuko ardura-dunaren eta CNAI Nafarroako Ikaskuntzarako Guneko kideen bitartez izan zuten tailerra egiteko dirulaguntza deialdiaren berri eta pausoa ematera ausartu ziren. Mankomunitateko lehendakariaren arabera, «udal bakarrarentzat gehiegizkoa zela ikusita, Malerre-

kako herri guztien artean zerbait egiten ahal genuela adostu genuen». Dioenez, «presaka egin genuen, eta hasieran, gurea langabezia tasa ttikiena duen eremuetako bat izanda, taldea osatzeko zailtasunak izanen genituela pentsatu genuen. Baina ez zen horrela izan. Azkenerako taldea osatu genuen eta kontent gaude».

17 eta 60 urte arteko 12 lagun

Izen ematearen arrakastaren seinale dira datuak. Etxenikek adierazi duenez, «gehienez hamabi lagun onar zitezkeen tailerrean, eta hasmentatik 18 batek eman zuten izena. Jendeak izena eman eta eman segitu zuen eta azkenerako 23-24ra ailegatu ziren. Tailerra hasi ondotik ere interesatu da jendea». Azkenean hamabirekin egin zuten aitzinera: «Gehienak Malerrekakoak dira, baina badira Baztandik, Bertizaranatik, Bortzirietatik eta Ultzamatik datozenak ere», dio koordinatzaileak. →

«Tailer honek ate bat irekiko digula iruditzen zait»

GUSTAVO SALAZAR GALARREGI PARTE HARTZAILEA (BERA-LESAKA)

Batxilergoa bukatuta, 17 urterekin ikasketak utzi eta Larhunen hasi zen lanean Gustavo Salazar Galarregi. Sortzez beratarra da, baina Lesaka du bizileku eta Larhunen ibili ondotik, igogailuentzako gidak eta plastikozko botilak egiten zituzten lantegietan aritu zen urte luzez. Ezin izan zuen segitu. Azken enpresa horretan ari zela, itxi egin baitzuten, eta Ibardinera jo zuen; «Berriz frantsesa ikasi eta Ibardinen ostalaritzan eta dendan aritu nintzen». Baina bertzelako aukerak probatu nahi zituen: «Ibardinen ordu aunitz sartu behar izaten nituen, astean egun bat libre, eta gero azaroan edo abenduan 15-20 egun libre». Hortaz, «Berako Udalarentzat zerbitzu anitzetako peoi lanetan hasi nintzen». Hala aritu zen bi txandatan; «ezin izaten da urtero berri, eta urte bat lanean eta hurrengo langabezia, bi txandatan aritu nintzen». Helburu bera zuen aurten Lesakan: «Lesakako Udalarentzat lanean aritzeko deialdian apuntatu nintzen. Bi lagun ailegatu ginen azken fasera, baina bertzea hartu zuten».



Doneztebeko Enplegu Bulegoan izena emana zela izan zuen Malerrekako Mankomunitateak antolatutako formazio eta enplegu tailerraren berri: «Iratxek apuntatu nahi nuen galdetu zidan eta izena eman nuen». Dioenez, «40 urteak pasatzen dituzunean, ez da hain aisa harrapatzen lana. Gazteentzako esperientzia eskatzen dute, baina horretarako lehenbiziko lana behar dute, eta curriculumean 44 urte dituzula paratzen duzunean ere ez da erraza». Horregatik uste du tailer honek lan merkatuan ateak irekiko dizkiola: «Lorezaintzari eta pintatze lanei buruz ikasten ari gara, eta norbaitek pintore bat edo lorezaintzan aritzeko norbait behar badu, enplegu bulegora deituz gero, formazioa eta praktika egin duen talde bat dagoela ikusiko du. Uste dut ate bat irekiko digula». Gehiago ere bai: «Ni hagitz kontent nago, eta dudarik gabe, animatzeko erranen nieke langabezia daudenei».

Adin tarteari eta generoari dagokionez, berriz, «denetarik» dagoela dio Etxenik: «Badira 17 urtetik hasi eta 60 urtera bitartekoak». Onartu duenez, «hasmentan adin tarte zabal horrek beldurra» ematen zion: «Gazteak alde batera eta helduak bertze aldera geldituko ote ziren beldur nintzen, baina elkarren artean nahasi dira eta aberasgarria izaten ari da. Denak diferenteak dira, eta horrek berak aberasten du».

Generoari ere erreparatu diote: «Aniztasuna kontuan hartzen saiatu gara. Halako tailerretan normalean emakumeen parte hartzea arrastikia izaten da, baina gure

TAILERRA LORENZAINZA ETA PINTURA LANETAN ZENTRATU DUTE

«Zenbat eta gehiago ikasi, orduan eta autonomoagoak izanen gara»

KARMELE MARTIN CAMARA PARTE HARTZAILEA (SALDIAS)

«Berez Irungoa naiz, baina 17 urte daramatzat Saldiasen bizitzen. Nolabait esateko, etxea nire lagunak eta biok oinarri-oinarritik altxatu behar izan dugu». Halaxe aurkeztu digu Karmele Martin Camaralek bere burua. Aitortu duenez, «bizitzan nahiko esperientzia» izandakoa da: «Jakín gabe gauza aunitz egin ditut, eta Malerrekako Mankomunitateak antolatutako ikastaro honekin nire asmoa gauzak sendotzea zen, gauzak ongi egiten ikastea, ez egiten bakarrik». Kontatu duenez lehen ere ibilia da gisako lanetan; «Zubietan, Iturenen, Malerrekako Mankomunitatean... Eta gustatzen zait. Kanean dira, hainbat gauza egiten dira eta denetarik jakitea ongi heldu da. Zenbat eta gauza gehiago jakin, orduan eta autonomoagoak izaten ahal gara. Azken finean, bizitzarako ere balio du». Horregatik iruditzen zaio tailerra «edozeinentzat aberasgarria» dela.



Bereziki lorezaintzak erakarrira apuntatu omen zen tailerrean: «lorenzaintza eta kimaketa interesatzen zitzaizkidan. Denok dakigu zuhaitzak mozten, baina niretako inportantea zen kimaketa ongi egiten ikastea. Egia esan, hasiera hartan, pintura ez zitzaidan erakargarria egiten, baina hasi garetik, interesgarria eta baliagarria iruditu zait. Ez da paretara bat pintatzea bakarrik, bestelako gauza asko ikasten ari gara». Tailerraren edukiekin ez ezik, taldekideekin ere gustura dago saldiastarra: «Nahiko talde majoa osatu dugu. Hainbat adinetako jendea gara eta erritmo eta harreman polita dugu».

Lan merkatuaren harira ere mintzatu da eta «nahiko gaizki» ikusten omen du: «Herri ttiki hauetan, eta batez ere emakumea izanda, oso murriztuak dira egin ditzakegun lanak. Ni diru gutxirekin moldatzen naizenez, badut aukeratzeko askatasuna». Baina onartu du «geldirik egotea ez dela batere atsegina».

kasuan bortz emakumezko eta zazpi gizonezko dira eta harro egoteko modukoa da».

Baldintzak

Tailerra egiteko «100.000 euro baino gehiagoko» proiektua aurkeztu dute Nafarroako Enplegu Zerbitzuaren dirulaguntza deialdira. Etxenik esplikatzen duenez, ekainean zati bat sartzeko aukera eman digute, baina gainerakoan, Malerrekako Mankomunitatea diru

guztia aitzineratzen ari da. Proiektua akitzen denean ematen dute gainerakoa».

Zenbatekoa izanen den, ordea, ez dakite; «guttieneko helburu batzuk bete behar dira, eta horren arabera izanen da hartuko dugun dirulaguntza», aipatu du Telletxeak. «Taldea osatu behar duzu, baina talde horrek badi-tuzte betetzen edo alde egiten badute, laguntzak murriztuko

dizkigute». Bete beharreko baldintza horietako batzuk azaldu ditu koordinatzaileak: «izena emandakoen guttieneko parte hartzea bermatu behar da, lan munduan guttieneko sarbidea bermatu behar diegu eta horretarako enplegu bulegoarekin harremanetan gaude, tailerlean gizarteari ekarpen bat egin behar diote... Gure kasuan, udalei laguntza ematera bideratu dugu proiektua, baina bertze toki batean jantoki sozial bat eginen ari dira, bertze batean abandonatutako animalientzako aterpe bat...».

Lorazaintza eta pintura lanak

Sei hilabeteko tailerlean bi gai zehatzetan jarri dute arreta: lorazaintza eta pintura lanak. Telletxeak esplikatu duenez, «tailerra martxan paratu genuenean, udal ordezkariak elkartu ginen eta gehienbat lorezaintzako lanak, eta pintura lanak izaten ditugula ikusi genuen. Horregatik erabaki genuen tailerra bi gai horietara bideratzea».

Eta gai horien bueltan, ikasiz eta lana eginez ari dira. Apirillean hasi ziren eta sei hilabeteren buruan, irailaren 29an, borobilduko dute. 08:00etatik 15:00etara biltzen dira eta Etxenikek erran duenez, «apirilean lorezaintzari buruzko formazioarekin hasi ziren; maiatzean formazioa lanegunekin txandakatzen hasi ziren; ekainean pintura lanei buruzko formazioa hartzen hasi ziren, bainairakasleak praktikoa izatea nahi zuenez, praktikan ere aritu ziren. Uztailearen 14tik aitzinera, lanean hasiko dira, eta taldeka banatuta, astelehenetik ortziralerera herriz herri ibiliko dira, irail akabaila bitarte». Telletxeak gaineratu duenez, «herriko langileek edo udal ordezkariak bideratuko diete zer egin».

Soldatarekin

Parte hartzaileak soldataren truke ari dira, mankomunitateak kontratatuta. Eta hori da,



Ekainean Donamariako Txarutako txabolak margotzen aritu ziren parte hartzaileak. UTZITAKO ARGAZKIA



Doneztebeko Herriko Etxearen atarian lorategia egin dute.

lehendakariaren hitzetan, «tailerra erakargarri egiten duen beste puntua»: «Formazioa eta praktikak egiten ari diren bitartean, lanean ariko balira bezala nomina bat dute, nahiz eta ttikia izan. Hori gabe, zaila izanen litzateke jendea animatzea». Gehitu duenez, «beharbada formazioa soldata ttiki batekin egitea da bidea; deus kobratu gabe epe luzeko formazioa egitea ez baita egingarria». Eta gisa berean, «hutsik dauden lan batzuk betetze-

ko» balio izaten ahal duela iruditzenaio Beintza-Labaien-goari: «Baso lanak, zurgin lanak... Badira hainbat arrazoiengatik betetzen ez diren lanpostuak, besteak beste, urteetan ez direlako baloratu. Lan horiek hor segitzen dute eta tailer hauek jendea prestatzeko balio izaten ahal dute».

Halako tailerrak beharrezkoak ikusten dituzte bai Telletxeak, bai Etxenikek, eta langabeei atea irekiko dizkiela iruditzen zaie. Eta hasi-

takoak ereiten segi dezan, Malerrekatik kanpo zabaldu dute deia; alde batetik, langabezian daudenei; «Halako proiektuen berri izanez gero, zalantzarik gabe animatu daitezela. Parte hartzeak onura haundiak ekarriko dizkie», nabarmendu du koordinatzaileak. Eta bertzetik, udalei begira jarri da: «Malerrekako Mankomunitateak apustu garrantzitsua egin du, ezagutzen ez duen bidea ireki du. Iruñerrian eta Iruñetik beheitik badute esperientzia halako proiektuekin, baina Malerrek oinarriarik gabe atera dute aitzinera. Horregatik txalotzeko iruditzen zait egin duen apustua. Inguruko udalei animatzeko deia egingen nieke».

Telletxeak oroitarazi du «helburu noblea» duen egitasmoa dela, «langabezian dauden herritarrei eta denbora berean eskualdeari laguntzen diolako». Aitortu du «azken emaitzei» begira daudela, «baina ongi ateratzen bada, eta berriz ere holako deialdiren bat baldin bada eta jendea prest baldin bada, zergatik ez errepikatu?». Etxenikek garbi du; gizarte mailan egiten duen ekarpena ikusita, «pena litzateke hurrengo urteetan segidarik ez izatea».

«HELBURU NOBLEA DUEN EGITASMOA DA»

JON TELLETXE, LEHENDAKARIA

«BERTZE UDALEI ANIMATZEKO DEIA EGINEN NIEKE»

IRATXE ETXENIKE, KOORDINATZAILEA

«Transplantearengatik ez balitz aspalditik ez nintzen hemen izanen»

JOSE MARI GARRIDO MARTINEZ GIBELEKO TRANSPLANTATUA ETA ATEHNA ELKARTEKO KIDEA

Duela hiru bat hamarkada diagnostikatu zioten B hepatitis Garridori. «Arrunt larri» egon zela dio, baina gibelesko transplantea egin ziotenetik ez du arazorik izan. Organo emaile egiteko deia egin du

G. PIKABEA ELGORRIAGA

Heldu den urrian 87 urte bete-ko ditu Jose Mari Garrido Martinezek (Elbete, 1936). Baina duela hiru hamarkada baino gehiago gibelesko arazoekin hasi zenean, inork guttik espero zuen halakorik. Hala dio berak. B hepatitis diagnostikatu eta beltz paratu zioten etorkizuna. Baina gaintu du eta aitzinera egin du. Bi urtez egon zen gibelesko transplantea egiteko itxaron zerrendan eta duela 25 urte transplantea egin zioten. Geroztik «zorrotz eta zehatz» egin omen die medikuaren erranei kasu, eta ez du gibelesko arazorik izan. 86 urterekin, bakarrik bizi da Elgorriagako Kappallenea etxean. Sortzez elbetearra izanagatik, azken 65 urteotan horixe du bizileku eta ederki baliatzen da bere buruaz. Baratzean ariz, etxeko balkoietan, leihoetan edo etxeko atarian dituen lore ederrak zainduz, tarteka paseotxoak emanez... Halaxepasatzen du egunerokoa. **Noiz hasi zinen gibelesko arazoekin?** Orain dela 30 urte baino gehiago. Guttienez, 35 urte pasatu izanen dira gibelesko arazoekin hasi nintzenetik. Medikua azterketa baten bidez jakin nuen gibelesko arazoak nituela, eta mediku partikular batengana joaten hasi nintzen. Hepatitis nuela erran zidan eta tratamendua paratu zidan. Akitutakoan, arrunt sendatua nengoela erran zidan medikuak, baina ez zen hala izan. Denboraldi batera, Narbarten, arrebaren etxean,

nengoela, arrunt-arrunt gaizki sentitzen hasi nintzen. Koinatua zenak hildako baten aurpegia nuela erran zidan. Gaizki jarri nintzen, eta medikuari deitu zioten. Segidan Iruñera bidali ninduten, orduko San Frantzisko Klinikara. Han nintzela, ahotik odola botatzen hasi nintzen, ikaragarria izan zen eta Nafarroako Unibertsitatea klinikara eraman ninduten. Arrats hartan bertan medikuak arrebari handik ez nintzela aterako erran zion, arrunt-arrunt larri nengoela. Baina atera nintzen. Eman zidaten tratamenduarekin aitzinera egin nuen. Hilabete eta gehiagoz egon nintzen ospitaleratu,

tratamendu gogorra eta zorrotza paratu zidaten eta nahiko ongi errekuperatu nintzen.

Zein izan zen diagnostikoa?

Gibelesko arazoekin hasitakoan ibili nintzen mediku partikularrak, hepatitis nuela jakinarazi zidan, baina zein motatakoa zen zehaztu gabe. Nafarroako Unibertsitatea klinikara baiez-tatu zidaten B hepatitis nuela; C hepatitis okerragoa da. Urte batzuez tratamendua paratu zidaten, gibelesko transplantea egiteko prest nengoela erran zidaten arte. Hura zen soluziorik hoberena. Transplantea egiteko prestatu ninduten, baina horretan ari zirela, eskuineko belarrian infekzioa nuela



Lore ederrak ditu etxean Garridok. Ordu aunitz pasatzen ditu horiek zaintzen.

«ZENBAT ETA ORGANO EMAILE GEHIAGO, ORDUAN ETA HOBE»

«TRANSPLANTATUA BAZARA NAHITAEZ OSASUNTSU BIZI BEHAR DUZU»

konturatu ziren eta horrekin ezin zidaten transplantea egin. Infekzio hori sendatzeko bertze ebakuntza bat egin zidaten.

Hepatitis gaixotasun isila dela erraten da... Zuk ere hala deskribatuko zenuke?

Bai, bai, arrunt isila. Nik ere ez nekien deus, analisi batzuk egin eta hepatitis nuela erran zidaten arte. Nekea sumatzen nuen, baina sukarrak edo bertze sintomarik ez nuen.

Zenbat denboraz egon zinen itxaron zerrendan?

Bi urte pasatu nituen. Tarte horretan belarriko ebakuntza egin behar izan zidaten. Bi urteren ondotik, goizalde batean niretako gibela bazutela erranez deitu zidatela oroitzen naiz. Presaka, Iruñera joan ginen.

Egunaz oroitzen zara?

Ederki oroitzen naiz. Klinikara nengoela medikuarekin batek hegazkinaren soinua aditu ote nuen galdetu zidan, eta nik baietz erantzun nion, aditu nuela. Hegazkin hura nire gibelaren bila Asturiasera zihola erran zidan. Transplantea egin eta zortzi egunez bakarrik egon nintzen ospitaleratu. Handik aitzinerakoa dena zozagarria izan da.

Ebakuntza ongi atera zen?

Bai. Badira transplantearen ondotik gaizki pasatzen duten pertsonak, gibelesko transplantea hagitz serioa baita. Nire kasuan, ebakuntza egin eta biharamunean gaizki pasatu nuen, bainasegidan hasi nintzen ongi sentitzen.

Gaur egun nolakoa da zure egunerokoa?

Hiru hilabetetik behin analisiak egin behar izaten ditut eta goizean eta arratsean pastilla bana hartu behar izaten dut, baina bertzela, transplantearengatik ez dut bertze makurrik izan. Eta geroztik, urteak pasatu dira. Gibelesko arazorik ez, baina bertzelako arazoak izan ditut: prostatak tratamenduarekin ari naiz, barize esofagikoengatik denbora luzez tratatu ninduten, duela hiru urte taupada markagailua paratu zidaten bihotzean arazo bat nuela de-



Garrido Elgorriagako Kapallenea etxeko atean. Sortzez elbetearra da, baina 65 urte daramatza Elgorriagan bizitzen. TTIPI-TTAPA

tektatu zidatenean, izarteko herniatik hamalau aldiz ebakuntza egin didate, eta azken ebakuntzaren ondotik ultzerak ere izan ditut. Ospitalean hagitz ezaguna naiz, baina adinean aitzinera noa eta horren zama sumatzen da. Gainerakoan, bizitza normala daramat. Bakarrik bizi naiz eta oraingoz bakarrik moldatzen naiz, inoren laguntzarik gabe. Baratze tiki bat dut eta hor aritzen naiz, loreak zaintzen ere aritzen naiz, elizaz arduratzen naiz...

Gaur egun hartzen duzun tratamendua garestia da?

Nik gutti pagatzen dut, gehiena gizarte segurantzak ordaintzen baitit. Eta Nafarroako Unibertsitatea klinikara ere gizarte segurantzaren bidez joaten naiz.

Ateha Gibeledu Gaixo eta Transplantatu Nafarroako elkarteko bazkidea zara. Noiztik?

Nahiko hasieratik, lehenbizikoetako bat izan nintzen.

Atehnaren helburuetako bat bizi kalitatea hobetzea da. Zertan lagundu dizu?

Urte aunitz daramatzat bazkide eta polita iruditzen zait. Hasieratik inizatiba egokia iruditu zitzaidan, eta posible izan dudanean antolatutuen hitzorduetan parte hartu dut. Aldi berean, duela urte aunitz transplantatu zuten pertsona batek bazkide izaten segitzea elkarteari berme bat dela uste dut. Gaur egun, gustura parte hartuko nuke elkartek antolatzen dituen hitzorduetan, baina Iruñean izaten dira eta hemendik harat joateko dugun autobus zerbitzuarekin ez du kointziditzen. Horregatik ezin izaten dut joan.

Herritarrek organo emaile izatearen garrantziak ohartzeko sentsibilizatzeko kanpainak ere egiten ditu elkartek...

Bai, eta hasiera hartan ni ere ibiltzen nintzen, baina orain, joateko ezintasunagatik ez dut parte hartzen. Gure inguruan ere egin izan dituzte, baina aspaldian ez. Horrelako ekimenak arrunt inportanteak dira jendea kontzientziatzeko.

Jendeak badaki zeinen inportantea den organo emaile izatea?

Gaur egun lehen baino gehiago. Transplantearengatik izan ez balitz, ni aspalditik ez nintzen hemen izanen. Transplantei esker bizitzak salbatzen direla ikusita, organo emaile izateko deia egingen nieke herritarrei.

Organo emaileak falta dira?

Bai, itxaron zerrendak luzeak dira. Zenbat eta organo emaile gehiago izan, orduan eta hobea. Arrakasta haundia izanen litzateke, jende aunitz berriz bizitzeko aukera ematen baitiozu.

Bizirik dagoen gibel emailearen aukera ere hor dago...

Bai, eta urrutira joan gabe inguruan ere badira senidearen gibeledu transplantatua egina dutenak. Badira gibeledu transplantatua egin eta hil direnak ere eta horrekin zerikusi zuzena dute gure bizi ohiturek. Gibeledu arazo bat baldin baduzu, tabakoaz, alkoholaz eta bestaz atzendu behar duzu, hori garbi eduki. Bizitza arrunt-arrunt osasuntsua egin behar duzu.

Gibeledu transplantatua egin eta ostatu segitzen baduzu, akabo, alferrik. Niri aski garbi utzi zidaten zein izaten ahal diren ondorioak, eta horregatik erabakien kasu egitea. Egia erran, ez naiz inoiz zurruteroa eta erretzailea izan edo bertzelako drogarik ere ez dut kontsumitu. Segur aski horrek ere lagundu izanen dit, gorputza ez baitut hain hondatua eta hori abantaila haundia da. Jendea harritu egiten da gibeledu transplantatua egina izanda, zeinen ongi nagoen ikusita. Eta egia da, arrunt ongi nago, baina oinarri-oinarrian osasuntsu bizi naizela da. Hortaz aparte, hemen, Elgorriagan, zoragarri bizi naiz, paseatzera ateratzen naiz, ez dut tontakeriarik egiten, eta medikuak erraten didan guztiari kasu egiten diot. Horregatik aholkatzen diot jendeari medikuaren erranari kasu egiteko, eta erretzen ikusten dudana edozeini erraten diot ez dela ona. Oinarrizkoa da norbere burua zaintzea.

Fred Ramosena izanen da bestetako egitarauko azala

Lesakarrarena izan da herri bozketan boto gehien jaso dituen. Aurre ere ez da bestetan kukañarik izanen

A. LARRETKEA

Besta Batzordeak bestetako egitaraurako azal lehiaketa antolatu du aurten ere, eta lehenengoz Fred Ramos Lasaga lesakarra izan da irabazlea; 400 euroko diru saria jasoko du. Dantzari baten irudiarekin osatu du azala, eta herri bozketan bera izan da irabazlea. Gainera, aipatzekoa da Lesakako bestetako kartel lehiaketa ere egile berak irabazi duela.

Kukañarik ez

Aurten iaz bezala, kukañarik izanen ez dela jakinarazi du udalak eta aldaketariek bada, heldu den urteetan ere ez da izanen. Udalak azaldu duenez, duela urtebete baino lehenago eskaera bat helarazi zion Kantauriko Ur Konfederazioari 20 urtez izandako baimena berritzeko, baina baimena emateko erantzukizun aldetik be-teezinak diren baldintzak eskatzen ditu.

Hainbat arrazoiengatik ez du baimen hori eman. Haste-ko, Zia errekan presa bat paratzeak uholdeak izateko arris-



Bestetako egitarauko azala.

kua areagotuko luke, urak ez du osasun bermerik bainua ziurtatzeko eta presa kontzen duen egiturak ez du erabiltzailentzako beharrezko segurtasuna bermatzen eta larrialdi batean askatzeko sistema ere nahiko eskasa da. «Bertze sistema berri bat paratuta ere aitzineko arazoak izaten segituko genuke. Hori horrela, penarekin, baina denon segurtasun eta osasunagatik erabaki dugu ez dugula paratuko».

Ekitaldiz betea heldu da uztaileko hirugarren asteburua

A. LARRETKEA

Uda betean ere kultur eta kirol ekitaldiek ez dute etenik gurean. Besta aitzinetik urtero izaten den herri kirol jaialdia astebete aurreratu dute aurten, eta uztailaren 22an izanen da Eztegar pilotalekuan. Aurten, iaz bezala, Nafarroako herriz herri txapelketako jardunaldia egingen dute Beran. Arantza, Arraioz, Igantzi eta Sunbilla ariko dira nor baino nor. 19:00etan izanen da saioa Eztegar frontoian eta sarrera debalde izanen da. Bi proba egingen dituzte; lehenengo proba konbinatuan kokorrek biltzen, zakuarekin lasterka, aizkoran, lasterka eta arpanen ari beharko dira hiru txandatan, eta bigarrenean ingudea altxatzen eta txinga eramaten. Berak talderik aterako ez duen arren, iaz bezala Berako kiro-



Herriz herriko finala iaz. UTZITAKOIA

lariak lehiari ikusteko aukera izanen da frontoian. Izan ere, herriko kirolari bat baino gehiago ariko dira herriartekoan eskualdeko taldeakordezkatuz.

Biharamunean, aldiz, kulturaren txanda izanen da. Josetxo Goia-Aribek *Sarasteando* emanaldia emanen du Toki Onako patioan oholztan 19:00etan. Kultur programaren barrenean antolatu du emanaldia Nafarroako Gobernuak eta doakoa izanen da.

Bisita gidatuak egingen dituzte uztailean eta abuztuan

A. LARRETKEA

Uztaileko eta abuztuko astear-tetan, ortzegunetan eta larunbatetan bisita gidatuak egingen dituzte. Ortzegunetan 12:00etan izanen dira bisitak, eta bertze bi egunetan 19:00etan. Aitzinetik erreserba egin beharko da turismo bulegora deituta

(610 21 40 66) edo turismoa@bera.eus helbidera idatzita eta borondate truke izanen dira. Gainera, udan, herriko etxea barrenetik irekiko dute herri-tarrentzat zein turistentzat, eta Asier Gogortzaren *Berako bordak* erakusketa ikusteko aukera izanen da.

JURONE-GOXOTEGIA
Etxean egindako produktuak
948 630 786 • Aitzate, 21 • BERA

TIPI TAPA Bidaiak
IBIALDI KULTURAIK antolatzen dituzte.
Nabarrealde Fundazioa kide izanik, gure historia zabalazten laguntzen dugu.
"Biheldu gure espazioa!"
OE: 2556 T: +34 632 512 791
@tipitapatravel

LABE ZAR
Astleheneretik ortziratera: 07:15etik aitzinera
Larunbata eta igandaz: 08:00etatik aitzinera
948 631 076 • BERA

USOA
Nekazari kooperatiba
T. 948 635 214 M. 605 631 244
ETXALAR

Zalain
JATETXEA RESTAURANTE
Eramateko janaria astleheneretik ortziratera
Zalain Auzoa BERA t. 948 631 106 w. www.zalain.info

Udal ordezkarien karguen banaketa egin dute

Aitor Elexpuru alkateak jardunaldi osoko dedikazioa izanen du. Lanerako hamar batzorde sortu dituzte

A. LARRETxea

Ekainaren 17an udalbatza osatu ondotik, lan batzordeen banaketa egin dute eta lanean hasia da udala. Osoko bilkurak hilabeteko 3. asteazkenetan egitea adostu dute, 19:30ean pleno aretoan.

Aitor Elexpuru izanen da alkate eta hiru alkateorde izanen dira: Ines Matxiarena, Patxi Castillo eta Esteban Agirre, ordena horretan. Alkateak jardunaldi osoko dedikazioa izanen du udaleko lanerako. Horrekin batera, heldu den lau urtetan lanean aritzeko

hamar batzorde osatu dituzte.

Ogasuna eta Kontuen batzorde berezian Aitor Elexpuru izanen da buru, eta Josean Oiarzabal eta Patxi Castillo kideak; Turismoa eta Merkataritzan Adela Arlegi buru, eta Elexpuru eta Andoni Andueza kideak; Urak batzordean Patxi Larretxea buru eta Elexpuru, Andueza eta Angel Pombar kideak; Hirigintzan Esteban Agirre buru eta Elexpuru, Oiarzabal eta Andueza kideak; Kiroletan Pombar buru eta Elexpuru eta Arlegi kideak;

Kulturari Lupe Mendigutxia buru eta Estitxu Pinatxo, Castillo eta Andueza kideak; Mendiak eta Ingurumena batzordean Elexpuru buru eta Larretxea eta Mendigutxia kideak; Langilegoa batzordean Elexpuru batzordeburu eta Pombar, Elexpuru, Agirre eta Oiarzabal kideak; Energia Komunitateak batzordean Agirre buru, Elexpuru, Matxiarena, Castillo eta Larretxea kideak eta azkenik Mugikortasuna batzordean Larretxea batzordeburu eta Elexpuru eta Agirre batzorde kideak.

Ordezkariek bertze organoetan

Horrez gain, bertzelako organoetan izanen diren udal ordezkariak ere zehaztu dituzte. Hiri Hondakin Solidoen Mankomunitatean Castillo eta Elexpuru izanen dira ordezkariak, Euskara Mankomunitatean Castillo eta Larretxea, Oinarrizko Gizarte Zerbitzuen

Mankomunitatean Elexpuru eta Matxiarena eta Berdintasun Zerbitzuan Matxiarena eta Arlegi.

Horrekin batera, UEMAn Elexpuru, Castillo eta Matxiarena izanen dira titularrak eta ordezkariak Agirre, Mendigutxia eta Larretxea. Cederna Garelur eta Baztan-Bidasoa turismoa Arlegi izanen da titularra eta Elexpuru ordezkari ariko dira, antzerki sarean Mendigutxia eta Pinatxo ariko dira eta suhiltzaile boluntarioen eta Eskualdeko Osasun Kontseiluan Elexpuru.

Horrekin batera, herriko ikastetxeetako eta musika eskolako ordezkariak ere zehaztu dituzte. Musika Eskolan Mendigutxia, Elexpuru, Arlegi eta Agirre ariko dira, Ricardo Baroja eskolan ordezkaria izanen da Matxiarena, Muxukoa eta Labiaga ikastolako Mendigutxia, Toki Onakoa Agirre eta Jesusen Bihotzakoa Andueza.

Legia karrikako Zubimuxu etxea erori da

Uztailaren 2an erori zen Legia karrikako 46. zenbakian dagoen Zubimuxu etxea. Egoera aztertu ondotik, hilaren 4an hasi zituzten etxea eraisteko lanak. Eraikina erabat eraitsi bitartean debekatua dago ondotik pasatzea «segurtasuna bermatzeko».



Zubimuxu etxea erori berritan.

Zirku garaikideko ikuskizuna eta tailerrak izanen dira ortziralean

A. LARRETxea

EASAC-k, Urruñako Arte eta Zirku Eszenaren Akrobazia eskolak, Muga gabe zirku festibala antolatu du Urruñako, Biriaturko eta Berako Herriko etxeen laguntzarekin. Beran festibalaren barrenean doako bi tailer izanen dira

uztailaren 14an, denentzako den clown tailerra eta 6 urtetik aitzinerakoentzako akrobazia tailerra. Tailerren ondotik, Hands Some Feet zirku garaikide konpainiak akrobazia ikuskizuna eskainiko du Berako Herriko etxeen plazan 20:30ean.

Denda, 948 631 217
T. 630 136 863
Julio Caro Baroja, 6 - BERA
jaurenabera@gmail.com

Elektrizitate lanak orokorrean
Erreformak, etxe berriak
Lantegietako mantentze-lanak

Eguzki-panelen instalazioa
eta dirulaguntzen gestioa

Alberto RETEGI

abokatua

abokatua

© 948 630 763 · Alizate, 17 · BERA

Egin erreseta

Ansonera

ostatu jatetxea

TXUPINAZO EGUNEAN
10:00etatik aitzinera
HAMARRETAKOAK

Bestetan egunero:
Pintxoak
Plater konbinatuak
Bokatak
Menua
Eta terraza giro ederra!!

T. 948 63 01 07 · Foruen plaza, 1 · BERA

Bereautik herrirako bidegorria osatzeaz bukatu dute

755.000 euroko inbertsioa egin da, eta horietatik 400.000 euro Nafarroako Gobernuaren kontura izan dira

AITOR AROTZENA

Heria Bidasoko Bide Berdea-ekin lotzen duen 813 metroko bidegorri zati bat estreinatu berri da. Jarduerak 754.827,10 euroko inbertsioa izan du. Nafarroako Gobernuko Lurralde Kohesiorako Departamentuak 400.000 euroko ekarpena egin du eta gainerakoa udalak ordaindu du.

Bidasoko Bide Berdea, Bereautik herriarekin lotzeko lanen bigarren fasea izan da hau. Lehenbizikoan, Bereautik Tomaseneko bordako biribilgunera bitarteko zatia egin zen. Handik herrigunera errepide bazterretik egin behar zuten bidea txirindulariek eta oinezkoek. Bigarren fase honetan, herriguneraino bide gorria erabiliz egin daiteke bidea.

Lanekiraun duten bitartean, Tomaseneko bordako biribilgunetik herrigunerako errepide zatia itxirik egon da eta ibilgailuek Arcelor Mittal fabrikarako errepidea hartu behar zuten. Orain, ibilgailuentzako ireki da NA-4000 errepidea. Txirindulariek eta



Tunela Beheko-Errota ondoan.

oinezkoek, berriz, herritik Be-reaura bi metro eta erdi zabaleko bidea dute, errepide ondoan, babes-hesi batekin berezia. Beheko-Errota ondoan, errepidearen azpiko tuneletik pasatzen da bide gorria eta hortik Landazelaita pasealekura doa, 200 bat metroan bidea ibilgailuekin partekatuz. Seinaleak paratuko dituzte. Landazelaitan barna ailegatzen da bide gorria osasun zentroraino.



UTZITAKOA

Kazetariak piztu dute plazako sua

Euskara Batzordeak antolatutako udako solstizioeko besta egin zuten ekainaren 23an. Beti bezala, bertsoak, dantza, sua, musika eta jatekoak eta edatekoak izan zituzten. Euskarazko komunikabideetako herriko kazetariak omendu zituzten eta beraiek izan ziren sua pizteko ardura izan zutenak.



UTZITAKOA

Sokatira taldekoak Indurainekin

Miguel Indurain Fundazioak 336.514 euro banatu ditu 156 kirolariren artean. Ekainaren 22an Iruñeko Navarra Arenan egin zen ekitaldian, Beti Gazteko sokatira taldeko tiralariak hartu zuten beka eta horietako batzuk Miguel Indurain berarekin argazkia ateratzeko aukera izan zuten.

JOSENEA ZONE AUTO

GARBIKETA ZENTRO BERRIA AUTOZERBITZUA DANTXARINEAN

Lavandería Autoservicio

MERKATUKO MAKINARIK BERRIENAK

- * 2 garbigailu 8 kilona arte
- * 2 garbigailu 14 kilona arte
- * 4 lehorgailu 14 kilona arte

Ordainketa: **Speed @ee** app-aren bidez egin daitezke

+34 948 599 236 • www.josenea.es • centrauto@josenea.es

Egunero 7/7 irekita, 08.00 - 20.00

Josenea Zone Auto (Dantxarineko mugan) Ctra. N-121-B Km 72,5 Dantxarinea Nafarroa.

82.187 euroko laguntza Eskolttiki egokitze

Nafarroako Gobernuak 6,2 milioi euroko dirulaguntzak banatu ditu 63 herritan, gizarte, kirol, kultura eta erabilera anitzeko azpiegiturretan obrak egiteko. Eskolttiki udal eraikinean egokitze lanak egiteko 82.187,93 euroko dirulaguntza hartuko du udalak.

Aurten ere igeriketa ikastaroa eskainiko dute igerilekuan

Hamar orduko ikastaroetan asteka apuntatzeko aukera ere bada eta 50 euroko prezioa dute

IRUNE ELIZAGOIEN

Igerilekuak zabaldu diren honetan, igeriketa ikastaroa ere martxan da. Uztaileko astelehen, asteazken eta ortziraletan izaten ari dira klaseak. Hamar ordu edukiko ditu ikastaroak taldeko, eta 50 euroko prezioa. Astea apuntatzeko aukera ere izanen da. Informazio gehiagorako 644 16 12 65.



Igoa eta Ansalas. OIHAN IPARRAGIRRE

Bortzirietako binakako pilota txapelketa

Ekainaren 24an jokatu zituzten Bortzirietako binakako txapelketako finalak Berako Eztegarra pilotalekuan eta bi finalista izan ziren Etxalartik. Umeak mailan, Beñat Ansalasek Berako Amets Irurieta zuen bikote eta Igantziko Joana Irazoki eta Berako Kemen Aranibarren aurka galdu dute

18-16ko emaitzarekin. Kimuak mailan berriz, Erik Igoak Igantziko Aratz Laka zuen bikote eta Berako Jon Lazkanotegi eta Baionako Enaitz Zestauen kontra galdu dute, 18-16ko markagailuarekin.

Etxalartik zazpi pilotarik parte hartu dute txapelketan: Xiker Olagarai, Joel Igoa, Erik Igoa, Joanes Pinillos, Romeo De Caceres, Beñat Ansalas eta Gari Zelaieta. Denek lan bikaina egin dute.



UTZITAKOA

Sorgin dantza San Juan suan

Jende andana elkartuta, giro ederrean ospatu zen San Juan Sua. Berendu afari autogestionatuarekin hasi zen ekitaldia. Ondotik, joareak joz herriari itzulua eman zioten eta iluntzearekin batera, txistularien laguntzarekin suak piztu ziren. Herriko emakume talde batek sorgin dantza egin zuen.

Imanol Vicente lehiaketaz lehiaketa bikain dabil

Ekainean hiru lasterketetan parte hartu du Imanol Vicentek: Miranda de Ebron, Talavera de la Reinan eta Esplusen. Mirandan lehenbiziko bukatu zuen eta Esplusen, berriz, hirugarren. Nafarroko txapelketan, proba baten faltan, Car cross kategorian lider da.



Vicente podiumean. ALAITZ DANBORIENA

Aspaldiko urteetan ikusi gabeko harri erauntsia

Ekainak 20an, 15:00ak aldean izugarrizko harri erauntsia bota zuen Etxalarren. Kalte nabarmenak eragin zituen etxeetan, ibilgailuetan, bideetan... Zorionez ez zen kalte personalik izan. Orain kalteak zenbatu eta baloratzen ari dira herritarrek.



Harria bota zuen. ANA INDABURU

Giltzak eta aginteak
AUTOA - MOTOA - KAMIOIA
 Giltzak galdu badituzu, guk lagunduko dizugu

IBARGOYEN
 SUMINISTROS CARROCEROS

www.ibargoyen.net **943 616 587**
 Molino Errepidea, 21 - 20305 - IRUN

Haize errotekin kezkaturik Igantzi Bizirik sortu dute

Plataformak lehenbiziko bilera ereiaroaren 22an izan zuen Sunbillan, inguruko herrietako bertze taldeekin batera

ANA ETA ITZIAR

Gure inguruko herrietan geratu den bezala, Igantzin ere haize errotak gure mendietan barrena jartzeko dagoen asmoaren berriak ezin egona eta kezka sortu du herrian. Sustrai Erakuntzak eman du asmo honen berri eta sortutako kezkak inguruko herriekin harremanetan jartzera eraman du herritar talde haundi bat. Sunbillan egin zen lehenbiziko bilera ereiaroaren 22an eta ordutik hona lanean dihardute jo eta ke. Igantzi Bizirik izeneko plataforma sortu dute.

Jubilatuak Azpeitira doaz uztailearen 25ean

Jubilatuak uztailearen 25ean Azpeitikoazienda sagardo azokara joanen dira. 08:30ean abiatu eta azokan goiza pasatu eta gero, Larrañaga jatetxean bazkalduko dute. Loiolako San Ignazio bisitatu eta Baratzondon berendu-afaria eginez akautuko dute eguna.

Uztailearen 4an bilera egitekoa zuten eta Sustrai Erakuntzarekin batera, ingurumeneari hainbertzeko eragina duten makroproiektu hauekin duten esperientziak solastatzeko.

Harri erauntsia

Ereiaroaren 20an, arratsaldeko hiruak aldera, azken urteetako harri erauntsi handienetako bat egin zuen. Kalteak ugariak izan ziren, baratzeak, kotxeak... Harrien tamaina handia izan zen, eroritako batzuk ping-pongeko pilotaren tamaina ere izan baitzuten.

Ehizturien Elkarteko junta berri dute uztailearen 1ean

Uztailearen 1eko batzarrean kontuak, altak, bajak... aipatu zituzten. Junta ere berri dute eta iaz sartutako Josetxo Etxarte, Jose Ramon Iguzkiagirre, Mikel Altxu eta Jaime Seinekin batera Unai Huitzi, Karlos Sein, Eneko Telletxea eta Jose Mari Yanci ariko dira.



ANA ETA ITZIAR

Dantzari ttikiak San Juan Xarren

San Juan bezperan plazan ez, baina auzoz auzo piztu zituzten suak. Biharamunean, San Juan Xarren meza izan zen, eta ondotik herriko gaztetxoak beraien dantza ekitaldia eskaini zuten. Kantina ere paratuta zegoen, tragoxka hartzeko edo ohiko erroskilak erosteko.



ANA ETA ITZIAR

Jubilatuen hitzaldia eta bazkaria

Herriko jubilatuak badute azken boladan mugimenta ederra: txangoa, hitzaldiak... (argazkian). San Juan egunean, Baratzondo elkarteko bazkarian 39 lagun elkartu ziren, musika lagun, eta bertze hamarrek elkartera joatea ezinezkoa zutenez, etxean hartu zuten bazkaria.



ZUMARBEL
creaciones metálicas
Igantzi (Navarra)
948 63 74 11



Lehen A.T.M. S.A
Berrizaun 25,
31790 IGANTZI
T. 948 63 74 11
E. zumarbel@hotmail.com
www.zumarbel.es



LIDERA
HORTZ KLINIKA - ESTUDIO DENTAL
Iturrumubiko plaza, 9-10 • 31770 LESAKA (Na)
Tel. 722 662 478 | lidera@hortzklínika.es
@liderahortzklínika





MARI TX

- INGENIARITZA ELEKTRIKOA
- PROIEKTU ELEKTRIKOAK
- BOLETIN INDUSTRIA
- INSTALAZIO ELEKTRIKOAK

T. (0034) 636 617 450

Legia, 23 - BERA

26. Arantza Rock abuztuaren 19an izanen da

Ilunabarrean Matraka eta arratsean Deserrite, Burutik eta Kamuts taldeen kontzertuak izanen dira

NEREA ALZURI

Hilabete bat baino ez da gelditzen da herriko bestetarako eta gaugerero horiei begira izanen da aranztar bat baino gehiago. Aurten abuztuaren 14tik 17ra izanen dira, eta 18a deskantsu hartuta, Gazte Asanbladak antolatutako Arantza Rockek hartuko du lekukoa: Abuztuaren 19an izanen da eta 26. edizioa izanen da. Eguna prestatzeko lanetan ari dira eta dagoeneko kartelaren berri ere eman dute gazteek.

Ilunabarrean Matraka elektrotzarangak karrika bazterrak



ARTXIBOKO ARGAZKIA

girotuko ditu. Eta 23:30ean kontzertuak hasiko dira: Deserrite, Burutik eta Kamuts taldeek zuzeneko emanaldiak egingen dituzte. Sarrera bortz eurotan izanen da.

Harri erauntsiak kalteak eragin ditu

Kotxeen kristalak arrailduak, baratzeak eta lorategiak xehatuak, hoditeriak zuluatuak, bideak hostoz eta adarrez beteak... Herriarrek ez dute aise atzunduko ekainaren 20ko arratsaldeko harri erauntsia.



JAIONE BERGARA



BORTZIRIETAKO GIZARTE ZERBITZUEN MANKOMUNITATEA

Bero boladak hizpide jubilotekan

Jubilatuak eta adinekoak aktibo mantentzeko guneak dira jubilotekak eta gorputza eta garuna lantzen dituzte hainbat jarduerarekin. Herriko jubilotekan astelehenero 16:00etatik 18:00etara biltzen dira eta berriki Gurutze Gorriko mediku boluntario batekin bero boladei buruzko hitzaldia izan dute.



G. PIKABEA

Oihan eta Ainere azal lehiaketan sarituak

Aurten ere, bestetako programaren azal eta kontrazal lehiaketa egin du udalak eskolako ikasleen artean. Gaztetxoek 30 marrazki aurkeztu dituzte eta zaharrenek 25. Horien artean, epaimahaiak Oihan Leiza Iturriaren eta Ainere Iguzkiagirre Irigoienek marrazkiak aukeratu ditu. Zorionak bikote!

F. LANCHAS
Akutxidorea eta bernizatzailea
Parket eta parket flotatzailea jartzea
Mota guztietako zolak
Tel: 948 630 735 M: 620 172 679

RESERVA
TXIMISTINDAR
INSTALAZIO ELEKTRIKOAK

ENERGIA BERRITASUNAK
ENERGIA BERRITASUNAK
ENERGIA BERRITASUNAK

Zalain Ind., 42 Bera.
948 63 14 52 / 639 60 80 34 / 639 56 59 65

ZUBIONDO
JATETXEA-SAGARDOTEGIA

EGUNEKO MENUA
SAGARDOTEGI MENUA
KARTA
OGITARTEKOAK
PLATER KOMBINATUAK ...
T. 948 625 472
Alasta karrika - BERA
zubiondojatetxea.com

BIDASOA
GURPILAK - GASOLINDORAK
1984-2017

Gurpil eskeintze berezikiak
24h-ko asistentziak erregidoretan
147 euruko zerbitzu dohaiak
Gasolindegirik 24h irekita

Zakur eta Bidasoa enpresen erregidoretan zerbitzuak
Alkaga Industrialdia
Zubi Kalea 6
31770 Lesaka (Nafarroa)

Noain-Eskiroz Industrialdia
Y Kalea 10
31110 Noain (Nafarroa)

GASOLIOA ETXERA
eraman dago

Munduko trial txapelketan ariko da Uxuri Portu lesakarra

Uztailaren 14tik 16rako asteburu honetan ariko da 10 urteko txirrindularia Espainiako selekzioarekin Duranan (Araba)

TTIPI-TTAPA LESAKA

Uztailaren 14tik 16rako asteburuan jokatu da Duranan (Araba) trialeko Gazte mailako munduko txapelketa (Trial World Youth Games) eta Lesaka Trial taldeko Uxuri Portu Espainiako selekzioarekin arituko da.

Joan den urtean Wadowicen (Polonia) jokatu zuen nazioarteko taldekako txapelketan munduko txapelketa suertatu zen Uxuri Portu eta bakarka hirugarren, 9 eta 12 urte arteko nesken kategorian. Orduan bederatzi urte bertze-



Portu podiumean iaz Polonian.

rik ez zituen eta ea aurren, ekainean hamar urte bete eta urtebete gehiagoko eskarmen-tuarekin, bakarkako emaitzak hobetzen dituen.

Berako Zia erreken garbiketa eginen dute auzolanean uztailaren 22an

A. LARRETXEKA

Berako Udalak eta Ehiza eta Arrantza elkarteak antolatuta, uztailaren 22an, larunbata, Zia erreken garbiketa eginen dute auzolanean. Azken aldia uholde aunitz izan dira herrian, eta etorri daitekeenari aitzin egiteko Zia erreko bazterrak

garbituko dituzte Xubixabalen hasi eta Lamixeneraino.

Heldu den egunetan jakinaraziko dute non bilduko diren garbiketa egiteko, eta baita zer lanabes eraman beharko diren ere. Herritarrak parte hartzera gonbidatu dituzte «denen onerako» izanen baita.



AITOR AROTZENA

Lesakako musika bandak omenduak

Lesakako musika bandak sanferminen aitzineko kontzertua eman zuen ekainaren 30ean plazan. Emanaldiaren ondotik, lehen aldiz bandarekin jo duten hamabi musikari gaztetxoeri zapi gorri bana eman zieten eta bandan 20 urte baino gehiago dituztenak ere omendu zituzten.



BETI GAZTE

Lesakako VII. Argazki Rallyko saridunak

Beti Gaztek ekainaren 4an antolatutako VII. Argazki Rallyko sariak banatu ditu. Bildumarik onena Javier Lopez Fabianena izan da eta elkarteko bazkideen artean Fred Ramosena. Gaika sariak izan dira Manu Barreiro, Tomas Sarasola, Javier Lopez, Jose Miguel Romero eta Jose Luis Rodriguezentzat ere.

Herencias y Gestión

Zuregandik hurbil gaude

Mugaz gaindiko herentzien onarpena

Gizarte segurantzaren pensioen eskaera

Herentziari lotutako gatazketan bitartekaritza

Santiago 55, ELIZONDO 948 59 67 11 - 610 40 18 36
www.herenciasygestion.com • herenciasgestion@gmail.com

Ulibeltzak elkarteak hilaren 30ean eginen du batzarra

Bestetako lanetaz, fatxadako obraz edo kobratzeko kutxazain berriaz ariko dira, bertze zenbait gairen artean

MAIDER PETRIRENA

Uztailaren 30ean, hilabeteko azken igandean, 18:00etan, Ulibeltzak Elkarteke urteko batzarra eginen dute, Bertan, hainbat gai aztergai izanen dituzte, horien artean aurten-go Santiburtzio bestei begira egin beharreko lanak aipatuko dituzte. Deus baino lehen, joan den urteko batzarreko akta irakurri, eta hala erabakitzen badute, onartu eginen dute. Elkartearen fatxadako obretaz, eta besten ondotik paratu nahi duten kutxazain berriaz ere ariko dira, galdera eta eskarien txandaren aitzinetik. Akitzeko, batzarren akta irakurri eta onartuko dute, heldu den urtera arte esperatu gabe. Bazkideei animatzeko eta batzarrean parte hartzera hurbiltzeko deia egin diete.



Jubilotekako kideak. UTZITAKOIA

Jubilotekaren ikasturte bukaera

Hain emankorra eta gustagarria izan den 2022-2023 ikasturtea ere ezin hobeki agurtu zuten ekainaren 29an Sunbillako jubilotekako kideek, Amets Inda alkatea lagun zutela. Aitzineko astean, Donamaria, Ezkurra, Zubieta eta Sunbillako jubilotekakoek elkarrekin Hondarribira irteera egin zuten. Ezin hobeki pasatu zuten (*ikus 22. orrian*).



ESKOLAK UTZIA

Ikasturteari eta eskolari agurra

Ikasturtea agurtu zuten ekainaren 20an eskola ikasleek. Goitiko eskolan sorpresa eta gosaria izan zuten. Ondotik frontoira joan eta han 6. mailakoei (argazkian) agur berezia egin zieten. Bederatzi ikasturte eskolan aritu ondotik etapa berri bat hasiko dute. Dantzak eta bertsoak ere izan zituzten.



UTZITAKOIA

20.000 euro ADANO eta ANADI elkartei

Bigarren urtez egin zen Osasunaren Eguna maiatzaren 27an. 21.059 euro bildu ziren (10.000 boleto saldu ziren) eta, honela, uztailaren 4an, 10.000 euroko txeke bana eman zieten antolatzaileek esker oneko solasak bertzerik ez zituzten ADANO eta ANADI elkarteke ordezkari.



MAIDER PETRIRENA

Zazpi neskek sendotza egin dute

Zazpi neska gaztek sendotza egin zuten uztailaren 1ean: Maialen Aiesa, Garaine Iriarte, Ekiñe Bertiz, Iraide Iriarte, Aitana Retegi, Nahia Bertiz eta Eneritz Iturralde. Juan Zabala apaizarekin eta Jose Manuel Nazabal eta Miguel Larranbere bikarikoekin batera ageri dira argazkian.

San Juan bezperan bokatak jan eta su gainean salto

Ekainaren 23an, urteroko ohitura jarraituz, lehenik bokatada eta ondotik suak saltatzeko aukera bikaina izan zuten frontoi atzekaldeko plazan. Bertan giro ezin hobea jartzen herriko DJ J&J izan genituen.



GARAINA IRIARTE



Lehen hiru emakume sailkatuak sari emate ekitaldian. ERREKA

Aimar Bouziani eta Vanesa Pacha nagusi krosean

150 korrikalarik baino gehiagok hartu zuten parte Errekak antolatutako krosean

TTIPI-TTAPA

Dagoeneko klasiko bihurtu den krosa antolatu zuen Errekak ekainaren 25ean. Udalaren eta La Caixarekin laguntzarekin antolatu dute aurten lasterketaren 43. edizioa.

Haurrak lehiatu ziren has-teko, ondotik maila nagusian, gizonezkoetan, lehen aldiz proba irabazi zuen Portugal-letoko Portu Atletismo elkarte-ko Aimar Bouzianik (23.21) eta emakumezkoetan, bertze behin, Vanesa Pacha izan zen garaile (27.46).

Gizonezkoetan, Bouzianiren ondotik, bigarren Andoaingo

Javier Menta (23.33) eta hiru-garren Hiru Herri taldeko Roberto Carlos Trejo (23.49) izan ziren. Nesketan, berriz, Vanesa Pacharen ondotik Rebeca Mariño (28.50) eta Olatz Zabala (28.55) izan ziren. Santi San Miguel eta Maider Mindegia, bikain biak ere, izan ziren herriko bi lehendabiziko lasterkariak

Lasterketa luzeaz gain motza ere jokatu zuten, eta honetan herritar bat, denborali bikaina osatzen ari den Saioa San Miguel izan zen azkarrena emakumezkoetan eta Javier Tejero (12.24) gizonezkoetan.



UTZITAKOA

101 urte bete ditu Julia Lanaspak

101 urte bete ditu Santamaria etxeko Julia Lanaspak. Urteurren berezia izaki, modu berezian ospatu zuen etxekoekin eta bisitariekin. *Zorionak zuri* kantatu zioten eta aurorak ere izan ziren eta argazkian ageri den bezala, bestetako zapi gorria paratu zioten udaleko kideek. Zorionak!



JUAN MARI ONDIKOL

CaMinus ekimenari harrera egin diote

Desgaitasunari eta gaixotasun arraroei ikusgarritasuna emateko, Euskal Herriari itzulia egin diote CaMinus ekimenean. Ekainaren 27an herria ailegatu ziren eta ongietorria egin zieten. Joaldunek bidea irekiz ailegatu ziren protagonistak eta, dantzariak aurrera dantzatu zieten txistularien laguntzarekin.

Miguelena SUKALDEAK

- Etxetresnak
- Pareta-armairuak
- Sukaide eta bainugelako altzariak

☎ 948 450 925 📞 624 47 57 25
Amezti zeharkarrika, 1 • DONEZTEBE

www.electrodomesticosmiguelena.com

TTIPI-TTAPA SARE SOZIALETAN

facebook

www.facebook.com/ttapi.ttapa

Jarrai gaitzazu!



Carlos Ostiz besten hasierako txupinazoa pizten. ONDIKOL



Trapatan dantzako dantzariak eta musikariak. ALICIA DEL CASTILLO

Giro ederra izan da nagusi San Pedro bestetan

Joseba Legarrari omenaldia egin zioten San Pedro egunean herriko ekitaldi gehienetan laguntzeagatik

OIER ZULAIKA

Ederrak izan dira aurtengo San Pedro bestak. Ostiz Etxeak botatako txupinazoarekin hasi ziren eta bortz egunez besta giroa nagusi zen herrian.

San Pedro egunean Lorena Almandoz, Andrea Mindegia, Uxue Ibarrola, Amaia Jorajuria, Maddi Juanena, Marina Zabalá, Lorena Juanena, Itxaso Estanga, Tomas Ostolaza, Joseba Legarra, Xanti Uterga, Iñaki Telletxea, Alejandro Maylin, Aritz Zulaika, Joxe Irigoien eta Juan Ramon Ostiz aritu ziren Trapatan dantzatzen eta Eduardo Almandozek bandera dantza egin zuen. Txistulariak Itziar Irigoien, Oscar Mindegia, Jon Aldabe, Miren Martin, Igone Elizondo, Maialen Zamorano, Enea Erkizia, Irati Huarte eta Saioa Irigoien izan ziren. Gero, Joseba Legarrari omenaldi tiki bat egin zion udalak herriko ekitaldi gehienetan laguntzeagatik.

Ortzirailean, Arantxa Arregi alkateak aginte-makila eman zion Oinatz Ezkurra alkate tikiari; Aimar Gartxitorena izan zen banderaren arduraduna, Ana Maiza Rocha bake-epailea

eta Nahia Belarra, Aizea Jaurregi, Nahia Mariñelarena, Araia Andueza, Beñat Telletxea eta Naroa Mutuberria zinegotziak. Herriko Etxean karguak hartu eta kalejiran atera ziren, erraldoiek, buruhandiek eta gaiteroek lagunduta.

Besten azken egunean sorpresa ere izan zen, izan ere, azken hilabetetako entseguen ondotik, herriko emakumeek danborrada-batukada ere jo zuten.

Lapaitzaren salaketa

Dena ez da, ordea, besta izan. Izan ere, Lapaitza Gazte Asanbladak salatu du besten lehen-dabiziko egunean herriko ostatutik zintzilika paratuak zizutzen bi pankarta erre zituztela plazan zeuden hainbat gizonen. *Gizon, ezpadakizu egoten ez etorri. Feminismoz armatuta gaude!* zion batek eta bertzeak *Zuen deserosotasuna gure plazera!* *Gora borroka transmaribolloa!* Lapaitzak argi utzi nahi du ez duela horrelako erasorik onartuko, «eta horrelako ekintzen aurrean gu zapaldu beharrean are gehiago pizten dela gure sua».



Joseba Legarrari omenaldia egin zioten San Pedro egunean. ALICIA DEL CASTILLO



Korporazio ttikiko haurrak herriko etxean. ALICIA DEL CASTILLO



Herriko emakumeek danborrada-batukada egin zuten. ALICIA DEL CASTILLO

Kantu zaharren bazkaria prest dute larunbatean Legasan

Santa Leokadia basilizan izanen da, Angel Mariezkurrenak sustatuta eta Santxotena eta Jalisko musikariekin

TTIPI-TTAPA

Kantu zaharrak maite dituenak horretarako hitzordu aproposa izanen dute larunbat honetan, uztailaren 15ean Legasan; zehazki, Santa Leokadia ermitan. 14:00etan bazkaltzeko bilduko dira eta bertarutakoek 20:00 aldera arte kantatzeko aukera izanen dute. Egun horretan Angel Mariezkurrena ariko da dinamizatzaile lanetan eta eskarmentu handiko bi musikari izanen ditu ondoan: Iruritako Frantzisko Santxotena eta Sunbilla Aitor Ibarra *Jalisko*. Bazkaria Doneztebeko Santamaria jatetxeko langileek zerbitzatuko dute ermitan eta menua hau izanen da: urdaiazpiko iberikoa, entsalada mistoa, frijituak, ajoarrieroa, txipiroiak, txuleta, postre dastaketa, kafea eta konbinatua.



Santa Leokadia ermita. IRANTZU PASTOR

Erakusketa Bertizen

Estefania de Paz artistaren *Argako Erregina* erakusketa ikusgai dago Bertizko Lorategi Historiko-Artistikoan abuztuaren 31 arte. Uztailaren 16an, 12:00etan, *Remigia bezalako trapuzko panpina bat egin dezagun* tailerra izanen dute erakusketa aretoan, Tea en la Azoteako Gabriela Barrio oihal artistaren eskutik. Ondoko asteetan ere zenbait jarduera izanen dira.



TESTUA ETA ARGAZKIA: NEREA MEOKI

Ikasturte bukaera Legasako eskolan

Legasako eskolan irteera eta jaialdi bereziarekin agur errandiote ikasturteari. Haur Hezkuntza eta Lehen Hezkuntzako lehen zikloko ikasleek Doneztebeko liburutegira eta Intzakar dira irteera egin zuten eta Lehen Hezkuntzako hirugarren eta seigarren maila artekoek Gaztelura.

Ezkurran ur araztegia egiteko lanak lizitatu ditu Nafarroako Gobernuak

TTIPI-TTAPA

Nafarroako Gobernuak Lurralde Kohesiorako Departamentuak, NILSA sozietate publikoaren bitartez, Ezkurran araztegia egiteko lanak lizitatu ditu 476.276,65 eurotan. Lanak egiteko interesa duten enpresek uztailaren 3ra arte

zuten eskaintzak aurkezteko. Sareak kolektore batekin lotuko dute, emaria instalaziora bideratzeko. Ez da instalazio elektrikorik beharko ura estaziora bultzatzeko. Atxikitze bukaerako hezegune bat ere jarriko dute. Ura Aztungo erre-kara joanen da araztutakoan.



RAMONI ONDOKI

Malerrekako jubilotekakoak Hondarribira

Ekainaren 22an egin zuten hitzordua, goizean lehenbizikoak Ezkurratik abiatu ziren autobusez eta sunbildarrak izan ziren autobusera sartzen hondarrekoak. Hondarribiko karriketan eta itsaso bazterrean ibili ziren, eta bazkaldu ondotik, farora igo ziren. Bidean, bista ederrez gozatzeko aukera izan zuten.



OBERENA

Endika Santesteban Berria txapeldun

Oberena taldean ari da Endika Santesteban zubietarra eta berriki Berria txapelketa irabazi du, Buruzgain taldearen kontra (2-1). Jubenil mailan, bere partida irabazi zuen Santestebanek, Sarasibarrekin batera, Barberena eta Garañoren kontra (22-7).



Euskal museoaren kanpoko aldean paratu diren panelak. UTZITAKOA

Diasporari buruzko panelak euskal artzainen museoan

Uztailean eta abuztuan ikusgai daude Elgorriagan eta irailan Urdazubira eramanen dituzte

TTIPI-TTAPA ELGORRIAGA

Bederatzi panel berri jarri dituzte, Eusko Jaurlaritzako Kanpo Harremanetarako Departamentuak eginak, lehen aldiz iaz Donibane Garazin ospatu zen Diasporaren Egunean jarri zirenak.

Orduz geroztik, Iparraldeko zenbait herritatik pasa ondok, Nafarroara iritsi dira Euskal Artzainak Ameriketara elkartaren eskutik. Uztailean eta abuztuan, Elgorriagako museoan daude, udako ordu-tegian: asteartetik larunbatera 11:00etatik 14:00etara. Irailan Urdazubira eramanen

dituzte, bertan, irailaren 9an, Artzain besta ospatu behar delako.

Euskal Artzainak Ameriketara elkartea kontent dago, emigratioari buruzko informazioa erakusten duen erakusketa hau «gure Museoan eskaini ahal izateagatik, ematen duen informazioak Elgorriagan bertan dagoena borobiltzen duelako eta aberasten duelako». Gainera, bertara etortzen diren artzainen bizipenak grabatzeko aprobeztatzen ari dira, «ardi kanpoa ikustean oroitzapenak burura etortzen zaizkie eta haiek kontatzen dituzte».



TESTUA ETA ARGAZKIA: AINTZANE LEIZA

Giro ederra Saldiasco San Juan festetan

Giro ederra izan dute Saldiasco bestetan. San Juan egunean 92 lagun bildu ziren herri bazkarian eta mus txapelketan Miguel Baleztena eta Leon Etxekolonea nagusitu ziren. Tortilla txapelketan, berriz, Ainhoa Loprengoa nagusitu zen, Jose Ramon Txaparre bigarren eta Harkaitz hirugarren.



TESTUA ETA ARGAZKIA: JAIONE ARIZTEGI

Suaren gainean saltoka Urrozen

Urteroko ohiturari jarraituz, San Juan bezperan Urrozko umeak etxez etxe gauean erreko zituzten kaxa eta zaku eskean ibili ziren. Ondotik, afaria izan zen plazan eta ilundu zenean sua piztu zuten, honen gainean salto eginez udako solstizioa ederki ospatzeko.

MINIESKABAZIOAK
MINIESKABAZIO eta GARRAIO LANAK
enpresa eta partikularrentzat
Ezpelura, 1 - DONEZTEBE - T. 616 513 491

BORDAKO
Carnes Sein Haragiak, S.L.
Industrialdea, 27 • MAFRIDO ERAIKINA • DONOSTIA
T. 943 467 244 | 943 467 444 • carnessein@bordako.com

LIZUN
GAZTANDEGIA
Sunbilla - Tel: 948 450 862

ANELAN
LAN BERTIKALAK
948 031 174
info@anelan.pro
Sokekin egindako lana, andamiorik gabe.
Egiten ditugun lanak:
Fabaden konponketak,
segurtasun-sistemen
instalazioak, tellatuen eta
azpiegituren mantentze-lanak, eta abar.

Iñaki Goienetxe izanen da elkarteko lehendakaria

Jose Luis Legarrak zortzi urteren ondotik utzi du elkarteko lehendakari kargua

TTIPI-TTAPA DONEZTEBE

Ekainaren 21ean egin zuen Arkupeak elkarteak urteroko delegatu batzarra, eta bertan aukeratu zuen hemendik aitzinera lanean ariko den zuzendaritza batzordea.

Bertaratu ziren delegatu guzien onarpena izan zuen proposatuko zuzendaritza batzordeak. Lehendakaria salbu, gainerako batzordekide guztiak emakumeak dira.

Lehendakaria Iñaki Goienetxe igantziarra izanen da. Berekin batera, lehendakari orde Maritxu Telletxea izanen da, idazkaria Kontxi Agerre eta idazkari orde Katy Lasarte. Diruzain kargua Gema Gamiok izanen du eta bokalak Lourdes Erbiti, Rosa Mendiburu, Pili Albistur eta Marisa Telletxea. Ordezkoak, aldiz, Rosa Mari Bertiz, Pakita Mikelarena eta Fermin Azpiroz.

Hautagaitza horretaz gain, Mari Karmen Apeztegia eta Eukene Barriola ere aurkeztu ziren boluntario. Beren borondatea ikusirik, batzarrak laguntzaile gisa izendatu zituen.



Kargua utzi duten juntakideak.

Zuzendaritza batzordea osatzearekin batera, eskerrak eman zizkieten orain arte 8 urtez lehendakari izan den Jose Luis Legarrari, eta baita batzordekide izan diren Isaac Alzugairari, Rosa Bertizi eta Pakita Mikelarenari «egindako lan bikainagatik».

Erratzun delegatu bila

Mari Carmen Auzkik 25 urteren ondotik, delegatu izateari utzi dio, beraz, Erratzun delegatua behar du elkarteak. Boluntarioak aurkezteko azken eguna irailaren 15a izanen da. Eskerrak eman dizkiote Auzkiri: «Esker mila Mari Carmen hainbertze urtez egindako lan guziagatik».



Elkarteko mendizaleak hamaiketako egiten. UTZITAKOIA

Ekaineko irteera Leitzara egin dute elkarteko mendizaleek

TTIPI-TTAPA

Ekainaren 20an Arkupeak elkarteko 72 mendizale elkartu ziren Leitzako Plazaola tren geltoki zaharrean. Eguraldi ona zen, baina zeruari begira ibili behar izan ziren, ekaitza lehertzeko arriskua zelako. Joxe Mari Zabaleta *Kaxkanta* izan zuten ibilbideko arduraduna.

Azpitik gora Mekara mendira atera ziren eta Arramian gosaldutik, Olanz erreka gurutzatu zuten. Behetik gora Eskibarren barna, Bas-tango borda pasatu eta Frankia baserrira jaitsi ziren. Ma-

nuel Lasarte bertsolari eza-guna jaio zen baserria da hori.

Bukatzeko, Kantinara jaitsi ziren Plazaolako trenaren geralekua izandakora, eta trenbide zaharretik Leitzako herrira joan ziren.

15 kilometro inguru eta lau ordu eta gehiago ibili ondotik, Lopenean bazkari goxo batekin bukatu zuten eguna. Zorteko izan ziren, bazkaltzen ari zela lehertu baitzen ekaitza.

Udan ere ez dute atsedenek hartuko mendizaleek, eta uztaileko hitzordua Uharte Arakilen izanen dute.

Elgorriagako bainuetxeko zerbitzuen prezioa bazkideentzat

TTIPI-TTAPA

Urteak dira elkarteak akordioa sinatua duela Elgorriagako bainuetxearekin. Berriki kale-ratu den azken buletinean, baina, akatsak daude bainuetxeko zerbitzuen prezioan. Hauek dira hitzarmenean aurtengo onartutako prezioak:

Ibilbide termala astelehenetik ortzegunera 12 euro eta ortziraletan, larunbatetan eta igandetan 15 euro; masajetan %20ko deskontua eta bederratzirena astelehenetik ortzegunera, 9 egun, 81 eurotan, asteburuetan ezin da.



Bainuetxea kanpotik. ARTXIBOKOIA

Arkupeak elkarteko bazkide txartela aurkeztu behar da eta bazkidearen lagunak abantaila berdina izanen ditu. Asteburuetan ordua eskatu behar da.

KULTURKARI
Diseinu grafiko | Publicitate
www.kulturkari.com

Etiketak eta pegatinak
Paperean edo biniloan
(opakua edo gardena)
Bobinan edo soltean,
formarekin mostuak...



Inoiz baino gehiago bertako aukerak eta zerbitzuak, 0 KM-koak



IÑAKI ARIZTIA URRIZA
URDAZUBIKO ALKATEA

«Hurrengo urteetarako proiektu potoloak ditugu burutan Urdazubin»

Urdazubiko alkatetza hartu du aurten berriz ere Iñaki Ariztiak: «hurrengo urteetarako proiektu potoloak ditugu, batez ere Alkerdiko lezeen aurkikuntzak aztertzen segitzea eta bertan aurkitutakoa erakusteko toki bat egitea». Gainera, «Xaretako gainerako herriekin harremana berpiztu nahi dugu hainbat proiekturen bidez». Turismoari dagokionez, «Koronabirusak ondorioak izan bazituen ere, joan den urtea ongi joan zen eta normaltasunera bueltatu

gara. Ekainean jende mardoa ibili da eta udan gehiago espero dugu. Turismoa diru-sarrerara garrantzitsua da herrian, eskaintza zabala dugu eta ez dugu arazorik izaten bisitarien eta herritarren artean».



ADELA ARLEGI GOIENETXE
BERAKO MERKATARITZA ETA TURISMOA

«Herria bizirik mantendu nahi badugu zerbait egin beharra dugu»

Martxoan sortu zuten Berako Merkataritza eta Turismo Batzordea; «gure helburua bertako turismoa, dendak eta zerbitzua bultzatzea da, zubi lanak eginez eta laguntza emanez. Herria bizirik mantendu nahi badugu zerbait egin beharra dugu». Batzordea irekia da eta 12 lagun inguru biltzen dira; «dendariak, ostalariak, ibardingoak, landetxe eta zerbitzuetakoak... baita alkatea eta zinegotzi batzuk ere. Dirulaguntzak errazago lortzen dira udaletik eskatzen badira, eta elkarlanean gehiago egingen

dugu». Komertzio ttikien egoera «larria» da, «eta hori kontzientziazioarekin hobetu daiteke. Ez badugu bertan kontsumitzen, poliki-poliki itaiko dira. Beti ez da posible izan herrian erostea, baina lehenbiziko saiatu egin behar dugu».



DANIEL OLTZOMENDI
LIZARRIETAKO LEPOA - SARA

«Lizarrietako lepoa denentzat prestatua dago eta badago zer egin»

Sarako leku berezia da Lizarrietako lepoa, Daniel Oltzomendik azaldu bezala; «mugaz gaindik gune biziki interesgarria da, Euskal Elkaragoak bertakoentzat antolatua. Hiru ibilaldi baditugu, ibiltzeko ez ezik ikasteko prestatuak, panel informatiboekin. Txoriak ikusteko eta bizikletan ibiltzeko ere leku ezin hobea da». Gunea «denentzat» da, «ahalmen urritasuna dutenentzat edo elbarrituentzat prestatua dago eta badago zer egin. Jatetxeak ere badi-

tugu, lagunekin edo familian momentu goxo bat partekatzeko». Gainera, Lizarrieta Adventures aplikazioa garatu dute, «natura eta historia ikasteko jokoan bitartez, batez ere gazteei zuzendua. Arrakasta handia du».



JABIER IRIARTE SANSIÑENA
ETZALARKO TURISMO BULEGOA

«Bisitariak lasaitasuna eta naturaz gozatzeko aukera nahi dute»

Jabier Iriartek azaldu duenez, «turisten profila akdatu egin da azken urteetan. Lehenago euskaldunak, estatukoak eta gehienez ere frantsesak etortzen ziren, baina orain Europako bertze herrialdeetatik ere bai; alemaniarak, holandarrek eta ingelesak batez ere. Gainera, uda partean gazte motxilero aunitz ibiltzen dira mendian». Jendeak «lasaitasuna eta naturaz gozatzeko aukera» nahi du, «eta bertako gastronomia eta kultura ezagutzeko gogoia dute. Eskualde erakargarria da

eta bertako edertasuna baloratzen dute. Pandemiaren beldurra gibelean utzi eta lekuak bisitatzeko gogotsu daude, hortaz, bisitari aunitz ditugu eskualdean: Arantzan, Amaiurren, Erratzun... turismoa osasuntsu dago».



«Herritarrak elkartuz festa ederrak egin daitezke»

IRUNE GALPARSORO AIERBE ETA HAIZEA MUÑOZ URSUA ARANOKO GAZTEAK

Lehen aldiz santioak antolatzeko lantaldean sartu dira, eta esperientzia ona izaten ari dela aitortu dute. Horri esker, «festak gehiago gozatzeko» aukera izaten ari omen dira

G. PIKABEA

Batak mendia, pala, futbola, eskalada eta musika ditu afizio, eta besteak musika eta lagunartea maite ditu. Iruñe Galparsoro Aierbe (Arano, 2006) eta Haizea Muñoz Ursua (Arano, 2007) dira, herrikideak eta lagunak. «Naturaz inguraturik dagoen herri lasaia eta ttikia» dela esanez aurkeztu dute herria; eta honela nabarmendu dute: «Ttikia denez, bertako biztanle guztiok elkar ezagutzen dugu eta horrek giro zoragarria sortzen du». Gazteek ere «talde ederra» omen dute: «Nahiko kuadrilla handia gara. 15 urtetik gorako 20 bat gazte gara eta denak elkarrekin ibiltzen gara. Aurtengo herriko ekintzetan parte hartzen hasi gara: inauterietan, festetan...».

Bata zein bestea Hernaniko institutuan ari dira ikasten eta biek zientzien adarra aukeratu dute. Aurrenekoa zientzietako Batxilergoa egiten ari da eta etorkizunean ere bide horretan segitu nahi du: «Nire asmoa fisika ikastea da. Muñoz, berriz, datorren ikasturtean hasiko da zientzietako Batxilergoarekin; baina «oraindik ez daukat argi zer ikasi».

Festei begira

Ikasturtea bukatuta, udako opor betean topatu ditugu egun hauetan bi gazteak, uztailearen 22tik 25era ospatuko dituzten herriko santio festei begira. Agerian utzi dute fes-

tak gustuko dituztela; «herritar guztiak elkartzen garela eta elkarrekin gozatzeko aukera izaten dugulako». Gai-

neratu dutenez, «herritarren arteko harremanak eta gure artean sortzen den giroak egingen dituzten festak berezi».



Iruñe Galparsoro eta Haizea Muñoz. UTZITAKO ARGAZKIA

«ANTOLAKUNTZA BARRUTIK BIZITZEA AUKERA ZORAGARRIA DA»

«ARANOKO FESTEK DUTEN XARMA EZ DUTE INON AURKITUKO»

Aukeratzen hasita, kuttunena «lehen eguna» dutela onartu dute, «orduan egiten delako feria, gure ekitaldirik gutukoena. Herritar guztiak elkartu eta bakoitzak bere produktuak ekartzen ditu eta denok elkarrekin egoteko aukera izaten dugu. Izugarri gustatzen zaigu sortzen den giroa».

Aurtengoak «sekulakoak»

«Betidanik» izan dituzte gutuko santioak, «beste herrietako festetara joaten garen arren, ez dago zure herrikoak baino hobirik». Eta haurrak zirenetik festak aldatu ote diren galdetuta, «aldaketa bakarra» azpimarratu dute: «arkume jatea. Lehen egiten zen eta orain ez». Gainerakoan, aurtengo festetarako bereziki gogotsu sumatu ditugu: «bi urtez ez dira festak egin eta lehenengo urtean ahulagoak izan ziren. Uste dugu aurtengo sekulakoak izanen direla».

Antolakuntzan buru-belarri

Aurtengo festen beste alderdi bat ezagutzeko aukera izan dute Galparsorok eta Muñozek, koska bat gorago eginez, festak antolatzeko lantaldean sartu dira. Eta ez dira damutu, esperientzia aberasgarria izaten ari dela baitiote. «Festetan atzean dagoen prestakuntza guztia nolako den ikusteko aukera izan dugu eta dena desberdin ikusten dugu. Oso pozik gaude gure iritzia emateko eta gure proposamenak egiteko aukera izan dugulako». Gisa horretara, «pixkanaka, gazteok ere gure lekua egiteko aukera dugu» eta hori txalotzeko irurditzen zaio. Gehiago ere esan dute: «Antolakuntza barrutik bizitzea aukera zoragarria da eta festak gehiago gozatzeko aukera ematen du».

Festei begira egin duten proposamenetako bat «umeentzako buruhandiak ateratzea eta altxorraren bila jolasa egitea» izan dira. «Gutikiak ginenean, buruhandiak

izaten ziren eta oso ongi pasatzen genuen». Hori gogoan, azken urteotan galdu den ohitura berreskuratzea «dibertigarria» iruditu zaie. Ideia gehiago ere jarri dituzte mahai gainean, eta besteak beste, «herri afariaren ondoren bingoa egitea» proposatu zutela kontatu dute.

Baina ekitaldi horietaz aparte, zer antolatuko ote lukete gustura? bi gazteek: «Oso gustura gaude festekin, baina amesten hasiz gero, gustuko dugun talde baten kontzertua eskatuko genuke». Horrekin batera, onartu dute «gazte gutxi elkartzen garela festetan, inguruko herrietako jendea ez baita etortzen».

Elkarlanaren garrantzia

Galparsoro eta Muñoz aurten sartu dira aurrenekoz festak antolatzeko lantaldean, baina horrek «festen atzetik lan asko dagoela eta lantaldea oso garrantzitsua dela» ohartzeko bide eman die. Horregatik, «garrantzitsua» iruditzen zaie «parte hartzaileak elkarrekin komunikatzea, erabakiak hartzea eta taldean lan egitea. Ez da erraza denak ados jartzea; beraz, ezinbestekoa da bakoitzak bere nahiei bakarrik begiratu beharrean, denon gustukoak diren festak antolatzeko eta ideia berriak hartzeko zabalik egotea». Eta bide beretik, auzolanaren eta elkarlanaren garrantzia azpimarratu dute: «herria elkartuz gero eta denok elkarrekin jardunez gero, festa ederrak egin daitezke».

Herritarrei eta bisitariei gonbidapena

Eta festen atarian, alde bate-tik, herritarrei egin nahi izan diete deia bi gazteek, «festaz gozatzeko eta ondo pasatzeko, horretarako baitira!». Eta bide batez, beste herrietara zabaldu nahi izan dute gonbidapena: «Aranoko festetara gonbidatuak daude, herri tiki eta eder honek duen xarma ez dute inon aurkituko».



Festetako lehen egunean feria egingen dute aurten ere. KRONIKA



Apar besta igandean izanen da. KRONIKA

Uztailaren 22tik 25era festak ospatzeko prest

Aurreneko egunean Erramun Martikorenarekin kantaldia antolatu dute

TTIPI-TTAPA

Aurten ere lau eguneko festak prestatu dituzte Aranon. Uztailaren 22an eguerdian botako duten txupinazoarekin hasiko dira, eta festetako egun handian bukatuko dituzte. Larunbata, igandea eta asteartea ekitaldiz betetako egunak izanen dira, eta astelehena, berriz, lasaiagoa.

Uztailaren 22a, larunbata

12:00etan festei hasiera emanen dien txupinazoa, buruhandiek lagundua. Ondoren, herriko artisauen eta produktuen feria eta tortilla lehiaketa.

18:00etan Erramun Martikorenaren kantaldia. 21:00etan herri afari autogestionatua karpan Dj Gorkarekin.

Uztailaren 23a, igandea

11:00etan meza. Herri gurasoentzat hamaiketako a. 12:00etan Umora Ona Dantza Taldearen emanaldia eta umeen eta gazteen arteko pilota partidak. 16:00etan apar festa. 17:30ean txokolatea. 18:30ean Altxorraren bila jolas. 20:00etan Zapotxin pailazoaren ikuskizuna. Ondoren herri afari autogestionatua Izer eta Alabierrekin.

Liburutegi ibiltariaren geldialdia ostiralean

Liburuz betetako kutxak hartuta, Elena Arteta Leitzako liburuzainak bisita egingen du aste honetan Aranora. Ostiralean, uztailaren 14an, 12:30etik 13:00etara herrian izanen da. Hori izanen da uda aurreko azken geldialdia. Hurrengoa irailean izanen da.



Liburutegi ibiltaria asteazken honetan etorriko da herrira

Goizean 11:00etatik 11:30era Eskoletxera hurbilduko da Leitzako liburutegia

ENERITZ IRAOLA

Ikasturte guztian zehar Elena Arteta Leitzako liburutegian bisita izan dute hamabostean behin eskolan. Udan ere zerbitzua eskaini nahi du eta, gainera, herritar guztiengana zabaldu. Asteazken honetan, uztailearen 12an, etorriko da

Eskoletxera, 11:00etatik 11:30era. Beti bezala, hainbat liburu ekarriko ditu esku artean, baina norbaitek eskaera bereziren bat egin nahi badio, 617 38 58 82 telefonora mezu bat bidali diezaioke. Liburutegi ibiltariaren hurrengo geldialdia irailean izanen da.



MIKEL SAIZAR ETA SUSANA SANTOS

Festa giroa sanpedroetan

Ekainari bukaera eta uztaileari hasiera festan giroan eman zieten Lagunartekoek eta haiekin batera baita herritarrek ere. Ostiralean eta larunbatean eskean ibili ziren gazteak eta larunbateko sagardo dastaketan eta herri afarian giro bikaina sortu zen.

Administrari lanpostua hutsik geldituko da

Udaleko administrari lanpostua hutsik geldituko da laster, gaur egun horretan ari den Olatz Zubirik aldi baterako baimena eskatu baitu. Udalak zerrendan bigarrena zenarekin hitz egin du, baina ezin duela ikusita, egonkortze prozesua martxan jarriko du lanpostua betetzeko.

Industria eta energia teknikari bila Mendialdean

Leitzaldean eta Larraunaldean aritzeko, industria eta energia dinamizatzailea kontratatu nahi du Cederna Garalur elkarteak. Aldi baterako kontratua izanen litzateke, mugagabe izateko aukerarekin. Curriculumak info@cederna.esera bidali behar dira uztailearen 13rako.



JAIONE OLAZABAL

Udari hasiera sugarren arrimuan

Guraso elkarteak antolatuta, arratsaldean jolasak eta merienda izan zituzten etxeko txikienek. Herri afarian bildu ziren gero herritarrek eta gaua heltzean suak piztu eta gainetik saltoka ibili ziren. San Juan bezperaren aitzakian, giro ederra izan zen.



ENERITZ IRAOLA

Ikasturte bukaera giro ederrean

Ekainaren 23an izan zuten azken eskola eguna eskolako ikasleek. Eta ez zen izan nolana hiko bukaera. Ikasleek jolasak prestatu zituzten eta etxekoei bertaratzeko gonbidapena eginda, gurasoak eta anai-arrebak izan zituzten aurkari. Tenisean, patinekin, ur jolasak eginez... primeran pasa zuten.



KULTURKARI
Diseño gráfico | Publicidade
www.kulturkari.com

Enpresentzako materiala

Txartelak, gutun-azalak, orriak, talonarioak, karpetak, zigiluak...

ITURENGO BESTAK 2023

Egitaraua



Uztailak 13, ortzeguna

16:00etan haurrendako herri kirolak, nesken frontenis txapelketako finala eta helduen esku pilota txapelketako finala. 19:00etan dantzak. 20:00etan txupinazoa. Ondotik Mendaur Trikitixa Eskolaren kalejira herrian barrena. 21:30ean zopak Herriko Ostatuan eta afaria Altxunea Erretegian. 00:00etan dantzaldia DJ J&Jrekin.

Uztailak 14, ortziralea

09:00etan dianak herriko txistulariekin. 11:00etatik 14:00etara haurrendako puzgarriak. 14:00etan haurren bazkaria Herriko Ostatuan. 16:00etatik 18:00etara haurrendako puzgarriak. 17:00etan mus txapelketa. 18:30ean brokolatada. Arratsaldean eta gauean dantzaldia Bizphiru Pelau taldearekin. 21:00etan paellada eta zingar jatea.

Uztailak 15, larunbata

09:00etan dianak herriko txistularien eskutik. 11:30ean Adoseko neska gazteboen pilota partidak. 13:00etan Plazaz plaza pilota txapelketa. Bazkaldu aurretik magra eta gaztaren pisua asmatzea. 14:30ean herri bazkaria plazan. 17:00etatik 21:00etara Tuku-tuku txaranga. 21:30ean zingar jatea. 00:30ean gauapa Trikidantz taldearekin.

Uztailak 16, igandea

09:00etan dianak herriko txistulariekin. 12:30ean pentatloia bikoteka: Amalur Arbelaitz, Nerea Arruti, Xabier Zaldúa eta Andoni Iruretagoiena 'Izeta'. 17:30ean Rebeca dantza akademiaren erakustaldia. 19:30ean kantaldia Estibu Pinaborekin. Beste amaiera emateko zingar jatea.

Ongi pasa bestak!



Errazioak, eguneko menuak, menu bereziak, bokatak, pizzak, hamburgerak, plater konbinatuak...

Baja, 18 Auritz | 948 39 54 45 | marlochandorena@gmail.com

Ortzogunetik igandera irekita. Goizeko Setatik atzitera.

Ainhoa Alzuguren Mitxelena

ongi pasa Bestak!

Abokatutza orokorrean - Herentziak
Alokairuak - Arazo administratiboak
Zerbitzua euskaraz ematen dut. Delta hiltzordua hartzeko

Legia 43, BERA - M. 630 97 21 89
ainhoaalzuguren@gmail.com

Ileapaindegia

EIDER
Estetika

Asteartea eta ortzeguna: 09:00 - 14:00
Asteazkena eta ortziralea: 15:00 - 20:00
Larunbatetan: Goizez

Kontsejo, 6 | ITUREN | T. 630 633 445



Kontsejo, 27 - ITUREN
T. 948 450 410



Ostrial eguerdik - gandi eguerdik
Besta eguerdik eta besta bezperetan
Utzalaren 15etik abuztuaren 30era
egunero ardiehenak zati-zati



ITURENGO UDALAK
besta zoriontsuak opa dizkizue
herritar eta bisitari guztiei

E
ECHEVERRIA
ZURGINDEGIA



A+++
PVC
LEIHOAK



Merkatuko leihorik hoberenak
egiten ditugu!

6 kamara eta 82 mm-ko perfilak

ESKATU AURREKONTUA KONPROMISORIK GABE

| Egitzak | Eskailerak | Ateak | Lurrak |
|-----------|------------|-------------------|-------------|
| | | | |
| Armarriak | Sukaldeak | Egunerako leihoak | Leho mistak |
| | | | |

Leitza errep. - 31745 ITUREN
M. 676 393 996 - T. 948 388 455 - F. 948 456 164
carpinteriaecheverria@yahoo.es

ELGORRIAGAKO BESTAK 2023



Egitaraua

Uztailak 21, ortziralea

18:00etan Haize Loira ipuin kontalaria.
20:00etan altxaferoa. 21:00etan zopak
Herriko ostatuan. Gauez DJ Infernu
txosnan.

Uztailak 22, larunbata

10:30ean puzgarriak. 14:00etan gazte
bazkaria. 17:00etan jokoak. 23:00etan
kontzertuak: Petti eta Etxeko Uzta, Bip,
Tocan2 La Polla eta DJ Aimar.

Uztailak 23, igandea

10:00etan Argitsu artisau feria.
14:00etan paellada. 16:00etan Elutxa
txaranga. 20:00etatik 22:00etara eta
00:00etatik 03:00etara Eztitan.

Uztailak 24, astelehena

12:00etan Toka. 14:00etan zikiro jatea
Beñat eta Fernandorekin. 21:00etan
afaria. 23:00etan Bizphiru Pelau.

Uztailak 25, asteartea

12:00etan herriko dantzarien
emanaldia. 13:00etan luntxa.
17:00etan mus txapelketa. 20:00etan
tortilla dastaketa eta DJ J&J.

BESTA HAUETAN ZATOZ ELGORRIAGAKO BAINUETXERA:
buffeta libre, plater konbinatuak, ogiartekoak, enrrazioak, hamburgesak...
Errotaldea z/g 31744 Elgorriaga (Nafarroa)
T. 948 45 40 45 | www.baineariceelgorriaga.com



**ELGORRIAGAKO
UDALAK**
Errespetuz besta egin
BESTA ZORIONTSUAK
OPA DIZKIZUE
HERRITAR ETA BISITARI GUZTIRI



ELIZONDOKO BESTAK 2023

Egitaraua

Uztailak 22, larunbata

11:00etan Giltxaurdiko igeriketa txapelketa. Izen-ematea igerilekuan.

11:30ean Elizondoko eta Doneztebeko Konpartsen senidetzea plazan. **Ondotik** kalejira herritik barna. **18:00etan** konpartsen emanaldia Baztan pilotalekuan. **23:00etan** kontzertuak plazan: Same Roots eta Neskatasuna.



Uztailak 24, astelehena

12:00etan txupinazoa eta baztan zopak plazan. **Ondotik** itzulua konpartsarekin (udaletxea, Jaime Urrutia, Ziga plaza, Txokoto, Braulio Iriarte, Opoka, Santiago karrika, zahar etxea). **18:00etan** DJ Kaktus Iriarte pilotalekuan. **19:30ean** Karrikadantza: konpartsa, txistulariak, gaiteroak, txaranga, banda... (Herriko etxea, Jaime Urrutia, Ziga plaza, eliza, Santiago karrika, herriko plaza, Jaime Urrutia, zahar etxea). **20:00etan** Salbea elizan Elizondoko Abesbatzarekin, Recreo bandarekin eta Felix Txoperenarekin organoan. **Ondotik** Karrikadantza eta Erraldioen dantza plazan. **22:30ean** kontzertuak plazan: Añube, The Lio, Raimundo el Canastero eta Kalima Limon. **23:00etan** DJak Merkatuko plazan: Aimar, 20ktal, Dorian, Red3r, Xinto eta Sahi.

LA BAZTANESA S.A



Tel: 948 580 129
autobuses@labaztanesa.com

Ongi pasa bestak!



MAPFRE

Etxea, autoa, bizitza, jubilatzea...

Jaime Urrutia, 8 • 31700 ELIZONDO • T.948 58 03 76

tinkaenergialak

www.tinkaenergialak.com | tinka@tinkaenergialak.com

Pol. Ind. Zozaia Errota | ZOZAIA
948 452 772 | 607 631 881 | 637 895 032

INDAUTO TAILERRAK *ELITE*

Mekanika
Elektrizitatea
Pneumatikoak
Ibilgailuen salerosketa

Ongi
pasa
bestak!

Ind. Ordoki - Arizkun (NA)
T. 948 453 488 - M. 675 324 960

info@indauto.es

ongi pasa bestak!

Dendako artikuluen likidazioa

deskontu handiak

H. LOPEZ

Erreforma integralak eta gremioen koordinazioa

Aire girotua • Tximiniak • Igerilekuen salmenta
Gas, gasolio eta biomasazko galdara eta berogailuak
Zeramika eta bainugelako altzarien salmenta

Santiago, 93 ELIZONDO - T. 948 452 126
info@honestolopez.com
www.honestolopez.com



hiru establika

BERTAN JAN edo ERAMATEKO
Deskargatu gure APPa eta egin
zure ekoizera

... betikoa baina ezberdina



Baztan Berri 7 B | ELIZONDO | T 948 581 219

**ELEK
BERRI**

ONGI PASA BESTAK!

INSTALAZIO
ELEKTRIKOAK

**EGUZKI PLAKEN
INSTALAZIOA**

646854825 // 616898065

Santiago 118, Elizondo (Na) - elekberri@gmail.com

CITROËN

ONGI PASA BESTAK!

SANSIÑENA garajea

TAILER MEKANIKOA
KOTXEEN SALMENTA ETA KONPONKETA
ENGRASEAK
ERABILITAKO NEKAZARITZA TRESNERIA
AGRIA, NEW HOLLAND TRAKTOREAK
ZERBITZU OFIZIALA:

NEW HOLLAND
AGRICULTURE

AGRIA

Santiago, 37 | ELIZONDO | 948 580 406



Uztailak 25, asteartea

09:30ean dianak. **10:30ean** Karrikadantza (Herriko etxea, Jaime Urrutia, herriko plaza, eliza). **11:00etan** meza nagusia Elizondoko Abesbatzarekin, Recreo bandarekin eta Felix Txoperenarekin organoan. **12:00etan** Karrikadantza (eliza, Santiago karrika, herriko plaza, Jaime Urrutia, zahar etxea). **12:30ean** mutildantzak, erraldioen dantza Elizondoko bandarekin eta luntxa plazan. **17:00etan** herri kirolak Iriarte pilotalekuan: Nafarroako Herri Herriko Txapelketa. **17:30ean** Xomorro Zirko tailerra Merkatuko plazan. **18:00etan** pilota jaialdia Baztan pilotalekuan. **19:00etan** Baztango Dantzarien emanaldia plazan. **Ondotik** mutil dantzak eta dantza herrikoiak plazan. **22:30ean** Los Cazahuetes mariatxiak plazan. **Ondotik** dantzaldia Bizphiru Pelau taldearekin.

Uztailak 26, asteazkena

09:30ean dianak Beartzunen. **11:00etan** erraldoi eta buruhandien konpartsa (zahar etxea, Santiago karrika, Opoka, Mendinueta, Benito Menni, Merkatuzelai, Legate, Xalbador, Txokoto, Santiago, Maria Azpilkueta, Lanbide Eskola). **11:00etan** haurren dantza-puzgarriak eta ludoteka Iriarte pilotalekuan. **14:00etan** kuadrillen bazkaria Kuarteleko zelaian (bakoitzak bi euro ordaindu beharko ditu materialaren alokairurako). **16:00etan** haurren dantza-puzgarriak eta ludoteka Iriarte pilotalekuan. **18:00etan** poteoa Elektrokela elektrotxaragarekin elkarte elkarte, parketik abiatuta. **19:00etan** Trikidantz plazan. **20:30ean** mutil dantzak eta dantza herrikoiak plazan. **23:00etan** kontzertuak: Olala Iriarte eta Trikidantz.



Uztailak 27, ortzeguna

09:30ean dianak. 11:00etan erraldoi eta buruhaundien konpartsa (Lanbide Eskola, Akullegi, Santiago karrika, Datuzelai, Santiago karrika, Saskaitz plaza, Santiago Berekoetxea gotzaia, Paularena, herriko plaza, Pedro Axular, Giltxaurdi, Galartza, zahar etxea). 11:00etatik 14:00etara igerilekuko sarrera libre eta haurrendako puzgarriak Giltxaurdin. 12:00etan Elizondoko Recreo bandaren emanaldia Iriarte pilotalekuan. 16:30ean Elizondoko XI. Mus txapelketa Xalbador karrikan. 17:00etan Txaruta elkartearen pilota partida Baztan pilotalekuan. 17:00etan Los Tajudos del Norte zahar etxean. 17:00etan ginkana plazan, ondotik txokolata Ahaztuen plazan. 17:30ean Elizondoko I. Boneta Jaurtiketa txapelketa Giltxaurdi karrikan. 19:00etan bertso saioa plazan: Saioa Alkaiza, Maialen Lujanbio, Amets Arzallus eta Aitor Mendiluze. Ondotik mutil dantzak eta dantza herrikoiak. 22:30ean kontzertuak plazan: The Drunken Barrels eta Kamuts.

Uztailak 28, ortziralea

09:30ean dianak. 11:00etan erraldoi eta buruhaundien konpartsa (Herriko etxea, Jaime Urrutia, Opoka, Erlategi, Baztan berri, Maurizio eta Felix plaza, Abartan, Xalbador karrika, Giltxaurdi, zahar etxea). 14:00etan zikiro jatea Iriarte pilotalekuan (txartelak uztailaren 13an 19:30ean Herriko etxean salgai). 17:30ean Azken eguzkiloa haurrendako antzerkia plazan. 19:00etan Hauspolariek plazan. 21:00etan mutil dantzak eta dantza herrikoiak. 00:00etan Gizajoa ni eta kalejira plazatik abiatuta. Ondotik DJ Piek plazan.



Ongi pasa bestak!

lixue
GARBITEGIA

| | |
|---------------------------|----------------------------|
| OSTALARITZARAKO ZERBITZUA | ORDUTEGIA |
| AUTOZERBITZUA | 09:00-13:30 15:30-18:00 |

Santiago 94 - 96.
31700 Elizondo

621 264 404
info@lixue.eus

ONGI PASA BESTAK!

Malkorra

Txokolata urrakin egina
Tartak eta pastelak | Etxean egindako izozkia

Santiago, 15 | T. 948 580 061 | ELIZONDO
www.malkorra.com

Suteia-Zaldain

instalazioak

IGOGAILUAK

PROFESIONALAK
KALITATE-BERMEA
IRISGARRITASUNA
MANTENTZE LANAK

Ongi pasa bestak!

1 KANPOKO IGOGAILUAK

Kanpoko fatxadan guztiz integratuak. Portal barrutik sarbidea. Inpaktu eta eragozpen minimoak. Mugikortasun arazoak dituzten pertsonentzako sarbidea.

2 BARRUKO IGOGAILUAK

Esailerako tartean integratuak. Sarbidea portal barrutik, inongo oztoporik gabe. Mugikortasun arazoak dituzten eta gurpil-sulkian daudenentzako egokitua.



3 IRISGARRITASUNA

Mugikortasun arazoak dituzten eta gurpil-sulkian daudenentzako portalerako sarbidea egokitzen dugu. Azkar egiten ditugu lanak, eragozpen minimoak sortuz.



EZ ZAITEZTE KEZKATU! Gu arduratuko gara proiektu osoa landu, obra baimenak tramitatu, dirulaguntzen eskaerak egin eta gremioak koordinatzeaz.

Santiago, 73 | ELIZONDO | M 619 424 999 | suteia@suteiazaldain.com

Ongi pasa bestak!

librería
nafarpress
liburudenda

ESKATU ZURE TESTU LIBURUAK

Jaime Urrutia, 43 • 948 580 902 • ELIZONDO



Ongi Pasa Bestak!
Belzunegui
DESDE 1901

Jaime Urrutia 44 • ELIZONDO • Tel.: 948 580 056

A. ETXEBERRIA

PINTURAK

fatxadak barnealdeak
etxebititzak

Ongi pasa bestak!

Akullegi, 6 - 31700 Elizondo
Tel (0034) 607 587 196
etxebeandoni@hotmail.com



Nell Yanci
Maite Irlarte

ASEGURUAK ETA INBIERTSIOAK
HURBILTASUNA ETA KONFIANTZA



Beste prezioak eta dizipuzo!

📍 Santiago 72 R. ELIZONDO
T. 948 58 05 04 📞 669 32 63 33
📧 generalielizondo@hotmail.com

ARKUPE
Txokolataak
-1984-

RURTA
Dukea plaza
T. 948580059
T. 948452021
(Obradorra)

ELIZONDO
Santiago kalea 19
T. 948452393

www.arkupegozategia.com

«Bestetan txupinazoa botatzeko gogotsu nago»

JONE OLAZAR IRIGOIEN
Elizondoko gaztea

Elizondoko 10 urteko neska gaztea da Jone Olazar Irigoien, baina argitu duenez, «11 urte eginen ditut aurten». Futbolearen aritzea eta marraztea gustuko du, eta Lehen Hezkuntzako borzgarren maila akitu berri du eskolan. Natur Zientziak ditu gustukoak, «klasean ematen duguna gustatzen zaidalako». Hala ere, oraindik ez du erabaki etorkizunean zer ikasiko duen.



Izan ere, eskola akituta, udako oporretan pentsatzen ari da orain Olazar, eta argi du zer eginen duen; «lagunekin egon». Eta noski, herriko bestetarako gogotsu dago, eta ez da guttiagorako, txupinazoa botako baitu aurten. Marrazki lehiaketan bere lana izan da aukeratua; «erraldoiak, buruhaundiak, dantzariak, pertsona batzuk trikitixa eta pandereta jotzen

eta haurrak lasterka margotu ditut». Marraztea gustuko badu ere, aitortu duenez, «ez dut aunitzirik marrazten». Talentua daukala behintzat argi utzi du. Santioei begira, «barraketan ibiltzea eta buruhaundien aitzinetik lasterka aritzea» dira bere asmoak. Ongi pasa bestak!



**EGUZKIALDE
OSTATUA**

Ongi Pasa Bestak!!!



Eguneko menua
Errazioak
Entsaladak
Sandwichak
Hamburgerak
Plater konbinatuak
Ogitartekoak

T. 948 45 26 26 - Santiago 43 - ELIZONDO

AXULAR

Fotokopiak, faxa, enkuadernazioak, plastifikazioak, aldizkariak, prentsa, tabakoa eta testu liburuak ekartzen dira enkarguz



Santiago • ELIZONDO • T: 948 581 507

INTZA TABERNA

Ongi
pasa
bestak!

T. 948 580 417



BOKATAK
PINTXOAK
RAZIOAK

Mendi ostatua

Enkarguak hartzen ditugu
bazkari eta afariak

Giro ederra!

T. 948 580 313

lino

linoplaza **arkitektura**

*Besta zoriontsuak
opa dizkizuegu!*



lino plaza y asociados, s.l.p. | Jaime Urutia 36 - 31700 Elizondo (Nafarroa) | tel. 948 58 18 02 | fax. 948 58 14 12 | e-mail. info@linoplaza.com | web. www.linoplaza.com

ALMACO Eraikuntzako materialak

GRUP **GAITIA**



besta zoriontsuak pasa!

Errepide nagusia, Elizondo

Tel: 948 580 104

www.almacobaztan.com



<https://es-la.facebook.com/AlmacoBaztanElizondo>

CARLOS GARAIKOETXEA ETXENIKE abokatua



Dibortziak, herentziak,
alokairuak, alkoholemiak...

T. 948 581 468 | M. 630 354 818
Santiago, 59 2C ELIZONDO

Ongi pasa bestak!

Juli Ostaturu

Gosariak · Bazkariak · Afariak
Etxeko Janaria

Giltzaudi 6, Elizondo.

948 452 462



ANZABAL

inmobiliaria

• Inmobiliaria

Baserri, bonda, posu, etab.
salmenta eta alokairua

• Gestoria

Zurich Aseguruak
Autoa, etxebizitza, ibilguru
eta botza aseguruak

• Lan aholkularitza

Nomina eta Aseguru Sozialak

• Aholkularitza fiskala

Errenta Deklarazioa, BEZA...



Santiago, 15 ELIZONDO • T. 948 530 804
anzabal@anzabal.com • www.anzabal.com



Albaitaritzza

www.albaitaritzza.com

Tfno.: 948 580 980

Materiala

Botika

Hazia

Osagarri mineralak

Bildots eta aratxeendako esnea

Xaboi eta desinfektatzaileak



**Zaldi eta zaldi-zaleentzako
produktuak**

Albaitack

www.albaitack.com

Tfno.: 948 506 169



ALBAIKIDE

Tfno.: 902 169 169



www.albaikide.com

Albaitari zerbitzua



«Kultur taldeek alaitasuna eta bizia ematen diote herriari, eta ezin ditugu galtzen utzi»

ASIER BERTIZ GAZTELUMENDI

Elizondoko gaiteroa

Elizondon bizi den 26 urteko gaztea da Asier Bertiz Gaztelumendi, musika eta mendia zaletasun dituen. Elizondoko Gaiteroak taldeko kide da, eta herrietako bestetan karrikak alaitzen aritzen da gaitaren soinuaz.

Hastapenak

Duela hamar bat urte sartu zen gaitaren munduan, «gaitero aitzinetik txistularia izaki, mundu honetan murgilduta egoteak gaita ikasteko aukera ere eman zidan. Gure kultura eta folkloreaken parte izanda, ezin nion aukerari ezetzik eman».

Aitortu duenez, «ez naiz inoiz aunitz entseatzeko duten horietatik izan, baina orain uda datorrela eta herriko bestak hurbil direla, astean behin edo bitan entseatzeko saiatzen naiz. Hala ere guttitan lortzen dut, ez baitzait gustatzen etxean entseatzeko, inguruko barrideei ez molestatzeko».

Azaldu duenez, «instrumentu guzietan dute bere zailtasuna, baina gogoz eta

ilusioz hartuz gero, erraz hartzen zaio neurria gaitari».

Plazaz plaza

Gaur egun, 6-8 musikari inguruk osatzen dute Elizondoko Gaiteroak, «baita gibeletik ilusioz eta indarrez heldu diren bertze hainbertze ikasle ere». Udan hasi da gaiteroen goienboraldia, eta hainbat bestetan eta ospakizunetan arituko dira jotzen. Hala ere, «modu batera edo bertzerara, urte guzian ibiltzen gara harat eta honat bai txistu eta baita gaitarekin ere».

Bestetatik kanpo ere instrumentu hau plazaratzeko, bailableak jotzen aritu dira azken hilabeteetan Baztango herrietan. «Normalean hilabeteko bigarren igandean jotzen ditugu, bi hilabetetik behin Elizondon, eta gainontzekoetan inguruko herrietan». Jende ugari hurbiltzen da herriko plazara; «kontent gaude herriek ematen diguten harrerarekin, jende dezente agertzen baita gurekin dantzatzera. Giro polita sortzen dela ikusten dugu».



Kultura bizirik mantentzen

Gaitari etorkizun ona ikusten dio Bertizek: «Baztanen behintzat urte batzuetarako badugu. Nafarroan aspalditik ditugu gaiteroak non-nahi, baina Baztanen duela ez aunitz arte ez zen bertako gaiterorik. Kanpotik ekartzen ziren herrietako bestak alaitzeko. Orain berriz gaitero parrasta bat bagara bailaran, gaitaren etorkizuna bermatzeko».

Gaiteroa ez ezik, dantzaria ere bada: «Baztango Dantzariekin ibili izan naiz dantzan duela urte pare bat arte, eta dantzan ikasteaz gain, Nafarroako, Euskal Herriko eta inguruko folklorea ezagutzeko aukera eman dit». Izan ere, «gure folklorea kulturaren parte da, eta talde kulturalak dira herriaren kultura mantentzeko lan egiten duten eragileetako batzuk». Gainera, «modu batean edo bertzean, talde hauek alaitasuna eta bizia ematen diote herriari. Hortaz, ezin ditugu galtzen utzi».

Bestetarako prest

Bestazale amorratua ez den arren, «gustuko dut besta egitea, eta Santioen partaide izaki, eguneko giroaz gozatzeko aukera izaten dut, nahiz eta indarrek uzten duten neurrian gaueko girora ere ailegatzeko garen».

Tikitatik ezagutu du besta giroa; «nire lehen oroitzapenak buruhaundien aitzinetik lasterka ibiltzen dira. Egia erran, inoiz ez zaizkit gehiegi gustatu, baina badakigu zer gertatzen den lasterkerik egiten ez bada...».



FESTAK.COM

Gaur egun, berriz, «Santio eguneko Elizondoko bandaren eta konpartsaren kalejirarekin eta plazako giroarekin» disfrutatzen du, eta «azkeneko egunean jotzen ditugun bailableak ere azpimarratuko nituzke». Hala ere, «bestetako jarduera bat aukeratu beharko banu, azken eguneko zikiro jatea eta ondotik txarangarekin izaten den kalejira aukeratuko nituzke».

Herriko bestek «lagunartean egoteko aukera ematen dute, eta hori da gehien baloratzen dudana. Elizondoar guziei eta herrira bestetara hurbiltzen zareten horiei ere, besta ederrak pasa eta behar bezala ospatu! Gora Santioak!».

idolo orelea
Inoiz baino gehiago! | mugilaje berriak

Urepe plaza, 7 Elizondo | T 948 580 390 | www.idoloarteiza.com



Errotulazioan eta diseinuan aritzen gara. Egin nahi duzun proiekturako hainbat proposamen ditugu eskaintzeko, eta hori gauzatzen lagunduko dizugu.

- Kristalak tindatzea
- Autoek errotulatzeko
- Inprimatze digitala
- 3Dko kartel argidunak
- Eranskailuak eta kartelak personalizatzea
- Lokalak errotulatzeko
- Kanpo seinaleak
- Publizitate-olanak
- Bisita-bartelak, albaranak, etab.

☎ 948 58 09 77 ☑ 647 00 63 36
Pol. Ind. Zaldubia, 1
31730 Iruñita (Nafarroa)



ferreteria Quevedo burdindegia



Santiago, 31 ELIZONDO (Nafarroa)
Tel.: 948 580 234
info@ferreteriaquevedo.com
www.ferreteriaquevedo.com

Natura Elxea

BELAR-DENDA ETA DIETETIKA



ONGI PASA BESTAKI

SANTIAGO, 47 ELIZONDO T. 948 580 203

Ongi pasa bestak!

helvetia

ASEGURUAK

Tratu pertsonala,
zure beharrianak asetzeko,
konpromisoa eta segurtasuna,
pertsona erabakigarriak.

Santiago, 78 - ELIZONDO
T. 948 45 25 29 - M. 628 35 71 38
jfagoagaleiza@gmail.com

Autxitxia

GASNATEGIA-QUESERIA

Bertan egindako ardi gasna

Behi eta ahuntz gasnak saltzeko

Zenderena

Gaztanbera

Ongi
pasa
bestak!

Jaime Urutia, 32 - ELIZONDO
948 45 57 30
autxitxia@gmail.com



BAZTAN
ZAPOREAK

asegi asesorias

Zergalan

- Kontabilitate zerbitzuak
 - Zerbitzu fiskalak
 - Lan-aholkularitza
 - Aholkularitza juridikoa
 - Herentzia eta Testamentuak
 - Laneko Arriskuen Prebentziorako Zerbitzua
 - Datuen babesa
 - Mugaz bertze aldeko aitortpenen kudeaketa (langileak eta enpresak)
- www.zergalan.es | zergalan@asegi.es
www.asegi.com

| | | | |
|--|--|--|--|
| Bastanberr plaza, 6 31700 ELIZONDO T. 948 581 300 - F. 948 580 648 | Eztegara, 22-1 31780 BERA T. 948 631 108 | Elsa, 22 31740 DONEZTEBE T. 948 450 395 - F. 948 451 304 | Ebarta, 20 31770 LESAKA T. 948 638 077 |
|--|--|--|--|

elicitxe

suministros electricos

material elektrikoak

ongi pasa bestak!

Tel. 948 581 261 Faxa: 948 452 397
Santiago, 83 Ind. - ELIZONDO
elicitxe@elicitxe.es
www.elicitxe.es

ANTXITONEA

Trinketea



23 logela bainuarekin - Aparkalekua - Aire girotua eta telebista gela guztietan
Gela berezia sukalde eta hotel zerbitzuarekin



Herri edo-erdi. Baztan errakaren ondoan

Ongi pasa bestak!

Beaulio Iriarte, 16 - ELIZONDO - 948 581 8070 - hostal@antxitonea.com - www.antxitonea.com

Ze goxoa

FRUTAK FRUTAS
BARAZKIAK VERDURAS

ELIZONDO

Santiago, 47
t. 948 580 859

DONEZTEBE

Zazpigorutze, 4
t. 948 451 332

LEITZA

Landabekoa, 2
t. 948 610 612

LESACA

Plaza Zaharra, 17
t. 948 637 294

BERA

Kanttonberri, 3
t. 948 630 381

Besta onak opa
dirizkizuegu!

«Gehien gustatzen zaidana egitea eta jendeak disfrutatzen duela ikustea ikaragarria da»

AIMAR OSKARIZ URSUEGI
DJ Aimar

Elizondoko 27 urteko gaztea da Aimar Oskariz Ursuegi. Musika estilo guztiak aditza du gustuko, «baina batez ere elektronikoa». Zaletasun honek eraman zuen DJ izatera: «beti gustatu izan zait musika, baina 15 urterekin piztu zitzaidan musika elektronikorako interesa, eta nire kabuz saltsatzen hasi nintzen. Kontroladore tiki bat erosi nuen eta etxeko ordenagailuarekin kantak nahasten nituen». Hasmentan lagunarteko kontua izan zen; «gure arteko afariak eta bestak egiten genuenean paratzen nuen musika».



Etiket plaza

2015ean izan zuen bere musika plazaratzeko lehen aukera: «Elizondoko Gazte Egunean gaztetxean aritzea proposatu zidaten eta animatu nintzen. Tech House musika paratzen nuen orduan. Musika elektronikoa berritasun bat zen, ez baitzen hain zabaldua». Horren ondotik «Doneztebeko Cafetik "The moment" saiorako deitu zidaten, eta han ezagutu nituen inguruko bertze DJ batzuk. Nire nahasketak gustatu zitzaizkien, eta Iruñeko diskoteketatik deitzen hasi ziren». 2017an Elizondoko Lur aretoko DJ egin zuten; «Lesakako Ion Gurutxetekin batera».

Hasiera hartatik aunitz aldatu da afera; «hobby gisa hasi nintzen, gustatzen

zitzaidalako, eta ez nuen espero herriko plazetan eta diskoteketan musika paratzen akituko nuenik».

Gaur egun Nafarroa osoan egiten du lan; Elizondon, Iruñean, Tafallan... «gehienbat musika elektronikoa paratzen dut, Techno eta Hard Techno, baina noizbehinka ezkontzetarako eta dantzaldietarako ere deitzen didate».

Hasi zenetik denbora pasatu bada ere, «eszenatokira igo aitzinetik urduri egoten naiz beti, urteekin aldatu ez den sententzia da hori. Dena ongi ateratzea nahi izaten dut eta tentsio puntu hori hor egoten da. Batez ere plaza edo areto handia baldin bada, burua goratu eta jendetza ikustean. Ez naiz sententzia horretara jartzen».

Gureaut
TAILERRAK

Mekanika, elektrizitatea, ibilgailuen salerosketa

ONGI PASA BESTAK!

Zaldubia industrialdea | 31730 Iruñita
Tel.: 948 580 225 - M. 619 328 145
gureauto2@gmail.com

ONGI PASA BESTAK!

Maite
Petirena

Aseguru agentzia

Allianz

Saskaitz plaza - ELIZONDO
Tel. 948 452 394
teresa.petirena@allianzmed.es

JOSEPHINE'S
20 ENGLISH 15
BIZTAN

Pedro Anbar, 2 Elizondo



ongi
pasa
bestak!

BERTANO IRANASLEA

Matrikula irekita abuztuaren 31ra arte

Lehen hezkuntza
DBH eta Batxilergoa (B1 eta B2)

Christina Irigoyen ☎ 637 176 572 ✉ josephinesenglish@gmail.com

ONGI PASA BESTAK!



LABORRA
ARKITEKTOAK
- Gabriel & Ines -

www.laborra.com

gabriel@laborra.com
Santago 66, 1º ELIZONDO 948.580.122



arteka
arkitektura architecture

Tel. 948580610 Plaza. Dr. Balda 1º. 1.º
info@artekabaztan.com 31700. Elizondo Baztan
www.artekabaztan.com

ESKISAROI

J A T E T X E A

T 948 580 013
Jaime Urutia 40 31700 Elizondo
www.eskisaroi.eus

Ongi
pasa
bestak!

BC BALLARENA ERAIKUNTZAK

ELEKTRIZITATEA

Instalazio berriak | Berritzeak

Argindar fakturan aurreztu nahi?



delegatuak gara

**LAN GUZTIETAZ
ARDURATZEN GARA:**
teilatuak, zaharberitzeak,
elektrizitatea, kalefakzioa,
pladur lanak, iturgintza, etab.



Mortero tematikoarekin fatxadak jantzi eta erabat
itxuraldatzen ditugu aintzinako etxebizitzan
tradizioa mantenduz



Abartan, 22 behea ELIZONDO

T. 948 452 395 - M 647 688 988 / 647 688 982

www.ballarenaconstruccion.com



Hala ere, «musikarekin hasi eta urduritasuna pasatzean, pila bat disfrutatzen dut. Azaldu ezineko sententzia da, gehien gustatzen zaidana egiten ari zena eta jendea gustatzen zaiola eta erantzun ona duela ikusteak. Arras polita da. Honengatik segitzen dut musikarekin».

DJ lana igeltsero lanarekin uztartzen du; «musikatik bizitzea zaila da, eta Euskal Herri edo estatu mailan gehiago. Egia da elektronikaren kultura zabaltzen ari dela, orain arte gehienbat musika komertziala aditzen baitzen, baina ez da erraza. Hala ere, kontent nago egindako ibilbidearekin».

Bestetarako gogotsu

Elizondoko bestetan musika paratzeko deitu izan diote urte luzez, «baina joan den urtean saioa nik antolatzea erabaki nuen, udalaren laguntzarekin. Inguruko DJ lagunei deitu nien eta jaialdi tiki

bat egin genuen. Bestetan musika elektronikoa aditzeko aukera eman nahi nien herritarrei, eta jendea gustatu zitzaioela ikusita aurten ere egiten dugu». 24ko gauean egiten dute saioa; «lehenbiziko eguna denez, jendeak gogarekin hartzen du. Gainera, saioa

gutziz debalde da eta musika elektronikoa gustuko duten guztiendako irekia».

Baina musika ez ezik, gaztetatik gustuko izan du besta eta gaueko giroa ere. «Santioetan gehien gustatzen

zaidana kuadrillen eguna da, lagun dezente biltzen gara eta herriko gazte gehienak ezagutzen ditugunez, polita da denak elkartzea».

Norberaren herriko bestak dira beti berezienak, eta Oskarizen kasuan ere hala da; «urteko besta hoberenetarikoa dira niretako. Urte osoan ikusi ez ditudanekin egoteko eta disfrutatzeko aukera ematen dute».

**«Urte osoan ikusi
ez ditudanekin
egoteko eta
disfrutatzeko
aukera ematen
dute bestek»**



Ongi pasa bestak!!

**BB BOK BAT
TALLERES**

Cub Cadet

Distribuidor oficial

ENDURO SERIES

www.biokbat.com • ELIZONDO • Tel. (0034) 948 580 898

ONGI PASA BESTAK!



LABAYEN OSTATUA

Etxeko janari goxoa
Zatortel eta on egin!

Santiago - ELIZONDO
948 580 338

Gonzalez anaiak
aroztegi metalikoa

Burdina eta aluminioa

F. Joakin Iriarte, 5
Tfnua: 948 580 337
ELIZONDO

Goizalde ostatua



Ongi pasa bestak!!




Pintxoak
 Egunko menuak
 Karta
 Plater konbinatuak
 Ogiartekoak
 Embuladak
 Harburgesak
 Emazuloak

Jalea Urretia # - ELIZONDO - Tel.: +34 948 58 13 34 - goizaldeostatua.com

Zuri
Diseinua eta Marketing



Estetika aurreratua - Aurpegiko eta gorputzeko bioterapiak - Presoterapia - Manikura - Pedicura

eta askoz ere tratamendu personalizatu gehiago eskaintzen dizkizugu!

Ongi pasa bestak!

Santiago, 59 behea - Elizondo
Tel. 948 10 32 00 - M. 676 14 00 81

KULTURKARI
Diseinu grafikoak | Publikitateak

Zure jatetxeko diseinuarekin menuak, kartak, mahai-oihalak, musuzapiak, baso-azpikoak, etab. pertsonalizatzen ditugu

kulturkari.com

GENERALI MAÑONEA SEGUROS S.L. Agentzia



ONGI PASA BESTAK!

mañonea
ASEGURUAK AGENTZIA

ASEGURUAK

AGENTE ESCLUSIBOA
Eregistro Zela: C0072871193004

www.mañonea.com

Kontable, zerga, lan eta juridiko
AHOLKULARITZA
Barride **KOMUNITATEEN KUDEAKETA**
(administrazioa, kontuak...).

Braulio Iriarte karrika, 9
ELIZONDO BAZTAN - NAFARROA
T. 948 58 11 32 - 606 89 68 43
info@mañonea.com

EROSKI city **ELIZONDO** Foru plaza, 3 ELIZONDO T. 948 580 005



Astelehenetik larunbatera 09:00-21:00

BEAARRAINDEGIA **esarte**



ETXERA ERAMATEKO ZERBITZUA

Udal ordezkariak ardurak banatu dituzte

Dabid Anaut alkateak dedikazio osoa izanen du eta Maider Amantegi zinegotziak dedikazio erdia

TTIPI-TTAPA

Karguak hartuta eta ardurak banatuta, martxan da udala. Dabid Anaut alkatea dedikazio osoan ariko da eta alkatetzari dagozkion gaiez arduratuko da: hirigintza, ogasuna, barne antolamendua, herriko mantentze lanak, inbertsioak eta obrak, mugikortasuna, turismoa eta nazio mailako erakundeak.

Maider Amantegi zinegotziak, berriz, dedikazio erdia izanen du eta zaintza, berdintasuna eta aniztasuna izanen dira bere alorrak. Xabier Gartzia zinegotzia ingurumenaz, lehen sektoreaz eta gazteez arduratuko da eta Itxaro Zabaleta komunikazioaz. Bittorio Lizarragarren alorra mendia izanen da eta Aintzane Arraizarenak euskara eta hezkuntza. Iñaki Zabalok kirola eta kultura hartu ditu bere gain eta Xabat Illarregi gazteez arduratuko da. Mikel Zabaleta transmisioan eta hirigintzan ariko da.

Kontu batzorde berezia Dabid Anaut alkateak eta Maider Amantegi, Bittorio Lizarraga, Aintzane Arraiza eta Silvestre

Zubitur zinegotziek osatuko dute.

Mankomunitateak eta udalez gaidiko organoak

Mankomunitateetako eta udalez gaidiko organoetako ordezkarien izendapenak ere zehaztu dituzte. Horren arabera, Cedema Garalurelartean Dabid Anaut izanen da ordezkari eta Bittorio Lizarraga ordeko.

Plazaola Partzuergo Turistikoan Dabid Anaut eta Iñaki Zabalo ibiliko dira eta Maider Amantegi ordeko izanen da.

Aralar Musika Eskolako bi ordezkariak Maider Amantegi eta Bittorio Lizarraga izanen dira eta ordekoak Aintzane Arraiza.

UEMAN hiru ordezkari hautatu dituzte: Aintzane Arraiza, Bittorio Lizarraga eta Dabid Anaut eta ordekoak Xabier Gartzia, Itxaro Zabaleta eta Iñaki Zabalo.

Euskara Mankomunitatean beste hiru ordezkari izendatu dituzte: Aintzane Arraiza, Bittorio Lizarraga eta Xabat Illarregi eta ordekoak beste hiru:

Mikel Zabaleta, Itxaro Zabaleta eta Maider Amantegi.

Oinarrizko Gizarte Zerbitzuetan zazpi ordezkari ariko dira: Maider Amantegi, Xabier Gartzia, Itxaro Zabaleta, Aintzane Arraiza, Iñaki Zabalo, Xabat Illarregi eta Mikel Zabaleta. Kasu honetan, Bittorio Lizarraga ordeko izanen da.

Hezkuntza kontseiluan bi zinegotzi sartuko dira: Aintzane Arraiza eta Maider Amantegi. Eta Xabier Gartzia eta Itxaro Zabaleta beraien ordekoak izanen dira.

Osasun kontseiluko ordezkari Maider Amantegi izendatu dute eta Aintzane Arraiza bere ordeko.

Okilleko jarraipen batzordean Dabid Anaut ibiliko da eta Mikel Zabaleta izanen da ordeko.

Mendialdea Mankomunitateak ere ordekaritza zabaldu izanen du: Dabid Anaut, Xabier Gartzia, Itxaro Zabaleta, Iñaki Zabalo, Xabat Illarregi eta Mikel Zabaleta. Ordekoak Maider Amantegi eta Bittorio Lizarraga izanen dira.

Nafarroako Udalen eta Kontzejuen Federazioan, Animsan, Udalbiltzan eta Euskal Fondoan Dabid Anaut izanen da ordezkari eta ordekoak Maider Amantegi, Iñaki Zabalo, Xabat Illarregi eta Maider Amantegi, hurrenez hurren.

Anikoteko administrazio kontseiluan beste bost ordezkari hautatu dituzte: Dabid Anaut, Xabier Gartzia, Bittorio Lizarraga, Iñaki Zabalo eta Xabat Illarregi.

130 neska-mutiko udako tailerretan eta haur txokoan

Uztailaren 28ra bitarteko goizak udako tailerretan eta txokoan pasatuko dituzte herriko neska-mutiko askok. Zehazki, haur txokoan 36 lagunek eman dute izena eta tailerretan 94 haurrek. Uztailaren 3az geroztik biltzen dira, eta hamar bat begirale dituzte beraiekin.

Leitzulia BTT proban izena emateko epea zabalik

Aurrera Kirol Elkarteko Mendibil BTT batzordeak antolatuta, Leitzulia mendi bizikleta proba irailaren 30ean izanen da. Izena emateko epea zabalik da eta irailaren 15eko 12:00 arte egiten ahal izanen da kirolprobak.com atarian. 25 euro ordaindu beharko dira eta gehienez 350 parte hartzaile onartuko dituzte. Parte hartzaileek 18 urteak beteak izan beharko dituzte. Lasterketa 09:00etan plazatik abiatuko da eta 15:00etan toki berean izanen du helmuga. Bestalde, antolatzaileek probaren hasierako tartea arautuko dute, martxa neutralizatu gisa; hasieran herriko hainbat kale zeharkatuko dituztelako eginen dute horrela. Antolatzaileen hitzetan, «modu honetara pilaketak eta erorketak ekidin nahi dira».

San Juan bezperan jendetza: mila lagun plazan

Itxura ederra hartu zuen plazak San Juan bezperan. Herri afarian mila lagun inguru bildu ziren, eta aurretik umeez dotore dantzatu zuten ingurutxoak. Gauerdian, berriz, suak piztu zituzten.



JULIAN ZABALETA



Ireki zutenetik herritar asko hurbildu dira Inguruartera. JUNKAL OTXOTORENA

Inguruarteko aisialdi gunea herritarren gozamenerako prest

Eremua zaintzeko eskatu du udalak, baita kontuan hartzeko zenbait ohar jakinarazi ere

TTIPI-TTAPA

Ekainaren 30ean egin zuten Inguruarte aisialdi gunearen irekiera ekitaldia, pumtrackeko monitore espezializatu eta guzti. Gunea denon gozamerako izatea nahi du udalak, eta hala izaten ari da ireki zutenetik. Horrekin batera, eremua zaintzeko eskatu eta kontuan hartzeko zenbait ohar ere jakinarazi ditu.

Besteak beste, adingabeek gunearen erabilera egitea helduen ardura izanen da eta txakurraren ardura ere jabeak izanen du. Ekipamendua, hiri altzariak eta zuhaitzak errespe-

tatzeko eskatu du eta eremuan zaborrontzirik ez dagoenez, hondakinak bueltan eraman beharko dira. Gainerakoan, motordun ibilgailuak sartzea eta kanpatzea debekatua dago.

Pumtrackaren erabilerari dagokionez, kaskoa erabiltzea derrigorrezkoa da eta segurtasun distantzia eta zirkuituaren norabidea errespetatu behar dira. 10 urtetik beherakoek helduek gainbegiratura ibili behar dute eta gunean bezala, ibilgailu motordunekin ibiltzea galarazia dago, baita txakurrekin sartzea eta zirkuituan oinez ibiltzea ere.

Jon Egizabal Nafarroako txapeldun

Ekainaren 18an, Zangozan mendi bizikletako Rural Kutxa Kopa jokatu zuten eta junior kategorian Nafarroako txapeldun izan zen Iturrotz Saltoki taldean ari den Jon Egizabal Sagastibeltza herritarra. Zorionak!



ANE EGIZABAL



AGUSTIN ARANBURU

Gorritarango Eguna ekitaldiz betea

Uztailaren 2an ospatu zuten Gorritarango Eguna. Goizean, herri kirolean aritu ziren eta eguerdian mahaiaren bueltan bildu ziren. Arratsaldean, besteak beste, mus txapelketa eta txintxurrin txapelketak jokatu zituzten eta azken horretan Itxaro Zabaleta eta Jon Ander Zabaleta izan ziren nagusi.



ELENA ARTETA

Indarkeriarik gabeko komunikazioa

Indarkeriarik gabeko komunikazioa lantzeko tailerra egin zuten joan den ekainaren 28ko goizean liburutegian. Lau urtetik gorako haurrak bildu ziren *Hitzaztanak* izeneko saiora eta hainbat kontu interesgarri ikasteko aukera izan zuten.



Bizikleten salmenta eta konponketa.

📍 Kantfonberri, 1 | BERA

☎ T. 948 631 218

✉ joxemi@kateabike.com

🌐 www.kateabike.com

ORBEA
PINARELLO
moustache
MOOTV

BERGAMONT
BH
LAPIERRE
MERIDA

«Madrilen gertatuko denak Nafarroan eragin handia izan dezake»

MIKEL ZABALETA ARAMENDIA LEITZAKO ALKATE OHIA ETA NAFARROAKO PARLAMENTARIA

Bi agintaldi egin ditu Leitzako alkate, eta orain Nafarroako parlamentari kargua hartu du. Zinegotzi izaten ere jarraituko du, «errelebo ordenatua eta txukuna egiten laguntzeko»

G. PIKABEA

«Gaztetatik» izan omen du «gai politiko eta sozialekiko ardura eta interesa», eta EH Bilduk Leitzako alkategai aurkezteko proposamena egin zionean, «denbora eta hausnarketa dezenteren ondoren», pausoa ematea erabaki zuen Mikel Zabaleta Aramendiak (Leitza, 1981). Bi agintaldi egin ditu alkate eta «gauza on asko» atera dituela dio. Azken hauteskunde ondoan, ordea, beste erronka bati heldu dio; batetik, zinegotzi izatera pasatu da, eta bestetik, Nafarroako parlamentari kargua hartu du. Zortzi urte hauek emandakoez, hemendik aurrera datorrenaz, egindakoez eta egitekoez mintzatu da.

Zergatik aurkeztu zinen alkate izateko hautagai?

Oso gaztetatik sentitu izan dut gai politiko eta sozialekiko ardura eta interesa. Gaztetatik izan naiz hainbat alorretan militante eta, eskaini zidatenean pausoa emateko denbora eta hausnarketa dezente behar izan banituen ere, herrigintzan bete-betean murgiltzea erabaki nuen, ikasteko eta ahal nuen guztia emateko prest.

Bi agintalditan Leitzako alkate. Zer balorazio egiten zenuke?

Balorazioa oso positiboa izan da, bai emaitzei dagokien ere, baita ikuspegi pertsonalean ere. Bi agintaldietan, hartutako konpromiso gehienak betetzea lortu dugu eta sortu diren hainbat aukera eta erronka berri ere landu eta gauzatu ditugu. Arlo

pertsonalean, lankideekin eta udal taldeko kideekin egindako harremanak, ikasitako guztia, herria sakon ezagutzeko aukera... Gauza on asko atera ditut. **Bidea zaila edo erraza izan da?**

Ardura guztiak behar bezala eta nahi bezala ongi betetzea ez da erraza eta, ezohiko gertakizunak suertatzean zailagoa egiten da. Baina lanerako gogoia eta ilusioa izanez gero, egingarria da.

Eskualdean hainbat proiektu abiatu dituzue. Eskualde mailan lan egitea garrantzitsua dela uste duzu?

Eskualdea gero eta pisu handiagoa hartzen ari da eta pozgarria iruditzen zait. Duela urte batzuk, zerbitzuak mankomunatzeko elkartu ginen eskualdeko udalak eta, orain, ziurgabetasuna nagusi den eta erronka handiak bizi ditugun garaiotan, garapen jasangarrian aurrera egiteko elkartzen ari gara, gero eta gehiago. Elikadura arloan, energian, aktibazio sozioekonomikoan... Badira hainbat arlo, elkarrekin eta eskualde mailan hobeki landuko ditugunak. Erronka oso handiak ditugu eta neurriko alternatibak lantzeko beharrezkoak dira eskualde mailako hausnarketak eta elkarlanak.

Eta herri mailan udalak egindakotik zer nabarmenduko zenuke?

«**HERRITARREKIN ELKARLANA EZINBESTEKOA DA**»

Zaila da bat edo bakar batzuk aukeratzea. Lan asko eta esfortzu asko kosta diren hamaika proiektu garatu baititugu: Anikote kirol enpresa publikoa sortu, Herri Aretoa martxan jarri, Mimukai zentroa, azpiegituretan inbertsio asko... Halere, beharbada, ikusten ez diren lanketak izan dira gehien markatu nautenak, herritarrekin eta eragileekin izandako elkarlana, esaterako: hezkuntza komunitatearekin, herriko eragileekin, baserriarekin edo dendariekin eskuz esku aritu gara eta elkarlan horietatik makina bat proiektu eta ekimen atera dira. Herritarrekin elkarlan hori ezinbestekoa da herri bizia izaten jarraitzeko.

Zein dira Leitzaren indarguneak eta ahulguneak?

Indargune garrantzitsu bat herriko eragileek, taldeek eta elkarrekin sortzen duten sarea da. Horrek sortzen duen mugimendua eta bizitasuna ikaragarria da, potentzial handia du maila guztietan lanean aritzeko. Komunitate sendoa eta nortasun handikoa du Leitzak. Ahulguneei dagokienez, badira zenbait zerbitzu publiko hobetu beharrezkoak, aspaldi aldarrikatu ditugunak: garraio publiko es-

«**POLITIKAGINTZA EZ DUT LANBIDE GISA ULERTZEN**»

kasa dugu, osasun etxe berria behar dugu, hirugarren adinekoentzat ez dago ia zerbitzu publikorik...

Eta erronka nagusiak?

Nire ikuspegitik, agintaldi honetan erronka nagusia herri programan azaltzen diren hainbat proiektu gauzatea da: liburutegi berria, Plazaolako geltoki zaharra birgaitu eta aterpetxea egitea, Mimukai proiektu sendotzea eta bigarren faserako finantziarioa lortzea, futbol zelaiko belar artifiziala...

Arantzarik gelditu zaizu?

Orokorrean ez. Herrigintza amaitzen ez den lana izanik, beti gertatuko dira amaitu gabeko proiektu eta asmoak. Ahal dudana guztia saiatu banaiz ere, denak bezala, hanka sartu izan dut noiz edo noiz eta bertsolariek dioten moduan, «gaizki esanak/eginak barkatu, eta ongi esanak/eginak gogoan hartu». **Etorkezunean nolako Leitza nahiko zenuke?**

Herri bizia izaten segitzea nahi nuke, parte hartzailea, euskalduna, berdinzalea, nortasuna mantenduko duena eta bertatik bertara proiektuak sortzen jarraitzeko ahalmena duena. Zerbitzu eta azpiegitura duinak dituen; etxebizitza eta lanerako aukera duinekin. Azken finean, komunitate sendoa osatzen duen herria nahiko nuke, gustura bizitzeko modukoa.

Agintaldi honetan zinegotzi segituko duzu. Zer ardura hartuko duzu?

Batik bat, errelebo ordenatu eta txukuna egitearen erronka hartu dut. Taldea ia guztiz berria da, ilusioz betea eta horri aurreko urteetan metatutako esperientzia gehitzen saiatuko naiz.

Parlamentura begira ere jarri zara. Zaila izan da pausoa ematea?

Ardura handia da, eta parlamentuko zerrendan joateko proposamena egin zidatenean, etxeokoa hitz egin eta erabakia hartu aurretik denbora behar izan nuen, bai.

Zerrendan bederatzigarren aurkeztuta, espero zenuen?

Pentsatzen nuen emaitzak hobetuko genituela, baina egia aitortzeko, ez nuen pentsatzen

bederatzigarren parlamentaria aterako genuenik.

Parlamentari eta zinegotzi. Nola uztartuko dituzu?

Udaleko nire ardura trantsizio ordenatu bat egiten laguntzea denez eta ez ditudanez arlo jakin batzuk hartuko, udaleko dedikazio denbora neurtu ahal izanen dut. Parlamentuko egin-kizunek uzten didaten heinean egingen dut ekarpena udalean.

Eskualdean lehenbiziko indarra izan da EH Bildu eta Nafarroan hirugarrena izatera pasatu da. Zer erakusten du horrek?

EH Bilduko proiektua gero eta babes handiagoa jasotzen ari da herritarrengandik eta nik uste noranzko hori ez dela epe motzeko gauza, oinarri sendoa duen joera dela. Gaur Hego Euskal Herrian lehen indar municipalista gara, Nafarroako Parlamentuan hirugarren indarra izatera pasa gara eta eskualdean gehiengo argia dugu. Babes gehiago lortzeak eraginkortasun handiagoa eman dio EH Bilduri; eraginkortasun handiagoa izateak politika publikoetan ondorio positiboak ekarri ditu eta horrek, berriz ere, herritarren babesa handitzea dakar. Horrela, herritarren bizitzak hobetzeko balio duen zikloa elikatzen da. Horregatik uste dut joera honek ibilbide luzea duela aurretik.

Nafarroako Gobernua osatzeko negoziatioak nola ikusten dituzu?

Argi ikusten dut uztailaren 23ko hauteskundeak pasa arte, gaur egun gobernua osatzen duten zenbait alderdik ez dutela akordiorik itxiko, eta Madrilen gertatuko denak eragin handia izan lezakeela Nafarroako Gobernua osatzeko akordioan.

Gobernua osatzeko formularik bidezkoena zein izanen litzateke?

Nafarroako Parlamentuan eskuinak eta muturreko eskuinak ez gobernatzeko adina indar eta ordezkeri badago eta, honenbestez, espero dut bestelako formula aurrerakoiak aurrera egitea. Bide horretan, EH Bildu ezinbestekoa da eskuinaren alternatibak osatzeko eta, orain batzuk kontrakoa esaten



Mikel Zabaleta Aramendiak uztailaren 23an botoa emateko deia egin du. EH BILDU

badute ere, lehenago edo beranduago gurekin hitz egin eta negoziatu beharko dute, bide horretatik joan nahi badute.

Uztailaren 23ko hauteskundeak ate joka dira. Zer espero duzu?

Estatuan maiatzaren 28ko hauteskundeek utzi duten argazkia oso bestelakoa izan da. Joera hori datozen hauteskundeetan baieztatuko balitz, garai gogorrak etor litezke. Muturreko eskuina politikaren norabidea asko ari da baldintzatzen estatu mailan eta horrek ondorio latzak ekar ditzake, eskubideen arloan, zerbitzu publikoen arloan eta askatasun politikoetan. Espero dut Euskal Herrian fronte antifaxista EH Bilduren bueltan indartzea eta, beste alderdi independentista eta indar au-

rerakoiekin batera, eskuina eta eskuin muturra gelditzea, herritar guztion bizitzak hobetzen dituen politikak egiten jarraitzeko Madrilen ere. Madrilen erabakitzen denak eragin zuzena du gure egunerokotasunean.

Etorkizunean non ikusten duzu zeure burua? Politikagintzan?

Politikagintza ez dut lanbide edo karrera profesional gisa ulertzen. Ziklo hau ere amaituko da eta beste zerbait egingen dut ondoren. Ez dut anbizio pertsonal handirik; duin bizitzeko aukera emanen didan lan bat izatearekin nahikoa nuke. Posible balitz, gizarteari ekarpen positiboren bat egiten dion proiekturen batean parte izatea gustatuko litzaidake.

Zein mezu luzatuko zenuke?

Uztailaren 23an botoa eman dezatela. Ez badugu ematen, beste batzuk erabakiko dute gure izenean eta posible da ondorioekin ados ez egotea eta eragin handikoak izatea. Posta bidez edo zuzenean, baina denok eman behar genuke botoa. Bestetik, Askotan estatu mailako komunikabideetan badi-rudi hauteskunde presidentzialistak direla eta aukera bakarra Sanchez edo Feijoo dela. Baina ez da horrela. Ez da sistema presidentzialista, parlamentarioa baizik. Hortaz, Nafarroan hautatzen ditugun bost ordezkarrietatik, Bel Pozuetak jasotako babesa areagotzea oso garrantzitsua da, hori baita bermea nafarrok eta oro har, herritarrok aldeko neurriak lortzeko.



Igeriketa ikastaroan ari den txikien taldea. LEIRE MUTUBERRIA

Igeriketa eta marrazketa ikastaroak udan

59 umek eman dute izena igeriketa ikastaroan eta 25ek marrazketan

TTIPI-TTAPA

Aurten ere erantzun ona izan dute guraso elkarteak udari begira antolatu dituen ikastaroek. Hiru eta hamalau urte bitarteko neska-mutikoentzako bi ikastaro atera ditu aurrera: alde batetik, astelehenetik ostegunera, igeriketa ikastaroa eta bestetik, ostiraletan marrazketa ikastaroa.

Igeriketa

Uztailean sartzearekin batera, neska-mutikoek joan den astean hasi zituzten ikastaroak. Zehazki, uztailaren 3an hasi ziren igeriketarekin, eta lau

astez, uztailaren 27ra bitarte, astelehenetik ostegunera, Hernaniko kiroldegira joanen dira. 59 ume apuntatu dira, iaz baino gehiago, eta erantzuna ikusita, bi autobus antolatu dituzte joan-etorria egiteko. Gurasoak txandak egin dituzte umeekin ibiltzeko.

Marrazketa

Aurtengo berrikuntza, hala ere, marrazketa ikastaroa izan da. Kasu honetan, 25 umek eman dute izena eta ostiralgoizetan egiten dute hitzordua, Olatz Apezetxea herritarra dute marrazketa saioko irakaslea.

Liburutegi ibiltaria ostiral honetan hurbilduko da

Ikasturte honetako azken geldialdia ostiral honetan, hilaren 14an, egingen du liburutegi ibiltariak. Liburuak esku artean hartuta hurbilduko da Elena Arteta Leitzako liburuzaina, eta 11:00etatik 12:00etara bertan izanen da. Irailean bueltatuko da berriz liburutegi ibiltaria.



Martxoko liburutegi ibiltaria. ELENA ARTETA

Karmen bezperako festa larunbat iluntzean

Hutsik egin gabe, Karmen bezperako festa antolatu du aurtegoan ere Umore Ona elkarteak. Larunbat honetan, uztailaren 15ean, izanen da.

Iluntzean plazan bilduko dira eta afari herrikoa egingen dute. Ohi bezala, elkarteak mahaiaik eta aulkiak jarriko ditu nahi duenaren eskura, baita edariak ere, eta jatekoa norberak eraman beharko du.

Afalondoren, sua piztuko dute plazan bertan eta nahi duenak su gainean saltoka ibiltzeko aukera izanen du.

Goizueta eta Leizta arteko errepidea itxita lanak egiteko

Lurralde Kohesiorako Departamentuak, Herri Lan eta Azpiegituren Zuzendaritza Nagusiaren bitartez, 360.518 eurotan esleitu ditu Leizta eta Goizueta arteko NA-4150 errepidean bi bihurgune hobetzeko obrak. Zehazki, 4+780 eta 4+970 puntu kilometrikoetan dauden bihurguneak zabalduko dituzte eta lanak egiteko hiru hilabeteko epea izanen dute. Obrek trafikoa eragina izanen dute eta uztailaren 17tik aurrera, hilabete eta erdiz trafikoa erabat moztuko dutela iragarri dute.



Txondorra atera zuten egunean txondorgileak gosaltzen. TXONDORGILEAK

1.500 kilo inguru ikatz atera dituzte txondorretik

TTIPI-TTAPA

Ekainaren 3an piztutako txondorretik ikatza ateratzeko eguna izan zen uztailaren 1a. 1.500 kilo inguru ikatz atera zituzten eta txondorgileen taldeko Fernando Goiak TTIPI-TTAPARI kontatu dionez, emaitzarekin «arrunt gustura» gelditu dira. «Gure helburua txondorra egin eta sua behean azaltzea zen, eta esaten genuen zaku bat aterata ere positiboa izanen litzatekeela». Garbi utzi nahi izan du «helburua ez dela negozioa egitea; garai batean Goizuetan garrantzi handia izan zuen ogibide bat ondoren-

goei erakustea baizik». Eta horretan saiatu dira.

Emaitzaren gainetik, egindako bidea nabarmendu du txondorgileak, hau da, «zer bizitasun eman dion herriari eta zer giro sortu den txondorraren bueltan. Jende pila etorri da bisitan eta adin guzietako jendea elkartu gara». Hain zuzen horixe da bere hitzetan, «aberagarriena»: «hainbat adinetako jendea bilduta sortu dugun familia giroa».

Bildutako ikatza saltzeko asmoa dute txondorgileek, baina lerro hauek idazterakoan oraindik ez zuten erabakia «noiz eta nola saldu».



deceuninck



Erosotasunaz gu arduratuko gara ...



Elegant **ThermoFibra** Infinity
Uf (W/m²k) **0,85. Passive House**



JASANGARRIAK ETA ERAGINKORRAK



AURREZTE ENERGETIKOA



SEGURTASUNA ETA SENDOTASUNA



ISOLAMENDU MAXIMOA

... eta zu zoriontsu izan.

*%45era bitarteko dirulaguntzak
gestioekin lagunduko dizugu*

«Maite dudana herriari zor diodana itzultzeko hartu nuen alkatetza»

ROBER IRIGOIEN IRIARTE IRURITAKO ALKATEA

Iruritako alkatetza hartu du aurten Rober Irigoienek, eta agintaldiko gorabeherez eta helburuez mintzatu da TTIPI-TTAPArekin

R. OSKARIZ IRURITA

Herriko alkate juratua auke-ratzen azken herria izan da aurten Irurita. Lehenbiziko bi batzarretan ez zen hautagairik aurkeztu, eta hirugarrenean pausoa ematea erabaki zuen Irigoienek. Iruritan sortu eta hazitako gaztea da Rober Irigoien Iriarte, «bere herria aunitz maite duena». **Nola animatu zinen herriko alkatetzara aurkeztera?**

Ez da inoiz pentsatua nuen zerbait izan. Inor ez zegoen lan hori hartzeko prest, eta maite dudana herriari nolabait zor diodana itzultzeko modua dela ikusi nuen.

Gogotsu hartu duzu kargua?

Gogotsu gogotsu... kezka eta zalantza aunitzekin. Dena berria da niretako oraindik, eta gauzak ongi egin nahiak lan haundia eskatzen du.

Zein dira zure ardurak alkate bezala?

Herritarren nahi eta beharrak entzutea, komunikatzea, eta konpontzen saiatzea.

Erraza da aurpegia ematea?

Ez beti, bestak eta ospakizunetan gauza ederra da, baina egunerokoan badira gustuko ez diren egoerak.

Hala ere, lantaldea duzu gibelean. Nor dituzu kargudun?

Bai, lantaldea lehenagoko alkateekin osatu nuen, Peio Obregozo, Pello Iriarte... be-raiek baitakite gauzak nola egin eta bide onetik eramaten erabakiak hartzeko garaian. Horretaz gain, Sara Dorre-



Hurrengo bi urteetarako Iruritako alkatea izanen da Rober Irigoien. UTZITAKOIA

garay, Unai Barberena, Iñigo Dendarieta eta beti laguntzeko prest egoten diren bertze hainbat herritar daude.

Zenbatero biltzen zarete eta nola banatzen dituzue lanak?

Hasi bertzerik ez gara egin, eta momentuz beharren arabera biltzen gara eta banatzen ditugu lanak.

Erdizko meategiaren harira, azken agintaldian alkateek izandako arazoak ez zaituzte beldurtu?

«GAUZAK ONGI EGIN NAHIAK LAN HAUNDIA ESKATZEN DU»

Bai, baina herri batek bere betebeharrak ditu, eta beti egonen dira zailtasunak nola edo hala.

Iruritari dagokionez, zein hobekuntza egin dira azken urteetan?

Hobekuntza aunitz egin dira, nire aitzinetik egon diren alkateek lan ederra egin dutelako. Udalaren laguntzarekin beti, eta auzolanetako boluntario guziekin, herria txukundu eta bideen molda-

«KULTURA ESKAINTZA HAUNDIA DUGU IRURITAN»

keta lanak egin dira, komun publikoa paratu da, gisu-labeak berreskuratu dira, zubi erromatarra mantentzea lortu dute...

Eta zein behar ikusten dituzu herrian?

Oraintxe bertan, kezka haundia dago Erreboteko plazan dagoen Dolantxea etxearekin, erortzeko zorian baitago. Aferak garrantzia haundia du, plaza horretan laxoa jokatzen baita, eta erortzen utziz gero Iruritan laxoa galtzeko arriskua dugulako. Gainera, eraikinak berak dakarren arriskua dago.

Zein da zuen aurtengo helburu nagusia?

Baserrietako bideak hobetzea, eta Dolantxeari soluzio bat bilatzea.

Kulturari dagokionez, nola ikusten duzu herriko eskaintza?

Zorteak daukagu Iruritan, eskaintza haundia badagoelako. Herriko dantzarietatik hasi eta Gizarte Bilguneraino kultura ekitaldi anitzak ditugu. Eskerrak eman nahi dizkiet dantzariari, musikariari, laxoko jokalariei eta Pello Iriarteri.

Jauregiarrea Dorrea publikoaren irudi ireki duzue berriki. Zer da?

Dorrea XV. mendeko eraikin bat da. Berriki zaharberritzeko lanak egin ditugu eta orain museo batean bihurtu dugu. Bertan, bizi garaikideko altxariak zein bizimodua, herriko kultura, laxoa erakusketak eta dantzariena ere... ikus daitezke.

Inportantea da herriaren ondarea gordetzeko eta zabaltzeko leku bat izatea?

Bai, noski. Herritarren lana da gauza hauek zaintzea eta zabaltzea.

Nola ikusten duzu Iruritarren etorkizuna?

Etorkizun zaila ikusten dut, gure eskuetan ez dauden gauza aunitz baititugu tar-teko... ikusi beharko da bai udalak bai Nafarroako Gobernua zein bidetik eramaten gaituzten.

Jauregizarrea Dorrearen ateak zabaldu dituzte

Baztango jauregirik zaharrena bisitatzeko aukera izanen da uztailaren 5etik irailaren 17ra Iruritan

TTIPI-TTAPA

Zaharberritze lanetan aritu ondotik, Irurritako Herriak Jauregizarrea Dorrearen aurkezpena egin zuen ekainaren 23an. Ortzirale arratsaldeko ekitaldian parte hartu zuten Elizondoko Koro Ttikik eta Irurritako Fanfarreak, eta Fernando Anbustegi Baztango alkatea ere bertan izan zen. Aurkezpenaren ondotik bisita gidatua egin zuten eta ikus-entzunezkoak izan zituzten.

Herriko eta inguruko hainbat kontu bildu dituzte erai-

kinean: Baztango paisaia kulturala eta ondare arkitektonikoa, Don Jesus apez pilotazalearen argazkiak eta laxoari buruzko erakusketa, Irurritako Dantzariei buruzkoak...

Inaugurazio ekitaldiaren ondotik, uztailaren 5etik irailaren 17ra arte egonen da zabalik, eta bisita gidatuak eta bertako produktuen dastaketak egingen dituzte. As-teazkenetik ortziralera irekiko dute, 11:00etatik 13:00etara goizez eta 17:00etatik 19:00etara arratsaldez.



Jakin-minak jendetza bildu zuen Dorrearen inaugurazioan. ONDIKOL

Alkateak aldatu dituzte Almandozen eta Azpilkuetan

Batzar Nagusiaren uztail hasmentako saioan hainbat gai landu zituzten, tartean alkateen izendapen berriak

TTIPI-TTAPA

Almandozko eta Azpilkuetako azken batzarretan herriko alkate juratuen aldaketa onartu zuten herritarrek, eta izendapen berriak berretsi ditu Batzar Nagusiak. Almandozen Pello Sarratea Sanzberrok alkatetza utzi du, kargua ez baita bateragarria Baztango Independentearien taldearekin duen zinegotzilanarekin. Bere ordean, Beatriz Etxeberria Valcarlos izanen da herriko alkate bi urte hauetarako.

Azpilkuetan, berriz, herritarren artean solastatu ondotik

alkatearen kargua aldatzea erabaki dute, eta Juan Andres Azkarraga Iribarrenen lekukoa bere emazteak hartuko du; Ana Irungarai Juberak.

Honez gain, Erberia kuartelean mendi komisionatu izendatu zuten Luis Javier Laurnagari Mihura, *Garra*.

Luberrien esleipena

Baztango Ordenantza, Koto eta Paramentu berrien 52. eta 53. artikuluen arabera, luberri bat esleitzerakoan eskatzaile bat baino gehiago dagoenean baremazio bat egingen da, lehen-

tasuna erabakitzeko. Batzar Nagusiak erabaki zuen artikuluko hauetan araututako prozesua aplikatu ondotik berdinketa gertatuz gero, zozketa egingen dela luberria nori esleitu erabakitzeko. Aldeko 21 botorekin, kontrako batekin eta lau abstentziorekin onartu zuten proposamena.

Sute eta erreketak

Azken urtea izandako sute eta erreketen berri ere eman zuten saioan. Hiru su mota izan dira: suteak, erreketak kontrolatuak eta partikularrenak.

Suteen ondorioz 435 hektarea erre dira, haien artean nabarmentzekoak dira Iñarbegiko 135 hektareak, Oizako

46 hektareak eta Abartango 24 hektareak, bertzeen artean.

Bertzalde, EPRIFekin erreketak antolatuta egin dira Arrantzolan, Ezkaldon, Burraetan eta Tellerian. Osotara 15,5 hektarea erre dira.

Azkenik, partikularren 68 alderditan 410 hektarea erretzeko eskaera egin dira, eta hauetatik %80 gauzatu dira.

Egur loteak

2023ko egur loteen eskaera egiteko epea zabaldu du Batzar Nagusiak. Uztailean eta abuztuan egiten ahalko dira eskaerak eta eskatzaile bakoitzak 12 euro ordaindu beharko ditu lotearen truke.

Azken urteetan ohikoa den bezala, bi aukera daude: norberak bere lotea atera eta etxera garraiatzea, edo egur lotea etxean jasotzeko eskatzea. Azken aukera hautatzen dutenek 500 euro inguru ordaindu beharko dituzte, BEZa barne.

BEATRIZ ETXEBERRIA ETA ANA IRUNGARAI DIRA ALKATEAK



Baztango Udaleko zinegotziak eta alkatea aurtengo agintaldian. ONDIKOL

Batzordeak osatu eta ordainsariak zehaztu dituzte

Fernando Anbustegi alkateak urtean 35.000 euro gordineko ordainsaria izanen du

TTIPI-TTAPA

Baztango Udalak osoko bilkura egin zuen ekainaren 26an, ezohiko bileran, agintaldi honetarako hainbat kontu erabakitzeko. Hasteko, ohiko osoko bilkurak hilabete bakoitzeko laugarren ortzegunean 19:00etan egitea adostu dute ahobatez, abuztuan izan ezik.

Informazio batzordeak

Udalbatzak agintaldirako informazio batzorde iraunkorrak sortu ditu. Fernando Anbustegi alkatea izanen da batzordeburu guztietan, eta hurrengo kideek osatuko dituzte:

- **Euskara Batzordea:** Lorea Lizarreta, Gorka Urtasun, Florentino Goñi, Iñigo Iturralde, Andoni Irigoien, Anastasio Nagore eta Lander Santamaria.

- **Batzorde Orokorra:** Mariano Iribarren, Jose Luis Retegi, Joseba Moreno, Iñigo Iturralde, Pello Sarratea, Anastasio Nagore eta Lander Santamaria.

- **Hirigintza Batzordea:** Mariano Iribarren, Alaitz Arretxea, Joseba Moreno, Iñigo Iturralde, Andoni Irigoien, Anastasio Nagore eta Lander Santamaria.

Ordainsariak

Kargu hautetsien arduraldiak eta ordainsari erregimenak ere zehaztu zituzten bilkuran.

- Fernando Anbustegi Goñi alkateak arduraldi osoa izanen du. Urtean 35.000 euro gordineko ordainsaria izanen du, eta horri Gizarte Segurantzari ordaindu beharreko kuota gehituko zaio.

- Mariano Iribarren Irigoien lehenbiziko alkate-ordeak arduraldi erdia izanen du, eta urtean 21.983,64 euro gordineko ordainsaria.

- Jose Luis Retegi Iturbide hirugarren alkate-ordeak arduraldi osoa eta 34.398 euroko ordainsaria izanen du.

- Lorea Lizarreta Insaustik arduraldi herena eta 11.466 euroko ordainsaria izanen du urtean.

Honez gain, osoko bilkuretan eta tokiko gobernu batzordeetan parte hartzeagatik 150 euro ordainduko dira, eta batzorde informatiboetan parte hartzeagatik 100 euro. Gehienez ere 900 euroko ordainsaria izaten ahalko dute hilabetero eta parte-hartze agiria bete beharko dute.



Joseba Urretabizkaia eta Tiburtzio Arraztoa Akelarre kulturgunean. ONDIKOL

'Euskal pilota' liburua aurkeztu du Tiburtzio Arraztoaak Elizondon

TTIPI-TTAPA

Euskal pilotako zenbait modalitatetan erabiltzen diren pilota eta tresnekin hornituta, Elizondoko Akelarre kulturgunean egin zuten *Euskal pilota* liburu dotorearen aurkezpena Tiburtzio Arraztoaak eta Joseba Urretabizkaia, ekainaren 22an.

Testuak Arraztoa iruritarrak egindakoak dira, Laxoa Elkarreko kide eta hainbat libururen egilea. Testuekin batera, Urretabizkaia argazkilariaren irudi ederrak biltzen ditu liburuak. Nafarroako Kirolaren Institutuaren eta Nafarroako Euskal Pilota Federazioaren laguntzarekin egin dute liburuak.

Oronoz-Mugairiko kamineroen etxeak berritzeko proiektua idatziko dute

TTIPI-TTAPA

Nafarroako Gobernuak Uztamako VII. Campusa abiatu du aurten, eta 14 ikasleek parte hartuko dute udako eskola honetan, Espainia, Portugal, Italia, Eslovenia eta Estatu Batuetako arkitektura ikastetxeetatik etorriak. Bi lan praktiko osatuko dituzte ikasleek: Tafallako silo zaharra bizitegi erabilerarekin biziberritzea eta Oronoz-Mugairiko bidezainen etxeak adineko apartamentu gisa birgaitzea.

Oronoz-Mugairiko proiektuan, etxeak adineko apartamentu bihurtzeko irtenbide konstruktiboa eta egingarria idatzi beharko dute. Kaminero edo bidezainen etxeak izenarekin ezagututako 70eko hamarkadako eraikinetan egingen dute proiektua.



Oronozko kamineroen etxeak.

Etxebizitza irisgarriak

Logela bateko etxebizitzak diseinatuko dituzte, irisgarritasun haundikoak eta terraza banarekin. Eraikinen berriztatze energetikoaren proposamena ere idatzi beharko dute.

Honez gain, lanetarako ikasleek kontuan hartu beharko dute industrializatuak dauden materialen erabilera proiekturako, baita ingurukoak diren materialak ere.

Erdizen Foru Intereseko izaera kentzearen alde

Baztango Batzar Nagusiak EH Bilduren mozioa onartu du, aldeko 25 botorekin eta kontrako bakarrarekin

TTIPI-TTAPA

Baztango Batzar Nagusiak Erdizko meategiaren Foru Intereseko deklarazioa gibelera botatzeko eskatu dio Nafarroako Gobernuari. Gainera, proiektua Udalez Gai-diko Eragina duen Proiektu gisa (UGEP) ez tramitatzeko eskatu diote gobernuari, eta meategiaren inguruko erabakia baztandarrek har dezatela, herri galdeketa baten bidez.

EH Bilduk aurkeztu zuen mozioa uztailaren 3ko batzarrean, eta ia ahobetez onartu zuten batzarkideek, aldeko 25 botorekin eta UPNren kontrako boto bakarrarekin.

Udal taldeak azaldu duenez, «duela hilabete batzuk Magnesitas Navarras enpresak Erdizen egin nahi duen meategi proiektua Foru Intereseko deklarazioa eskatu zion Nafarroako Gobernuari. Honek eskaera onetsi zuen pasa den ekainaren 7an, argudiatuz proiektuak ekarpena egiten diela funtsezko hornigaiak edukitzeko autonomia eta segurtasunari, bat datorrela

Nafarroako Gobernuaren plan eta politika publikoekin eta laguntzen duelako ingurunean biztanleria eta enplegua mantentzen, baita enpresa-proiektua Nafarroan bideragarria eta jarraitua izaten ere».

Honen kontra, «Erdizen Baztango bazkaleku komunal hoberena dago eta mendezmende, hamarnaka abeltzain baztandarrek ehunka abelburu eramaten dituzte alhatzera. Meategia Erdizen kokatzen bada abeltzain horien etorkizuna airean geldituko da, eta era berean, baztandar guztiona den eremu komunala kalte-tetuko da, ezin baita atzendu proiektua Baztango lurretan egitea aurreikusten dela».

Gainera, «Foru Intereseko deklarazioak berarekin batera izapideen denbora tarte murriztea dakar. Baztanendako gibelera bota ezinezkoa den eragina izan dezakeen proiektu bat izaki, dena denborarekin eta tentuz gainbegiratu beharko litzateke, eta izapideak murrizteak ez du hala izanen den bermerik ematen».



JONE URIARTE

San Pedro bestak giro ederrean Erratzun

Antolatzaileen erranetan, «bestak arras ongi joan dira eta lau egunetan izan dugu zer egin. Elkarte, talde eta herritarren auzolanari esker atera dira aitzinerat eta kontent gaude». Gainera, «herritarrei aurtengo berrikuntzak gustatu zaizkie eta orokorrean ekitaldi guzietan jende aunitz bildu da».



647 77 31 33

Eguzki plaken instalazioak, argiztapen-azterketak eta elektrizitate lanak orokorrean






Udaleko teknikariak eta bestetako antolatzaileak Arizkunenean. BAZTANGO UDALA

Besta jasangarri, euskaldun eta seguruen alde

Baztango Udala herrietako Besta Komisioekin bildu da bestak garbi, euskaraz eta indarkeria sexistarik gabe izan daitezen

TTIPI-TTAPA

Udan Baztango herrietako bestak ospatzen direnez, udalak hainbat bilkura egin ditu Besta Komisioetako ordezkariekin. Bertzeak bertze, euskara, jasangarritasuna, genero-rol eta estereotipoak eta indarkeria sexista landu dituzte. Berdintasun Zerbitzuak azaldu duenez, «arras garrantzitsua da bestak antolatzen dabilzanak kontziente izatea bestetan ere indarkeria sexistarik gabeko gune segurua behar ditugula; euskaraz solas egitea eta musika ere euskaraz aditzea beharrezkoa dela; eta ahalik eta besta jasangarrienak behar ditugula».

Hau ardatz hartuta, herrietako 12 batzorderekin bildu dira: Berroeta, Arizkun, Erratzu, Azpilkueta, Elizondo, Amaiur, Arraioz, Elbete, Aniz, Gartzain, Lekaroz eta Oronoz. Baztandarren Biltzarrak ere bilkuretan parte hartu du.

Hasteko, hondakin gutiago sortzeaz eta sortzen direnak behar bezala kudeatzeko beharraz eta aukerez aritu ziren, eta herritarren eskura dauden baliabideak eskaini dizkiete.

Bigarren, besta euskaldunak bulkatze aldera, kartelak, kontzertuak eta txosna eta tabernetako musika euskaraz izateko eskaera egin dute. Horretarako zenbait musika zerrenda eskaini dizkiete antolatzaileei, eta musika ez sexista erabiltzearen garrantzia ere azpimarratu dute. Gainera, sexu osasuntsua sustatzeko asmoarekin, txosnetan banatzeko kondoiak eskaini dira.

Azkenik, «indarkeria sexistarik gabeko eta jokabide matxistak errepikatzen eta betikotzen ez dituen bestak» aldarrikatu dituzte. Horretarako hainbat baliabide eskaini dizkiete: kartelak eta pegatinak, indarkeria kasuak artatzeko protokoloaren inguruko materiala, eta erasoren bat gertatuz gero baliabideen zerrenda».

Baztango Udalak eskerrak eman dizkie bileretan parte hartu duten herritarrei, baita Baztan Iñarrosi eta Amaiur, Oronoz eta Erratzuko neska taldeei ere, «haien esperientziak partekatzeagatik eta ezagutzak eskaintzeagatik».



MAIALEN IANTZI ETA MAITANE MARITORENA

Suak saltatu dituzte Berroetan eta Anizen

San Juan bezperan suak piztu zituzten Berroetako plazan, eta bueltan saltoka ibili ziren herritarrek. Ondotik, xinger eta gasna jatea izan zuten. Anizen ere udako solstizioa ospatu zuten; haurrak etxez etxe ibili ziren kartoioak biltzen suak pizteko. Ondotik haur, gazte eta heldu su bazterrean bildu ziren otorduan.


HARRI LAN S.L.
ERREKONSTRUKTIOA

Ohariz Auzoa z/g - LEKAROZ
 T. 948 452 143 - 948 452 449
 info@harrilan.com www.harrilan.com

EDOZEIN HARRI MOTAREKIN
 LAN GUZTIAK EGITEN DITUGU





Jendetza bildu zen Erratzun LGBT+ eskubideak aldarrikatzeko. HARRO BAZTAN



Harrotasunaren egunari keinua egin zioten Azpilkuetako eskolan. BAZTANGO UDALA

Baztandarrek LGBT+ harrotasunarekin bat egin dute

Ekainaren 28an Harro Baztan taldeak elkarretaratzea egin zuen Erratzun, LGBT+ eskubideen aldeko aldarrikapena egiteko

TTIPI-TTAPA

Elkarretaratzean taldeko ki-deek adierazi zuten, «heterosexualitateaz solastatzen garenean, ez gara jardun erotiko-afektibo konkretu baten inguruan ari bakarrik, normaz ari gara. Heterosexualitate gure baitan dago, gure harremanetan, familian, kuadrillan, janzkeran, diskurtsoetan... eta Baztanen izaera ere, ez da salbuespen. Sistema hau irauliko dugu, hori argi, baina horretarako norma erasotu behar dugu, norma guztiak. Heterosexualitatearen mugetatik kanpo kokatzen diren bertzelako identitate disidenteak eraiki behar ditugu».

Gizartea desairiki eta bererakitzearen aldeko aldarria egin zuten; «gure desira, bertze guziaz bezala, ikasia da, eta hori berrikusi eta deseraikitzea hautu politiko bat, pertsonala bezain kolektiboa. Gorputzek eta horien arteko harremanek erregimen bat dute gaur egun: 'zis-heterosexualitatea'. Gizarte justu baten aldeko borroka zapalkuntzen ertz guzietan erreparratu behar

dienez, hau ere iraultzeko hautua egitea dagokigu; pribilegioei uko egin eta aurpegi garbiketekin akituz».

Gainera, «muga horietatik kanpo kokatzen garen baztandarrak, ez gara bertze identitateak maitatzera behartutako pertsona disidenteak bakarrik. Politikoak gara, errebeldeak, eroak eta promiskuoa, baita konprometituak eta militanteak ere. Garaipenaren belaunaldia garelako diogu, baina inguratzen gaituena ez ezik, gure gorputzak ere irauli behar ditugu horretarako».

Azkenik, argi utzi nahi izan zuten: «aske izateko sortu ginen, eta zernahi gara, beraz adi eta borrokarako prest egon behar dugu, gurekin elkarlanean aritzeko prest eta sistema ezberdin bat eraikitzeko prest. Denon antolakuntza ezinbertzekoa delako, Baztan harrotzera etorri gara».

Ikastetxeetan ere harro

Baztango Udalak adierazi duenez, «hondar urteetan gorroto diskurtso LGBT+ofobikoak modu arriskutsuan naturalizatu dira». Hortaz, «herritar guzietan batera sexu joera ororekiko errespetua aldarrikatzea arras garrantzitsua da, baita haur eta nerabeekin ere. Baztandar jendarrea askotarikoa da eremu aunitzetan, eta aniztasun hori onartzea LGBT+ pertsonen eskubideak defendatzea da. Baztango Udalak ere LGBT+ pertsonenganako eta genero-aniztasun eta aniztasun afektibo-sexualarekiko go-

rroto adierazpenak desagerarazteko konpromisoa du». Hori dela eta, hainbat ekintza antolatu dituzte azken hilabeteetan.

Azpilkuetako Eskolan, Baztan Ikastolan eta Lekarozko institutuan ere «alaitasun eta gogoz egin dute LGBT+ kolektiboaren ikusgarritasun, errespetu, berdintasun eta eskubideen aldarrikapena».

Hala ere, «bizikidetzaren giroa lortzeko lanean segitu behar dugu, izan ere, Lekarozko institutuan LGBT+ koloredun sinbolo bati eraso egin zioten. Kolektiboaren banderaren koloreekin margotu ziren futbol zelaiko ateak beltzez margotuta agertu ziren. LGBT+ pertsonen eskubideen urraketa larria eta kolektibo osoaren aurkako eraso bat da».

Honengatik, «Baztanen ez dela inoren aurkako erasorik onartzen» aldarrikatu dute, «ez arraza, jatorri, erlijio, ezta genero adierazpen edo orientazioen kontra ere».

OTEIZA

ARKITEKTOAK

665 71 56 96 - 943 42 52 43

www.oteizaarquitectos.com

Apote Karrika 8 (Maskonea)
31730 - Iruña (Baztan)

Askatasunaren H. 7 - 7ºE
20004 - Donostia

OTEIZA
arquitectos

[@oteizaarquitectos](https://www.instagram.com/oteizaarquitectos)

MARMOLES SOULE

www.marmolessoule.com

ARIZKUN | M. 688 605 182 | T. 948 453 444 | marmolessoule@gmail.com

LAPIDAK
PANTEOIAK
HILERRIAK
ZAHARBERRITZEAK
GARBIKETAK
HARRI ZIZELKATZEA

BRIKO BAZTAN, SL

Drogeria - Garbiketa produktua
 Ferretaria - Sukaldeko tresnak
 Mozorroak - Papertegia
 Kiroleko eta mendiko jantziak
 Moda - Oinetakoak
 Laneko arropa - Bitziak
 Lurrin-denda
 Kosmetika, Elektronika
 Telefonoak - Poltsak eta mailetak
 Etab.

T. 608 016 052
San Andres, 66 - NARBARTE
(Sarrera Legasatik)

ZUGARRAMURDI

Hutsun txalaparta eta abentura mitologikoa hilaren 22rako prest

Kultur 23 programaren barrenean 'Baratzean' kontzertua emanen dute lezean eta abentura sorginen museoan izanen da

MARIFA ETA KORO

Nafarroako Gobernuak Kultura Zuzendaritza Nagusiak (Vianako Printzea erakundea) antolatutako Kultur programaren 28. edizioak kultura eskaintza ekarriko du aurten Zugarramurdira ere.

Uztailaren 22an, larunbatean 12:00etan Hutsun txalaparta taldeak joko du lezean eta abentura mitologikoa ere izanen dute Sorginen Museoan 10:30etan eta 17:00etan.

Hutsunek hamabi urte daramatza txalapartari eszenatokia eta eszenatokitik kan-

po merezi duen lekua ematen. Gaur egun, erreferente bihurtu da bai Nafarroan, bai edonongo txalaparta taldeen artean, eta kontzertu, ikastaro eta emanaldien egutegia bete du. Ikerketa eta sorkuntza urte horien emaitza da *Baratzean*, zuraren erritmoak eta harrien melodiak txalapartaren edertasun musikala erakutsiko digun ikuskizuna. Denboran zehar bidaiaraziko gaituzten erritmo eta doinu sinpleetatik bertsio ezagunetara. Inprobisazioak ere bere lekua izanen du ikuskizunean.

Ekainaren 20ko kazkabarrak kalteak eragin ditu baratze eta lorategietan

Egun bortitza izan zen ekainaren 20koa: sekulako kazkabarrerautsia bota zuen herrian. Aunitz eta pikor handiak. Ez zen eskapatzerik izan, eta baratze eta lorategiek kalte haundiak izan zituzten. Horrekin batera, herriko karririk erreka bihurtu ziren,

eta hainbat tokitan ura sartu zen, kaltetuena Irietxeko nabea izan zen.

Lehen ere halakoak gertatzen omen ziren, baina tarteka, 20-30 urteren tartearekin. Zorritzarrez, hemendik aitzinera halako galernak maizago izanen direla diote.



KORO ETA MARIFA

Arburua-Iparragirretarren bazkaria

Ekainaren 24an urteroko bazkaria ospatu zuten Arburua-Iparragirretarrak. 66 lagun bildu ziren, lau belaunaldi elkartuz. Zaharrenak 93 urte ditu eta gazteenak 2. Ez da harrizkoa hainbertze jende elkartzea, jakinez Iparrekobordako familian hemezortzi haurride izan zirela.



KORO ETA MARIFA

Zazpi urteren ondotik ezkontza elizan

Duela 6-7 urte ikusten ez ginuen ikuskizuna izan genuen herrian uztailaren 1ean: elizaz egindako ezkontza bat. Azkenekoa Etxenikako Maddi Lopetegirena izan zen. Honetan berriz, Etxotoko Juan Luis Olagarai eta Doneztebeko Josune Gago izan ditugu protagonistak.



Fagoagategiaren inaugurazioan zikiroa dastatu zuten. ARANTXA ETA IRAIA

Udako martxan Fagoagategia inauguratu dute

San Juan suak piztu ziren egunean egin zuten ostatu berriaren inaugurazio ekitaldia

ARANTXA ETA IRAIA

Ekaina pasatu bezala, udako erritmoa hasi da herrian: Dantzarinea auzoa betetzen hasi da, herria turistaren bisitez betetzen hasi da, udalekuen ondorioz haurrak han eta hemen bueltaka dabilta... urteroko gisan udarekin batera herriak bizi gehixeago hartu du aurtengoan ere.



Giro ederra izan zen.

Fagoagategia inauguratua

San Juan bezperakoa zinez gau berezia izan zen, plazan suak piztu ziren egun berean Fagoagategia ostatua ofizialki inauguratu baitzuten. Esti

Markez, Iker Lauroba, Morau eta Beñardo Goietxe artisten musikak eta sua saltatzean egindako kantu soinuek alaitu zuten urteko gaurik motzena herrian.

Ikaburua lezearen eguna ekitaldiz beterik ospatuko dute larunbatean

Ikaburuko Lezearen Eguna ospatuko dute uztailaren 15ean. Larunbatean, egun osoan hainbat ekitaldi izanen dira. Txalaparta erakustaldia egingen dute lezearen sarreran. 11:00etatik 14:00etara, berriz, historiaurreko bizitza-tekniken erakustaldia eta tailerra egingen

du Iñaki Libano, Edestiaurre Arkeologia Elkarteko presidentek. 11:00etatik 18:00etara artisau azoka izanen da eta 17:00etan artisau produktuz betetako saski baten zozketa egingen dute. Txalaparta tailerra izanen da (15:00-18:00) eta magia ikuskizuna (16:00-18:00).



ARANTXA ETA IRAIA

Lehen ezkontza ortodoxoa herrian

Herrian bizi diren Javi eta Anka ekainaren 24an ezkondu ziren, baina orain arte herrian ikusi ez den modu batean: ezkontza ortodoxoa izan zen. Halere, haien usaiak eta herrikoak bat egitea nahi zuen bikoteak eta eliz atarian trikitixa eta pandero doinuak entzun ziren.



ARANTXA ETA IRAIA

San Juan suak herrian

Aspaldiko usaiak diote San Juan bezperan suaren gainetik salto egiteak izpiritu gaixtoak uxatzen dituela. Urte aunitzez herriko plaza ilun egon bada ere gau honetan, aurtan San Juan sua piztu zen plazako xoko batean. Herriar anitz saltatzerat hurbildu ziren eta gau berezi izan zen.

Montxo
SATEKHEA • ERRETEGIA
Tradizioa, historia eta gastronomia
asadormontxo.com

Akuler karrika, 12
31711 Urdaizubi-Urdax (NAFARROA)
+34 848 85 00 21
info@asadormontxo.com



230 lagun bildu ziren bazkarian. GANEX

San Josepe eskolak urte bukaerako besta egin du

Kolegiora doazen hamabi ikasleak eta erretreta hartu duen Bernadette Mortalena agurtu zituzten uztailaren 1ean

GANEX

San Josepe eskola publikoak bere eguna ospatu zuen uztailaren 1ean. Haurrekin dako gauza ederrak erakutsi dituzte. Kolegiora doazen hamabi neska-mutikoei agurra egin zieten, baita erretreta hartu duen Bernadette Mortaleni ere. Ondotik aperitifa eta afaria izan zuten. 230 bat heldu baziren etorriak haur horien sustengatzera. Beti bezala, jatekoak Harategiko Tristan eta Marianne Sagek eginak ziren eta haurren burasoei zerbitzatuak. Xabi zuzendariak, bere eskolako la-



Bernadette Mortalena omendua.

gunekin, denak eskertu zituen. Izigarri kontent dira, egun horretan urtero jende ainitz etortzen delakoz. Esperantza dute agian ainitz urtez horrela izaita.




GANEX

Zazpiak Bat dantzari ttikien emanaldia

Zazpiak Bat dantza taldeko ttikiek aurten ere dantza emanaldia egin dute, gurasoei erakusteko nola ari diren. Bai ongi egin dituzte beraien dantzak eta jendeak esku zarta ederrak egin. Bazen jendea, zeren plazako errebotea dena betea zen ereiaroaren 23an.

Veronique Etxegarai herriko etxeko bulegoan

Veronique Etxegarai enplegatu berria da Sarako herriko etxeko bulegoan. Zernahi izapide egitera, paperak aurkeztera edo informazioa galdetzera Herriko Etxera joaten garenean berak ere artatuko gaitu hemendik aitzinera. Orain hasi da, beraz, suertea on zuri Veronique.



GANEX

Pottoka Eskolaren indar jokoak eta bertze hitzorduak

Uztailaren 11n egitekoa zuen indar jokoak plazako errebotean. Uztailaren 18an eta 25ean errebote berrian indar jokoak elkarrekin antolatuz; 22an eta 23an kuku ferria Lur Berrin; uztailaren 25etik abuztuaren 6ra margo erakusketa Larrungo kolore taldearekin.



Kontraleihoak | Leihoak aluminio eta PVC
Itxidurak | Berandak | Toldoak
Barandak | Persianak

T. 00 34 948 630 962 - H. 31780 BERA
info@irekileihoak.com
www.irekileihoak.com



Amotzeko bestak uztailaren 13tik 16ra ospatuko dituzte

Larunbatean gualdia urririk izanen da aterpean Andoni Oilokiegi, Brutik, Xiberoots, Matraka Band eta DJ Jotatxorekin

JL BESSONART

Senperekoen segidan, Santa Madalenaren omenez, iraganen dira Amotzeko bestak, uztailaren 13tik 16ra. **Uztailaren 13an**, ortzeguna (20:00) Gauazko Ball-Trap, errekiak eta ostatu girotua gau osoan. **Uztailaren 14an**, ortziralea, 18:00 eta 19:00etan, Mendionde trinketean, Amotze txapelketaren final erdiak, Esku pilotaren ekimenez. 20:00etan Zintzur bustitzea eta ondotik Zikro alaitua Katxi taldearekin. **Uztailaren 15ean**, larunbata, 14:00etan Pala txapelketaren

finalak. 18:00etan Amotzeko lasterkaldia (8,5 km). 19:00etan Gualdi bikaina urririk, aterpean: Andoni Oilokiegi, Brutik, Xiberoots, Matraka Band eta DJ Jotatxo. **Uztailaren 16an**, igandea, 10:30ean Meza kapera, 12:00etan Zintzur bustitzea eta xerriki jatea Mendionde jatetxean. 13:30ean Bazkaria. 16:00etan Komiteen arteko Jokoak. 18:00etan Amotze txapelketaren finala. 19:00etan Kantaldia Alaiak taldearekin. 20:00etan Kantu txapelketa idekia. 22:00 Gualdia, DJ Doli Soinu Sistema.

Arbaso elkartearen eskulangileen merkatua asteartero izanen da udan

Uztailaren 4an hasita, Arbaso elkartearen ekimenez 2013an sorturiko artisau merkatua uztail eta abuztuko astearte guziz izanen da Postako plazan (09:00-13:00). 20 artisauek beren lekua hartzen dute, eskuz eginiko sorkuntzak aurkeztuz. Ainitzek jendeen aitzinean

lantzen dituzte beren obrak, bisitariak hobekiago ikus dezaten zer lan egiten duten. Astearte bakoitzean animazio berezia izaten dute, hauetan aurki daiteke Madda musikari kantaria, Zumba dantzak, Bigoudi pailazoa, harri-altxatze, haur joko eta bertze.

Foyer de Vie Pemartin egoitzako artisten lanak

Bidarteko Foyer de vie Pemartin-eko egoiliarrek beren obrak aurkezten dituzte Larrekon. Artistahoriek heldu-elbarrituak dira eta nahi ala ez gure begirada aldatzen da. Kasik eguneroko erakusketa zabalik da uztailaren 22ra arte, 11:00etatik 18:00etara.

Ziburuko Estudiantina larunbatean elizan

Ziburuko Estudiantinak kontzertua emanen du uztailaren 15ean, larunbatean, 20:30ean hasita Jondoni Petri elizan. Sartzea urritik izanen da eta Mozart, Fauré, Bach edo Prokofiev konpositoreen lanak joko dituzte bi orduko emanaldian.



UTZITAKOIA

Oronoz eta Goienetxe txapelkun...

Pilotari so, berri on batzuk ukan ditugu, nesken aldetik bereziki. Ekainaren 16an, Baigorriko trinketean, Frantziako palantxa txapelketako finalean, lehen mailan, Ania Oronoz eta Marie Goienetxe nagusitu dira Zaharrer Segiko Joanna Agerre eta Martta Hirigarairen kontra, 40-36.



UTZITAKOIA

Sedes-Uhalde eta Bidegain-Delpech ere

Kimuak kategorian, nazional B mailan ere sorpresa ona, Nerea Sedes-Uhalde eta Nahia Bidegain-Delpech garaile izan baitira hendaiarren kontra, 40-11. Emaizta horiek estimagarriak dira eta poz handia sortzen dute hezitzaileen artean, hauen isileko lana ez baita aski nabaritu.

Xan Errotabehere mediatekan ipuin kontari

Iragan den agerraldian, Xan Errotabehere kontalariak, lorietan utzi ditu haur eta helduak, honen istorioak kolorez eta misterioz beteak direlakoan. Amets gaixtoak amets eder bilakatzen dira bere kontakizunetan.



JL BESSONART



Txapeldun eta txapeldunordeak, lehengo txapeldunekin batera. JM LAZKANOTEGI

Bortziritako eskuz binakako txapelak eman dituzte

Duela 9 urte Nafarroako eta Euskal Herriko herriartekoa irabazi zuten pilotarietako batzuk izan ziren sari banaketan

TTIPI-TTAPA BERA

Bortziritako eskuz binakako pilota txapelketaren hogeita bigarren edizioako finalak jokatu zituzten ekainaren 24an Berako Eztegar pilotalekuan. Hauek izan ziren emaitzak: **Tikiak:** Berako Ibai Pandok eta Berako Unai Mikelperizenak 18; Berako Hugo Pe-

reirak eta Lesakako Oihan Irurietak 12.

Umeak B maila: Berako Kemen Aranibarrek eta Igantziko Joana Iratzokik 18; Etxalarko Beñat Ansalasek eta Lesakako Amets Irurietak 16.

Umeak A maila: Berako Gexan Lizardik eta Berako Aimar Almandozek 7; Berako Unai

Lazkanok eta Berako Ekai Mikelperizenak 18.

Kimuak B maila: Lesakako Ibai Tapiak eta Lesakako Jon Madariagak 13; Lesakako Alain Gajatek eta Berako Beñat Goñik 18.

Kimuak A maila: Igantziko Aratz Lakak eta Etxalarko Erik Igoak 16; Baionako Enaitz Zestauk eta Berako Jon Lazkanotegik 18.

Sari banaketa

Sari banaketan, duela bederatzirte Nafarroako eta Euskal Herriko herriarteko pilota txapelketa irabazi zuten pilotariak izan ziren eta ondotik, antolatzaile eta pilotari ohien bazkarian ere giro ederra izan zuten.

Final horiekin denboraldia erdi itxia utzi zutela aipatu du Bortziriak pilota elkarteko Enaitz Telletxeak, baina uztailearen 1ean oraindik hitzordu garrantzitsua izan zuten Iruñeko Labrit pilotalekuan, Nafarroako herriarteko pilota txapelketa ttikiko finala jokatu eta irabazi baitzuten Leitzaren kontra. «Eskerrik asko denei, eta batez ere laguntzaileei, zuek gabe ez zen hau posible izanen. Aupa Bortziriak Pilota Elkarte!».

Herriz Herri txapelketa uztailearen 22an abiatuko da Beran

TTIPI-TTAPA

Nafarroako Herri Kirol Federazioak antolatutako Herriz Herri txapelketa **uztailearen 22an** abiatuko da Berako Eztegar pilotalekuan. Maila nagusian zortzi talde lehiatuko dira, horietatik bostz eskualdekoak: Arantza, Arraioz, Basaburua, Igantzi eta Sunbilla. Berriozar, Iturgoien eta Txantrearekin batera ariko dira lehian. 21 urtez beheitiko kategorian, aldiz, ez da eskualdeko talderik izanen. Antsoain, Araxes eta Berriozar ariko dira.

Berako jardunaldiaren ondotik, **uztailearen 25ean** Elizondon, abuztuaren 6an Igantzin (eguraldi txarra egingen balu Sunbilla), **abuztuaren 19an** Burlatan eta finala, kategorian nagusiko lau talde onenek **abuztuaren 26an** Antsoainen jokatuko dituzte.

Gaszte mailan, berri, **uztailearen 25ean** Elizondon, **abuztuaren 19an** Burlatan eta **abuztuaren 26an** Antsoainen ariko dira.



NAFARROAKO PILOTA FEDERAZIOA

Neska infantilak Espainiako txapeldun

Nafarroako selekzioarekin aritu diren eskualdeko pilotariak (Alize Sagardui Lekuona goizuetarrak, Goiuri Zabaleta leitzarrak eta Nahia Bertiz Babaze sunbildarrak) Espainiako infantil mailako nesken eskuz binakako txapelketa irabazi zuten ekainaren 25ean Iscarren (Valladolid).



GUAIXE

Otxoteko eta Jimenez Triku-Trailen

IX. Triku Trail mendi lasterketa egin zuten ekainaren 25ean Etxarri Aranatzan. 275 korrikalari aritu ziren lasterketaren 21 kilometroak eginez, 1.400 metroko desnibelarekin. Eskualdeko bi korrikalari hirugarren izan ziren: Aimar Otxoteko lesakarra eta Maddalen Jimenez beratarra.



Bera eta Leizako pilotariak, bi herrietako alkateekin. UTZITAKOIA

Bera nagusitu zaio Leitzari Nafarroako herriarteko ttikian

Benjamin eta alebin mailako partidak irabazi zituzten beratarrek eta infantil mailakoa leitzarrek uztailaren 1ean

TTIPI-TTAPA

Nafarroako Herriarteko pilota txapelketa nagusiak sortu duen kalapitatik urrun, uztailaren 1ean jokatu zuten Nafarroako herriarteko ttikiko finala Iruñeko Labrit pilotalekuan. Pronostikoak bete eta Bera nagusitu zitzaion Leitzari. Ttikienen bi partidak ira-

bazi zituen Berak eta infantil mailakoa Leitzak.

Benjamin mailan, Berako Beñat Goñi Erandoneak eta Eñaut Zubieta Garciak 18-5 irabazi zieten Leizako Enaitz Bengoetxea Ariztimuño eta Egoi Zabaleta Santestebani.

Alebin mailan, Berako Erik Igoa Ansalas eta Ander Etxe-

garai Maizek 18-8 irabazi zieten Leizako Iraitz Andiarena Villanueva eta Oier Zabaleta Rodriguezi.

Infantil mailan, azkenik Egoi Bidart Zabaleta eta Aimar Zubillaga Astibia leitzarrek 18-4 irabazi zieten Berako Iraun Zestau Telletxea eta Gorka Altzuguren Florezi.

Emaitzak emaitza, giro bikaina izan zen Labrit pilotalekuan eta bai Berakoek baita leitzarrek ere, herrira bueltan, bazkari eder batekin ospatu zuten.

Nagusian gorabeherak

Zuzenbidean, egun berean jokatu behar zen herriarteko nagusia ere. Leitzak kirol legeztortua du finalerako txartela, eta hau idazterakoan, epaileak oraindik erabakitzea zuen Larraun eta Iruñearen arteko finalerdietako kanporaketa zertan gelditzen den. Araudiaren arabera, berez Iruñearekin jokatu ezin zuten pilotari batekin aritu da hiriburuko taldea eta horren kontrako errekurtsioa aurkeztu zuen Larraunek. Itxura batean uztailaren 9an jokatzeko zuten finala Leitzak eta epaileak erabakitako herriak. Pena da horrela ibili beharra.

Alberro eta Altxu txapelkun izan dira Zumarragan

Zumarragako Hiria pilota txapelketako finalera ailegatu ziren Ados pilota elkarteko bi bikote. Ekainaren 29an jokatu zuten finala eta Iturengo Dunixe Alberrok eta Irati Altxuk 18-11 irabazi zieten Iturengo Ane Deskargari eta Beasaingo Amaiur Landari.

Sunbillako Iraide Iriartek eta Iturengo Janitz Irigoienek ere bikote egin dute txapelketa honetan, baina ez zuten finalerako sailkatzerik lortu. Halere, denentzat sariak izan ziren Zumarragan San Pedro egunez eta giro ederra izan zuten frontoian.



Finalistak Zumarragan. ADOS



BETI GAZTE

IV. Zubigaineko Krosa Lesakan

Beti Gazte elkarteak laugarren aldiz antolatutako Zubigaineko Krosa egin zuten uztailaren 1ean. Senior mailan, Gwendal Larque beratarra eta Loli Pardal lesakarra nagusitu ziren eta kategoria ttikietan ere hainbat korrikalari atera ziren, herriko hamabi zubi gurutzatzen dituen proban.



AITOR AROTZENA

Lesakako Arkupekoen jaialdia

Sanferminen aitzineko ohiko jaialdia antolatu zuen uztailaren 1ean Lesakako Arkupe pilotazaleen elkarteak. Denboraldi honetan Lesakako eta Igantziko 30 bat pilotari aritu dira eta herriarteko ttikian nahiz handian parte hartu dute. Udal pilotalekuan ere zenbait moldaketa egin dituzte.

AGENDA

UZTAILAK 13 - 27

INFORMAZIOA BIDALTZEKO: Tel. 948 63 54 58 edo info@ttipi.eus



URDAZUBI Ikaburuko Lezearen Eguna

Txalaparta ikuskizuna eta tailerra, historiaurreko bizitza-tekniken erakustaldia, artisau azoka eta magia ikuskizuna. **Ikaburun, uztailaren 15ean. Informazio gehiago 55. orrian.**

BESTAK

ITUREN

Herriko bestak

Uztailaren 13tik 16ra.

SENPERE

Amotzeko bestak

Uztailaren 13tik 16ra.

ELGORRIAGA

Santio bestak

Uztailaren 21etik 25era.

ARANO

Santio bestak

Uztailaren 22tik 25era.

ELIZONDO

Santio bestak

Uztailaren 24tik 28ra.

MUSIKA

SENPERE

Ziburuko Estudiantinaren kontzertua

Jondoni Petri elizan, uztailaren 15ean 20:30ean.

ZUGARRAMURDI

Hutsun Txalaparta Taldea

Lezeetan, uztailaren 22an, 12:00etan.

BERA

Jose txo Goia-Arriberen 'Sarasateando' kontzertua

Toki Onako aterpean, uztailaren 23an, 19:00etan.

AZOKAK

ELIZONDO

Baztango Artisauak eta Zaporeak

Plazan, uztailaren 15ean, 22an eta 29an, goizez.

SARA

Kukusu feria

Lur Berrin, uztailaren 22an eta 23an.

SENPERE

Arbaso elkarteko eskulangileen merkatua

Postako plazan, asteartean, 09:00etatik 13:00etara.

ERAKUSKETAK

BERTIZ

Estefania de Paz artistaren 'Argako erregina' erakusketa

Lorategi botanikoan eta erakusketa gelan, uztailaren 3tik abuztuaren 31ra.

SENPERE

Foyer de Vie Permatin egoitzako artisten erakusketa

Larrekon, uztailaren 22ra arte, 11:00etatik 18:00etara.

JARDUNALDIAK

URDAZUBI

Ikaburu Lezearen Eguna

Egun osoko egitarauarekin. Uztailaren 15ean.

GOIZUETA

Karmen bezperako festa

Afaria eta suak saltatzea. Plazan, uztailaren 15ean, iluntzean.

HERRI KIROLAK

SARA

Indar jokoak

Errebote berrian, uztailaren 18an eta 25ean.

BERA

Herri kirol jaialdia

Arantza, Arraioz, Igantzi eta Sunbilla lehiak. Eztegara pilotalekuan, uztailaren 22an, 19:00etan.

BERTZELAKOAK

BERA

Muga gabe zirku festibala

Clown eta akrobazia tailerra eta ikuskizuna. Herriko etxeko plazan, uztailaren 14an.

LEGASA

Kantu zaharren bazkaria

Frantzisko Santxotena eta Aitor Ibarra 'Jalisko' musikariekin. Santa Leokadia basilizan, uztailaren 15ean, 14:00etan.

LEITZALDEA

Leitzako liburutegi ibiltaria

Uztailaren 12an Areson 11:00etatik 11:30era. Uztailaren 14an Goizuetan 11:00etatik 12:00etara eta Aranon 12:30etik 13:00etara.

NIRE AUKERA

«Bere denbora dedikatzea exijitzen duen instrumentua da bateria»

IBAI ROS SALAZAR BERAKO MUSIKARIA



«Musikazalea eta nahiko mugitua den mutil beratarra» da Ibai Ros. Musika aditzea du gustuko, baina baita sortzea ere; bateria jotzen du, hain zuzen ere.

Ttikitatik ikasia

Etxean «betitik entzun izan dut musika, etxeko musika ekipoa eta kotxeko irratiari. Aitak estilo aunitz paratu izan ditu: metal, musika klasikoa, rocka, countrya, bluesa, jazz, musika latino... Scorpions eta Iron Maidenetik hasita, Silvio Rodriguez eta Bob Dylan bezalako abeslarietara.

Horrek eraman zuen zortzi urterekin bateria jotzen hastera; «Berako musika eskolan hasi nintzen, Igor Telletxea izan nuen irakasle, eta hor egon nintzen 18 urte bete arte». Aitortu duenez, «baxuarekin ere saiakeraren bat egin dut,

baina nahiko abandonatua dut momentuz...».

Taldez talde

Geroztik ez du geldirik egoteko astirik izan, «saltsa batzuetan ibili naiz bateria jotzen, kide edo ordezko modura hainbat talde eta artistekin: Kalera, Gabenara, Azken Treña, Jon Mazizior, Sin Mala Intencion, Beñat Igerabide, Maider Zabalegi, Gonzalo Portugal...».

Gaur egun, Bide Batez erromeriarekin eta Noa & The Hell Drinkers taldearekin aritzen da, baita ongi aritu ere, Euro-

«ETXEAN MUSIKA ESTILO AUNITZ ENTZUN IZAN DITUT BETITIK»

pako Blues Challenge lehiaketa irabazi baitu berriki Noa & The Hell Drinkers taldeak Polonian. «Hagitz esperientzia polita izan da. Nire lehen aldia da bertze herrialde batera musikarekin lotua dagoen zerbait egitera joaten naizela».

Gainera, «aukera hagitz ona izan da taldearen izena Europan zehar ezagutzera emateko. Lehiaketan Europako zortzi herrialdeko blues jaialditan jotzeko aukera izan dugu, eta ikusi gintuzten antolatzaileei esker kontzertu gehiago jotzeko aukera izanen dugu».

Instrumentu exijentea

Rosek azaldu duenez, «instrumentu guztiek bezala, bere denbora dedikatzea exijitzen duen instrumentua da bateria, eta pazientziaz hartu behar da. Bertze instrumentuekin konparatuta agian denbora gehiago kentzen dizu, batez ere muntatzean eta desmuntatzean!».

Hala ere, «ahal dudan denbora guztia dedikatzen saiatzen naiz; taldeetarako erreperorioak prestatuz, gauza berriak ikasiz, teknikoki eta musikalki hobetuz eta ahal denean lagunekin jotzeko geldituz.

Inspirazio ugari

Musika estiloen aukera zabal da, eta artistak ugariak, beraz, zaila da bakarria hautatzea: «estilo aunitz gustatzen zaizkit eta beti aurkitzen dut estilo bakoitzean gustukoan dudan talde edo kantaren bat. Betitik gehien entzun ditudan musika estiloak rock eta pop musika izan dira, abeslari bat eta atzetik taldea dutenak.

«INTERESGARRIAK DIRA MUSIKA FUSIONATZEN DUTEN TALDEAK»

Interesgarriak iruditzen zaizkit ere musika fusionatzen duten talde martzianoagoak: Karizma, Michael Landau, Snarky Puppy...».

Hori dela eta, inspirazio iturri andana ditu egunerokoan. «13 bat urte nituela atentzio gehien eman zidan bateria Gaizka Salazar izan zen, Gati-bu taldekoa. Hagitz soinu polita du eta energia aunitz transmititzen dit».

Horrez gain, «Euskal Herri mailan Igor Telletxea, David Gorospe eta Karlos Aranzegi aunitz gustatzen zaizkidan bateriak dira. Hiruak hagitz diferenteak dira eta gozame-na da jotzen entzutea». Mundu mailan, aldiz, «Vinnie Colaiuta, Jeff Porcaro, Aaron Sterling, Steward Copeland, Taylor Hawkins, Miguel Lamas... zaila da bakar bat aukeratzea».

Bateria jotzaileak ez ezik, bertzelako erreferentziazko artistak ere baditu. «Gehien gustatzen zaizkidan artista eta taldeak: John Mayer, Toto, Foo Fighters, Police, Sting, Michael Jackson, Itoiz, Gati-bu, Morgan, Ketama, Eros Ramazzotti, Genesis, Muse, David Gilmour, Sia, Dua Lipa, Bruno Mars... eta aunitzez gehiago erranen nituzke».

Etorkizunera begira

Musikatik bizitzea zaila dela dio Rosek, «nik lana egiten dut aparte, eta ezagutzen ditudan musikari gehienek berdin, bertze lan bat dute edo klaseak ematen dituzte». Hala ere, argi du zerk egiten duen artista on bat: «niri gehien gustatzen zaizkidan artistek badute musika egiteko modu propioa eta hori publikoari transmititzeko gaitasuna».

Etorkizunera begira, «bateria jotzen eta kontzertuak ematen segitzea espero dut. Baditut bertze proiektu batzuk ere esku artean, orain hasten ari direnak».

MERKATU TTIKIA

ETXEBIZITZAK

ERRENTAN HARTZEKO

BORTZIRIAK. Pertsona bakarra urte guztirako pisua bila. ☎639 19 81 77.

BERA EDO XARETA-BAZTAN inguruan 40 urteko gizon bat errentan hartzeko edo konpartitzeko apartamentu bila. Pertsona garbia eta arduratsua. ☎630 70 66 95.

BERA. Neska arduratsu eta langile batek apartamentua errentan hartu nahi du. ☎669 33 61 88.

ERRENTAN EMATEKO

BARAÑAIN. Pisua errentan emateko. 3 logela, sukaldea-egongela-jangela eta bainugela. Unibertsitateko ikasleentzat, ospitaleetako langileentzat, NUK-koentzat edo Landabengoentzat toki onean. Berritua eta altzariz hornitua. Estreinatua gabea. Bista onak eta argitsuak. ☎639 11 80 61.



DONOSTIA. Terraza ederra duen pisu txikia Gros auzoan alokatzeko. Hondartzatik gertu eta hornituta (sukaldeko tresneria, izarak eta eskuoihalak...). Oporrak pasatzeko aproposa. ☎657 73 79 90.

BAZTAN. Irailetik ekainera pisua errentan emateko. ☎630 23 36 81.

SALGAI

BERA. Kanttonberri karrikan 81m²ko pisua salgai. 3 logela, bainugela, sukaldea eta egongela. Berogailua, igogailua eta trastelekuarekin. Prezioa 144.000 euro. ☎619 63 98 78.

LEGASA. 81 m²ko pisua salgai. Eguzkitsua, 3 logela, bainugela eta sukalde-egongela beheko suarekin; berogailua. Bizitzera sartzeko prest. 22 m²ko lokala. 150.000 euro. ☎606 58 96 36.

ELIZONDO. Giltzaurdi karrikan pisu eguzkitsua salgai: 3 logela, egongela, balkoia, hall, bainugela (berritua) eta sukaldea (berritua). Bizitzera sartzeko prest. 105.000 euro. ☎676 88 83 35.

IRAGARKIA JARTZEKO:

☎ 948 63 54 58

🌐 www.erran.eus

☎ 744 48 43 61

@ info@ttipi.eus

Sail honetan **IRAGARKIA** jartzeko **10 euro** ordaindu behar da

ARGAZKIAREKIN jarri nahi izanez gero **12 euro**

Iragarki bakoitzeko **GEHIENEZ 25 HITZ** onartuko dira

TTIPI-TTAPA aldizkariaren 2 zenbakitan eta

ERRAN.EUS webgunean hilabete batez agertuko da

Ordainketak Rural Kuxako **ES86 3008 0080 5607 0330 4329** kontuan **Bizum** bidez (744 48 43 61)

TTIPI-TTAPAK ez du bere gain hartuko argitaratu diren iragarkien ondorioz sortu ahal diren operazio bidegabeken erantzukizunik

KONPARTITZEKO



IRUÑEA. Paulino Caballero kalean pisua konpartitzeko ikasle bila. Unibertsitate publikotik 5 minutura, logela handia, erabat prestatua. ☎607 85 32 08.

LURRAK/ORUBEAK

SALGAI

ARANTZA. 3.700 metro koadroko lur eremua salgai. ☎648 01 67 29.

LANAK

ESKAINTZAK

Larhongo Maritxen bentan langilea behar dute uztailan eta abuztuan lan egiteko. ☎674 79 58 63.

BERA. Urbicain gasolindegian lanaldi osoan aritzeko langilea behar dute uztailaren 15etik azaroaren 15era. ☎629 08 35 67.

DANTXARINEA. Mikelenborda jabetxean langile bat behar dute 10:00etatik 17:00etara aritzeko. Urte osoko lana. ☎690 38 81 34.

LESAKA. Iturbena kafetegian urte guztirako lanaldi osoan aritzeko zerbizaria behar dute. Esperientzia kontuan hartuko dute. Ordutegi finkoa eta aste osoan 2-3 egun libre. Interesatuak bertatik pasatu edo telefonoz deitu. ☎620 70 09 64.

BASERRIA

BEHI-AZIENDAK

Aretze gizenak:

Idixkoak: €/kg kanal

- Extra 5,30 €
- 1.koa 5,18 €
- 2.koa 5,06 €

Urruxak: €/kg kanal

- Extra 4,41 €
- 1.koa 5,27 €
- 2.koa 5,16 €

Oharra: prezioak 180-220 kg kanalean pisatzen duten aretzeenak dira

Aretze ttiikiak

- (15 egun ingurukoak).

Aretze mestizoak

- Urruxak 125,00 €
- Idixkoak 210,00 €

Aretze nabarrak

- Urruxak: 120,00 €
- Idixkoak 140,00 €

ZALDI-AZIENDAK

Zaldikoak: €/kg

- Sortu berriak: 5,40/5,50 €
- Zaldi-behorrak: 2,52/2,69 €

ARDI-AZIENDAK

Bildotsak

- 6-8 kilokoak: 8,70/8,80 €
- 8-10 kilokoak: 6,80/7,50 €

ZERRI-AZIENDAK

Zerrikumea (19 kilo): 90 €

Zerri gizona 2,025 €

Zerramak 1,410€ kg/bizirik

Datu iturria: Nafarroako Gobernua ekainaren 23tik 30era bitarteko prezioak)

BERA. Botxo ostatuan sukaldaria behar dute. ☎617 72 34 75.

BERA. Adineko emakumea zaintzeko langilea behar dute, 17:30etik 21:30era. ☎628 00 15 57.

BERA. Data zehaztuz etxea garbitzeko emakume arduratsua nahi dute. ☎669 33 61 88.

ESKARIAK

Eskualdean lan egiteko prest dagoen mutila. Arduratsua eta langilea. Esperientzia lan anitzetan: mantentze lanetan, igeltsero... ☎634 29 47 41.

BAZTAN. Neska batek lan eginen luke: sukaldari laguntzaile, adinekoak zaintzen, etxeko lanak egiten, garbiketan... ☎637 72 85 00.

ANIMALIAK

OPARITZEKO

LEITZA. Collie arrazako txakurkumeak oparitzeko. Hori bai, maiteko eta ongi zainduko dituenari bakarrik. ☎636 02 23 11.



Zakurkumeak oparitzeko. ☎680 88 77 56.

Hiru katakumek etxea behar dute. Bi ar eta eme bat dira. ☎650 79 76 69.

SALGAI

LEITZA. Txerrikumeak salgai, bizirik edo prestatuta. Informazio gehiago Whatsappez edo telefonoz. ☎690 98 61 18.

Ehiza txakurkumeak salgai. Ama grifoi vendeano arrazakoa eta aita sabueso arrazakoa, biak ehiztari oso onak. ☎654 77 36 49.

DENETARIK

SALGAI



Pago egurra salgai, bi neurritan, ekonomikarendako eta lurreko suarendako, etxera eramateko zerbitzua barne. ☎690 08 56 65.

Forjazko oheburu antikuariora salgai. Egoera ezin hobean. Ohatze haundientzat egokia. Neurriak: 180 x



150cm. Prezioa: 390 euro. ☎629 65 65 42.



2 koltxoi eta 3 kajoiko ohatzea salgai. Egoera hagitz onean. Armazoiak: 204x88x116. Ohatzeak: 105x195 eta 90x180. ☎699 10 77 29.

ZERBITZUAK

ZURGIN LANAK

ARANTZA
ZURGINDEGIA

Klase guzietako zurgin lanak
Eskatu aurrekontua konpromisorik gabe

Joxe Miguel Errandonea - ARANTZA
647 810 144 - 626 093 181

MOTORRAK

TAILERRAK

GANIX
SERVICIOS

948 63 06 69
Zalain Pol., 11 - BERA
EUROMASTER zegoen lekuan

Mendaur Motor
Leitzako bidea • DONEZTEBE
T. 948 450 333

Kotxe salmenta | Marka guztiak

Kotxe berriak

SUZUKI S-CROSS
1.6 - 120CV

TOYOTA LAND
CRUISER 3.0 - 163CV

www.mendaurmotor.com

URTEBETETZEAK



June Mendiburu Andresena: Uztailaren 12an 10 urte beteko dituzu, aunitz urtez!!! Disfrutatu zure egunaz. Mila muxu eta besarkada zuretako!



Arai Arteaga Andresena: Uztailaren 23an 10 urte beteko dituzu, aunitz urtez!!! Disfrutatu zure egunaz. Mila muxu eta besarkada zuretako!

Aunitz urtez!

Zoriondu lagunak eta senideak!

Internetez <http://erran.eus/zorionagurrak> helbidean sartuta.

Bulegoan eta postaz

Koskontako bidea, 7-1-31770
LESAKA helbidera etorrita edo bidalita.

Whatsappez 744 48 43 61
zenbakira idatzita.



Xuban Ugalde Pikabea arantzarrak 8 urte beteko ditu uztailaren 29an. Aunitz urtez eta zortzi muxu haundi familiaren partez. Ongi pasa zure egunean!

SORTZEAK

- **Texa Gorosurreta**, Sarakoa, ekainaren 11n.

KULTURKARI
Discoina grafikoa | Publizitatea
www.kulturkari.com

WEB orriak

Landetxeak Komertzioak Gremioak...

Zure web gunea **DOAN!**

KIT DIGITALA

2.000 € arteko dirulaguntza

Info kulturkari.com/kit-digitala

Ordenagailu, tablet eta mugikorretara egokitua

Kontaktu formularioa

Lokalizazio-mapa

Testu eta argazki galeria

Hizkuntzak aukeran

HILBERRIAK

- **Francois Etxeberrigarai**, Sarakoa, ekainaren 4an, 59 urte zituela.
- **Pierre Pradere**, Sarakoa, ekainaren 6an, 96 urte zituela.
- **Maria Itziar Durruti Sukilbide**, Arizkungoa, ekainaren 23an, 56 urte zituela.
- **Andres Zestau Zabaleta**, Leitzakoa, ekainaren 23an, 82 urte zituela.
- **Joaquin Gartzia Sacristan**, Berakoa, ekainaren 23an, 77 urte zituela.
- **Modesto Juanaberria Frantzesena**, Elizondokoa, ekainaren 26an, 88 urte zituela.
- **Federico Moreno-Torroba Larregla**, Doneztebekoa, ekainaren 27an, 89 urte zituela.
- **Martina Arozena Zubiri**, Elgorriagakoa, ekainaren 29an, 88 urte zituela.
- **Anastasio Larralde Mitxelena**, Lesakakoa, ekainaren 29an, 70 urte zituela.
- **Gregorio Fernandez Arevalo**, Oronoz-Mugairikoa, ekainaren 30ean.
- **Lourdes Ustariz Oronoz**, Berakoa, uztailaren 2an, 76 urte zituela.
- **Alberto Santamaria Richard**, Elizondokoa, uztailaren 2an, 53 urte zituela.
- **M^a Carmen Zubikoa Telletxea**, Doneztebekoa, uztailaren 3an.

URTEURRENA



Maite AROZARENA BENGOTXEA

1958-07-18/2014-07-27
IX. URTEURRENA

*Ama, zure irribarre polita gogoratu,
Gure ondoan zaudela sentituz,
Zure ilusio eta ametsekin jarraituz,
Aitzinat segituko dugu beti zu maitatuz.*

Bere aldeko meza uztailaren 22an Urdazubin eta 23an Amaiurren izanen da.

ZURE FAMILIA



BAZTAN: ELIZONDOn Santiago kalea, 79
BORTZIRIAK: BERAn San Jose Beilatokian
MALERREKA: DONEZTEBEn Aparan ind. 1-3
web: funerariabaztanbidasoa.com

Baita BERTIZARANA, BORTZIRIAK, URDAZUBI ETA ZUGARRAMURDIKO ETXEETAKO ZERBITZUAK ere

24 ORDU | 948 48 95 50
365 EGUN | info@funerariabaztanbidasoa.com

Betiko taldea zu laguntzeko

Oroigarriak

- Personalizatuak
- Oroigarri bikoitzak edo sinpleak
- Hainbat neurri eta kopuru
- Fotomuntaketak eta argazki-moldaketak
- Ereduek aukeran
- Gutun-azalekin entregatzen dira



KULTURKARI
Divisio grafiko | Publizitatea
www.kulturkari.com
Tel. 948 63 54 58

IRACHE
tanatorioak

Nafarroako familien zerbitzura 1976tik

BERA | DONEZTEBE | ELIZONDO | LESAKA | LEITZA


ETXEETAKO ZERBITZUA

Trasladoak Iruñea, Donostia eta Irungo ospitaleetatik edozein herritara

24 948 63 74 04 / 948 19 70 70
www.tanatoriosirache.es



Gure burra,
gure jendea,
gure sustraiak



TANATORIOAK

- ELIZONDO
- BERA
- DONEZTEBE
- ARANTZA
- IGANTZI

24 h Eskatu aurrekontua konpromisorik gabe

948 05 90 90 www.izarratanatorio.com

KONTATU KONTUAK



UTZITAKO ARGAZKIA

Osasun zerbitzu duinaren alde. Ekainaren 29an ere karrikara atera ziren Bortzirietako herritarrek. *Bortzirietan osasun zerbitzu duina nahi dugu* lelopean Lesakako Osasun Zentroko atarian bildu ziren hainbat herritar. Hurrengo elkarretaratzea irailean eginen dute.



IBAI IITURRIA

Berako Agerra Mendi Taldea Aizkorriin. Ikasturteko azken irteera egin zuten Agerra Mendi Taldekoak ekain hondarrean. Hemezortzi mendizale elkartu ziren Aizkorrik dituen 1.523 metroak igotzeko. Igoera San Adriango tuneletik egin zuten, 10 kilometroko ibilbide zirkularra izan zen eta lau orduz osatu zuten.



ARANTZA AGIRRE

Iruñeko hilketa matxista salatzeako elkarretaratzeak Beran eta Leitzan. Gizonezko batek bere bikotekidea hil zuen uztailaren 1ean Iruñean, urtea hasi denetik Euskal Herrian izandako laugarren hilketa matxista izan zen. Hilketa salatzeako karrikara atera ziren uztailaren 3an Beran Goldatz Berako emakume taldeak deituta eta uztailaren 4an Leitzan Lañaidetek neska* gazteen taldeak deituta. Beran *Basakeria matxistak hiltzen gaitu! Askí da!* lelopean elkartu ziren Mukixu zubian eta Leitzan *Erasoen aurrean autodefentsa feminista* aldarrikatu zuten plazan.



AINARA SARALEGI



EUSKARABENTURA

Euskarabentura eskualdera bidean. Uztailaren 1ean Maulen hasi zen eta Getxon bukatuko da Euskarabentura espedizioaren laugarren aldia. Tartean eskualdea ere gurutzatuko dute: uztailaren 16an, igandea, Oiartzunen barna Lesakara ailegatuko dira. Biharamuna, uztailaren 17a, eskualdean emanen dute, Lesaka eta Urdazubi arteko bidea oinez osatuko baitute. Uztailaren 18an, Urdazubi eta Amaiur arteko bidea eginen dute oinez. Amaiurko gaztelura joanen dira, eta etapa bukatzeko autobusa hartuko dute Baionara.



ANA INDABURU

Ekainaren 20ko harri erauntsia. Bertatik bertara ikusi zutenen oroimenean egonen da oraindik ere ekainaren 20an 15:00 aldera egin zuten harri erauntsia. Arantzan, Igantzín, Etxalarren eta Sunbillan behintzat ederra bota zuten. Batzuk lanean, bertzeak etxean, errepidean... topatu zituen erauntsiak eta kalteak agerikoak izan ziren. Horren lekuko da irudian ageri den Etxalarko hoditeri hori.

ZORIONAK!
IBAI MENDIZABAL MAIZ
833. aleko irabazlea zara!

PLAZAN BAZAN



ITZALA



Ui... Trena galduko duela ematen du, baina zein da bere itzal zuzena?



Marrakziak: Garbiñe Ubeda (Alturri)



Loguntzailerak:

ibaizabal

Plazan bazan egiteak BADU SARIA!

Egin denbora-pasak, eta bidali argazkia emaitzekin maiztaren 16a balno lehenago, Ttipi-Ttapako Whatsappera: (0034) 774 48 43 61 zure izen abizenak jarrita. Ondoa duzun sortaren zozketan parte hartuko duzu!




INTERNETEN ERE BAI!

<http://plazanbazan.eus/>

Kontsultatu soluzioak
www.PlazanBazan.eus/kioskoa/soluzioak


PUZZLEA

Puzzle hau osatzeko bederatzia pieza behar ditugu, baina hemen 12 daude. Zeintzuk dira txarrak?



ARGINDARRAREN DOMINOAN

Bete itzazu hutsuneak argindarraren domino zati honek zentzua izan dezan.



Ttipi Txartelaarekin
beti irabazten da!

DESKONTUAK, ZOZKETAK...

TTIPI-TTAPA ALDIZKARIA

MUSU-TRUK

-%80 ko DESGRABAZIOA

ERRENTA AITORPENEAN

Eskatu zurea: 948 63 54 58

Informazio gehiago:

TTIPI-TTAPA

Koarkontako bidea, 7 LESAKA

T. 948 63 54 58 | M. 744 48 43 61

info@ttipi.eus | erran.eus

www.ttipi.eus/ttipi-txartela

833 zenbakiko irabazleak >



ZOZKETAK

Donostiako Aquariuma - Bi sarrera
Sagrario Mitxelena Iparrea | ELIZONDO

Buatxabal - Kamiseta bat
Ane Intxausti Lasarte | LEITZA

Zugarramurdiko lezeak - Sarrera bat
Belen Juanikorena | IRUÑEA

Irrisarri Land - Sarrera bat
Liborio Aritzia Etxeberria | DONEZTEBE

WOW Park - Sarrera bat
Isabel Iparragirre Sanzberro | IGANTZI

La Rhune - Sarrera bat
Jabier Larrui Larrañaga | ETXALAR

Arrate Estetika Zentroa - Lote bat
Jaione Zabalo Juantorena | EZKURRA

Okille Tailerra - Eguzkilore bat
Gabi Igarzabal Etxabide | IRUN

Airaka - Hiru CD
Unai Barazabal Erasun | AZPILIKUETA

DONOSTIAKO AQUARIUMA
www.aquariums.com



Bi sarrera

ONDOO TA PUNTO
www.ondootapunto.com



Kamiseta bat

EZKEXA
www.ezkexa.com



Kamiseta bat

BKZ ABENTURA
www.navantaaventura.com




Sarrera bat

WOW PARK
www.wowpark.fr



Sarrera bat

MENDUKILO
www.mendukilo.com



Bi sarrera

MUGARKI
www.mugarki.com/ea



Sarrera bikoitza

EDR GUNEA
Elbarren 47, behea - Leitza



Lote bat

Sartu

ttipi.eus/ttipi-txartela

webgunean
eta ikusi
abantaila guztiak!

DESKONTUAK
ZOZKETAK
ELKARRIZKETAK
LAGUNTZAILEAK
ARGIALETAK



Aprobetxa itzazu Ttipi Txartelak
eskaintzen dizkizun
abantailak, Ttipi Txartela
onartzen duten denda eta
zerbitzuetan erosiz.

LIBURUAK

Hiru Liburu



Deskontuak eta zozketa: Ttipi-Ttapa aldizkari
guztietan Ttipi Txartelaren informazioa argitaratzen
da, zozketak eskainiz eta aukeran dituzun
deskontuak oroitaraziz!

ibaizabal
www.ibaizabal.com